***J. SAN MARTIN***

# ***A N T Z I N A K O   E I B A R***

*...andixek gora dago*
*zerura bidea.*

J. SAN MARTIN

# A N T Z I N A K O  E I B A R
*Etnografia Gaiak*

- . -

Temas de etnografía del antiguo Eibar

AURKIBIDEA / INDICE

HITZAURREA - PROLOGO

I

. Viejas costumbres eibarresas.
. En torno a San Juan
. Eguzkia Gurtzea
. Donibane Kantak
. Ekaineko Donibanez
. Ekaineko ospakuntzak
. Herriaren Gabon kantak
. Gure herriko Gabon kantak
. Manuel
. Suaren sinbologiaz.

II

. San Blasko Opillak
. Santa Ageda kantak
. Aratostiak
. Eibarko Aratostiak
. Ondorenak
. Ixu Eguna
. Gaztañerre eguna

III

. Akondia lexar baga (antziñako gerrate baten aztarnak)
. Sobre la tradición de la música coral en Eibar
. Eibar. Erdi-aroko agiriak
. Más sobre música y músicos eibarreses
. Dantzak
. Eibarko dantzak

IV

. Karlisten gerrateko kantak
. Forjarien kanta
. Gerrako ibillerak tragikomediazko bertsotan
. Bertso berriak, automobil zaharrari

V.

. Etnografía, Kezka

VI

. Arrateko kondairaz zenbait ohar
. Arrateko kantategia
.Arraten sortzen eda bizitza

COS**TUMBRES EIBARRESAS**

Eibar, como otras localidades del país, ha tenido sus danzas peculiares, pero desafortunadamente, éstas no se han conservado hasta nuestros días, y los grupos de danzas que hoy existen actúan con repertorios traídos de otras localidades, o variantes creadas sobre ellos.

La memoria más elocuente de la existencia de danzas típicas en Eibar es, por ejemplo, el estampado en seda de finales del siglo XVII o primeros del XVIII, representando la romería de Arrate con esku-dantza.

Aparte, encotraremos curiosas citas, de tradiciones perdidas, en la **Monografía Histórica de la Villa de Eibar** por Gregorio de Múgica. En la página 408 de la citada obra, que alude a un documento de 1605, hallamos el testimonio de la fiesta celebrada con motivo del nacimiento del Príncipe, para que en la procesión solemne hicieran que saliera "*una danza para su adorno y regocijo"*. Y en el año 1708, según se recoge en la página 223, se abonan por "*Salario y troqueado de danzantes, 400 reales; al tamborilero por su salario, 300 reales; y por 25 libras de pólvora para las fiestas del Corpus y San Juan, 100 reales*". En la página 478, se cita la danza de espadas que se hizo el día de Corpus Christi en 1744. Y en acuerdo de 1756, según consta en las páginas 203/204, *"El síndico procurador general deberá llevar su respectiva cuenta como es costumbre inmemorial, con salario de 50 ducados de vellón y se le exonera de la costumbre antigua de dar de comer por San Juan y Corpus a los danzarines y tamboriteros*".

Así mismo de la importancia de la fiesta solsticial, San Juan Bautista, nos dan prueba evidente las cuentas registradas en 1847, y que Gregorio de Múgica recoge en la página 226 de la extraordinaria obra monográfica de nuestra villa, donde hace constar que *"Por seis carros de leña consumidos en las fogatas de San Juan, 60 reales".*

Entre las costumbres más características que han perdurado hasta nuestros días, están: San Blas, con las tortas benditas, Santa Agueda con sus coros, **Ixu-eguna** con los ritos de fuego y agua benditos y **Kaztaiñerre** con la cena ritual del día de las ánimas.

(AÑO 1974-Programa de las Fiestas de San Juan.)
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**EN TORNO A SAN JUAN**

Las fiestas tradicionales de San Juan Bautista han tenido tanta repercusión en el transcurso de la historia eibarresa, que con el tiempo -o quizá desde siempre- la tienen desplazada la de su patrón San Andrés Apostol.

Este arraigo le debe, San Juan Bautista, a su coincidencia con la figura solsticial, cuyo orígen se pierde en las brumas de la prehistoria. Y a la fiesta del solsticio se debe la costumbre de encender hogueras.

En el año 1708, abonó el Ayuntamiento de Eibar "por 25 libras de pólvora para las fiestas del Corpus y San Juan, 100 reales", y en 1847, "por seis carros de leña consumidos en las fogatas de San Juan, 60 reales".

Las hogueras se encendían en la misma plaza de Unzaga, donde radicaba la ermita de San Juan, antaño extramuros de la villa. En documentos de 1664 consta la procesión que se hacía el día de San Juan Bautista desde la parroquia de San Andrés hasta la ermita de San Juan del barrio de "Ulsaga". (Unzaga).

Esta ermita aún permanecía destinada al culto público en 1863, y sin duda, hasta su derribo. Tenía 7 metros de longitud por 6 de anchura, y se situaba a la orilla del rio Ego.

De la sesión que el Ayuntamiento celebró el 11 de abril de 1784 se deduce que Juan Bautista de Bascarán pidió que la limosna recogida en la ermita se destinara a hacer un colateral, ofreciéndose él a pagar lo que de la cantidad disponible excedieran los gastos. El Ayuntamiento accedió agradecido a la petición de Bascaran.

El R. P. Galdós que llegó a conocer la ermita y el paseo de Unzaga antes de las modificaciones del año 1900. He aquí como nos describió en aquel número extraordinario publicado por la Escuela de Armería el año de 1952: "El paseo de Unzaga era un verdadero paseo; con calles o veredas caprichosas, bien trazadas y mejor cuidadas; con árboles corpulentos, con asientos de madera y piedra. Paseo limitado a su derecha por la larga y majestuosa Casa del Rey o Casa Real (Errege-etxea), por la simpática capilla campestre de San Juan Bautista, Compatrón o Sub-Patrón de Eibar con San Andrés; y limitado, últimamente, por el largo asiento que daba al río y tenía por idílico fondo, de grata visualidad, el río Ego, el humilde afluente de Deva; y allende el río, el camino ribereño y soleado hacia Amaña y las huertas bien cuidadas y las tierras mejor cultivadas de Mecola y otros caseríos...".

Dejemos a la pluma del propio Padre Galdós la descripción del traslado del santo titular: "El mismo año 1901 se levantó muy cerca del Ayuntamiento el nuevo Hospital; y dedicando a San Juan Bautista su capilla, y colocando en su altar la estatua del Santo, que por siglos había sido venerado en Eibar con férvida devoción en la capilla campestre del Paseo de Unzaga, adosada a la pared lateral derecha de Errege-etxea, quedaron suficientemente salvaguardados los derechos eclesiásticos, y públicamente respetados y atendidos los justos devotos deseos del pueblo eibarrés, que siguió y sigue honrando religiosamente y visitando devotamente en el Hospital la venerada y secular estatua, ante la cual tantas veces rezó, tantas veces cantó u oyó cantar la Salve, al anochecer de la víspera de San Juan: Salve solemnísima e histórica, considerada por todos los verdaderos eibarreses necesario comienzo e insustituible apertura de los Sanjuanes...".

Hoy, en el Asilo-Hospital, solamente se conserva la escultura barroca de San Juan Bautista, del siglo XVII. Más puedo añadir, por averigüaciones poseteriores, que la imágen citada es obra del escultor eibarrés Juan Bautista Mendizabal, hijo.

(AÑO 1976-Programa de las Fiestas de San Juan. Ayuntamiento de Eibar.)
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**EGUZKIA GURTZEA**

Eguzkia gurtzeko ohitura antzin antzinako denboretatik gure egunok arte iraun du euskaldunon artean. Arkeologia aldetik begiratuko bagenu, gutien gutienez Neolitoz garaitik datorkigu ohitura hau. Eguzkiak argia eta beroarekin bizitza ematen digu, eta natura hutsaren gora beherekin bilakatu zen antzinako gizonak eguzkia gurtzea gauzarik bidezkoena zela esango genuke.

Antzinako euskaldunek bitan banatzen zuten urtea: Uda eta negua. Hola aitortzen zigun Azkue berak *Euskalerriaren Yakintza*-ren lehen tomoko 68. orrialdean. Eta, obra beraren 158/160 orrialdeetan aurkituko ditugu eguzki gurtzearen agiriak, goizean irteeran edo naiz arratsaldez ezkutatzean. Gorbea ostean gordetzean: "Gaur kontsolau nozu, eguzkia; biar bere etorri zakidaz kontsolau naitean". Edo beste honako hauek; Diman: "Eguzkia joan da bere amagana biar etorriko da denbora ona bada"; eta Azpilkuetan egunsentiz: "Ongi etorri, iduzki xuri".

Eguzkia, iduzkia, iruzkia..., ezagutzen da euskalkirik euskalki, baina bere sustrai zaharra

Zuberoan oraindik erabiltzen duten "ekhia"n aurkituko dugu. Eta hontatik hartzen du bere izena hil honek ere. Ifarraldeko euskalki batzutan, Ekaina. Eguzkia foren aurkitzen den hila. Eta hil honetan izango dira eguzki ospatzeak ere, Euskal-Herrian ez ezik mundu guzian ere zabaldua den ohitura. Eguzki gurtze hoiek jentil otoitzak ziren noski, Luzaiden "atsuen otoitzak" edo "otoitz ttipiak" bezala ezagutzen direnak. Jose Maria Satrustegik jaso zituen hoietatik anitz eta Euskaltzaindiko sarrera hitzalditzat *Luzaideko Otoitz ttipiak* hartu zituen (ikus, *Egan*, 1964, 1-6 zenb., 19/30 orr.). "Herri bat zer den ongi ezagutzeko, zer izana den jakin behar litzake lehenik; edo nolakatu dugun denborarekin", esango digu Satrustegik bere hitzaldiaren haseran, eta adibide askoren berri agertu zigun, berberak zuzenki jasoak. Kontatzaileetariko batek honela aitortu zion: "Iruzkia ateratzian zeinatu eta esku-zabalari musu emanez potta igortzen dakogu".

Aita Donostiak ere antzeko gaia erabili zuen 1956an Euskaltzaindiko solas-aldi baten, "Euskal-Erriko otoitzak" izenez (ikus, *Egan*, 1956, 2.zenb., 34/52 orr.). Bertan zionez, Zuberoan oraindik ere esaten omen da "Ekhi saindua".

Nafarroako Larraunen honako otoitz hau aurkitu zuen:

*Agur, eguzki ederra,*
*Jetxirik zerutik lurrera,*
*Illuna desterratzera*
*Ta gu argitten paratzera.*

Eta Luzaiden bertan esaldi polit honi atzeman zion Aita Donostiak: "O Iruzki saindia, emakiguzu illeko ta biziko argia". Lekeition, haurtxoei, San Juan goizean goiz jaikitzeko esaten omen zien: eguzkia dantzan agertzen zelako. Eta Baxenabarreko Banka deritzan herritxoan jaso zuen otoitza ere oso polita da: "Adio Iguzki saindua, bihar arte; bihar xauri (atoz) egun bezala".

J.M. Barandiaranen bilketetan beste argibide asko bilatu ditzazkegu gai honi buruz. Ikus bere *Obras completas*-en lehen tomoan 75, 271 eta 383. orrialdeetan. Lehen partean, Euskal-Herriko Mitologian eguzkiak duen hedadura agertuko digu. Deitu ere, "Eguzkibegi" eta "Jainkoaren begi" deitua da Ataunen eta Berastegin. Eta San Juan jaiekin duen loturaz zenbait argitasun ematen digu. Aipatutako obra honen barnean dugu *La religión des anciens basques,* eta bertan ikusten denez, batzutan emakumezko amonaren izena hartzen du; Elosutik Plaentziara bitartean Muskurutxuko mendietan jaso zuenez:

*Eguzki amandria*
*Badoia amangana,*
*Biar etorriko da,*
*Denbora ona bada*

"Amandria", ilargiari deitzea, maizago ezagutzen dena da. Lan berean eta erakutsi dugunaren ondorean agertzen den bezala:

*-Illargi amandrea,*
*Zeruan ze berri?*
*-Zeruan berri onak*
*Oraiñ eta beti.*

Ataunen eta Ormaiztegin haurrek esan ohi dutenez. Baina, arestian adiarazi dugunez, "Illargi amandrea"renak oso zabalduak dira Euskal-Herri guzian.

Bietan argia da pertsona izena hartzen duena. Honegatik, Ondarruko kopla bat honela hasten da: "Zeu zara Santa Klara, euskeraz argia..." Eta Mañari partean esaten dutenez, eguzkiaren ama dela Andre Mari, izen honekin Ama Birjina adiaraziz. Baina behar bada, lehen lehenago, Andre

Mari mitologiako Marirekin nahastu zen. Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait herritan agertzen den bezala (J.M. Barandia ran, *Obras completas,* I, 383/384 orr.). Eta inoiz santa eta bedeinkatua aurkituko dugu. Adibidez, Errigoitin esan ohi da: "Eguzki santu bedeinkatue, zoaz zeure amagana".

Erlijio barriagoak zaharragoetarik beti hartzen dute zenbait ideia, gauza eta sineskera, eguzkia gurtze honetan ikus ditzakegun bezala, eta Ekaineko San Juan suak zaharrenetarikoak ditugu, gure egunotara arte irauduenetarik behinik-pehin.

* * *

De entre las reminiscencias de primitivas creencias, los dichos, ritos y fragmentos de oraciones en torno al astro solar serán sin duda las más antíguas de las que se pueden hallar en nuestro país.

Los vascos antiguos, y aún hoy podemos deducir de la manera de designar los equinoccios, que dividían el año en dos estaciones: verano *(uda)* e invierno (*negu)*. El mes de junio es cuando el sol alcanza su cota más alta y por esto en algunos dialectos se le ha venido llamando Ekaina *(sol alto)*. Y las hogueras de San Juan están estrechamente relacionadas con las fiestas conmemorativas del ciclo solar.

Entre otros autores, J. Vinson, R.M. de Azkue, P. Donostia, J.M. Satrustegui y sobre todo J.M. de Barandiarán han recopilado importante material de estas creencias que se pierden en la noche de los tiempos.

En algunas regiones de Vasconia, aún hoy, al ponerse el sol, le dirigen un saludo, que el mismo varía en cada lugar: "La abuela Sol va hacia su madre"; "Sol santa, bendita, vete hacia tu madre", y otras fórmulas similares. En Mañaria, al ponerse el sol, le saludan diciendo *agur* (adiós); de lo contrario, el sol, dicen, se retira llorando donde está su madre que allí creen que es la Virgen María o Andrea Mari, nombre que también designa al numen Mari, Tierra personificada, según ciertos relatos de Goierri y de la montaña de Navarra. (J.M. de Barandiarán, *Obras completas,* I, pp. 75, 271 y 383).

Nuestro pueblo, al mantener su lengua, con la misma ha mantenido también estas muestras de primitivas creencias adheridas al viejo idioma.

**OHARRA**

**Eguzkiaren inguruan beste ikuspegi anitz bada eta ongi merezi du J.Caro Barojak Estudios vascos-en bigarren kapituluan "El Sol" izenburuz agertzen dituen sineskera, ohitura eta gainerako iritziak ezagutzea.**

(1977 EGAN)
**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**DONIBANE KANTAK**

Jaialdi handi guziak bezala, Donibaneak edo San Juanak ere bere kantak ditu. Eibartarren ustean, bertan urtero kantatzen dena izango da egiazko bakarra. Honela hasten dena:

*Egun zoragarri hau heldu da berriz*
*pozan pozez bihotzak beterik.*

*Mendietako baserrietan*
*kaleko plaza danetan*

*San Juan suak piztutzen dira*
*gau zoragarri honetan.*

Baina ohitura zaharreko suak aipatuarren, San Juan bespera gabean Eibarren kantatzen den kanta hau ezta uste bezain zaharra. Beronen doinuz eratu zuen Guridik "El Caserio" izeneko zarzuelaren bitartekoa, intermedio.

Donibaneetako kanta zaharragoak sineskerekin nahastuak aurkituko ditugu. Ez dira Eguberrietako kantak bezain ugariak, baina bai kantategi politik ere bildu genezake Donibane edo San Juanen inguruan. Ekainean, San Juanen inguruan ezagutu diren sineskerak eta hauen indarra ezagutzeko ongi letorkigu Juan Thalamas Labandibarrek igazko urtearen azkenaldera argitaratu zigun liburu hura. *"La mentalidad popular vasca*" izenekoa, Azkue zenaren lanetan oinharritua, bere laugarren kapituluan dakarren "Eguzki" delakoan batez ere. Jose Migel Barandiaranen lanetan ere argi ikus genezake, *"Obras completas*"en lehen tomoaren hirurogeita bat orrialdetik hasita "Donibane" izenaren barna. Gure geografian aski hedatuak daude, suaren gainetik jauztean, honako esaera hauek: *Sarna fuera* edo *Txarrak kanpora eta onak barnera,* eta antzerakoak.

Txarraren ondamena eta ona gailentzea sinbolizatzen da eguzkia goren aurkitzen den egun hauetan. Sarna ete beste zenbait gaitz sendatzeko garai ederra. Eguzkiaren onuraz nabariturik ziren. Aro ilunagoak atzean uzteaz sorginak ere gutitzen ziren nonbait. Dena dela, San Juan bezperako suaren ondoan ez dago sorginen beldurrik; izutasunik gabe arpegia emateko ordua da:

*Jaun Donaani Batista*
*Gazteok dantzan gabiltza:*
*baldin ba gabiltza*
*ta ez balin bagabiltza,*
*hunat atso kalbo murritza.*

Edo, bestela, honelako biraoak jasoko ditu:

*San Juan dela, San Juan:*
*gure goiko soruan*
*Sorgin begia galdu da:*
*galdu bada, galdu bedi:*
*sekula agertu ezpaledi!*

Kanta hoiek lehen aldi bat izango zuten artzantzan, eguzkiaren inguru biltzen zituzten ohitura zaharretan, eta Azkuek Legutianon aurkitu zuen honako aztarna hau:

*Izarra dogu Batista,*
*eguzkia Jesukristo.*

*Ikus Cancionero popular vasco*-ren bigarren liburukian 838. kanta. Edo hobeto esan, lehenagoko kanta baten zatiak. Maiteminezko bertso batzuekin nahasturik dator, baina eguzkia gurtzearen aztarnak argi daude.

Arabako Legutianotik Nafarroako Burunda aldera jotzen badugu, intza eta uraren sineskerak maizago aurkituko ditugu. Olaztin bildu zuen kanta baten hasieran hau dio:

*Garagarrilean eguna bero*
*goizean intza denean.*
*goizean intza denean eta*
*egun klaro denean.*

Behar bada nekazaritzaren indartzetik sartu zen uraren inguruko ohitura, edo dena dela hau ere gehitu zen lehendikako sineskeren gainera. Eta Olaztitik laster, Urdiainen bildu zuen Azkuek beste honako kanta hau:

*Goazen San Juanera gaur arratsean,*
*etorriko gerala bihar goizean.*

*Goazen San Juanera berduratara*
*berduratara eta han egoitera.*

*Egungo egun honek San Juan dirudi,*
*ezta San Juan, baina hala lonbra bedi.*

*San Juango iturriaren ondo-ondotik*
*zazpi iturri urre-kaiñoetatik.*
*Zortzigarrena ere metal zurietatik.*
*.................................*
*Lehenbiziko eskuak ta gero musua,*
*San Juanen iturriko uraren freskua!*

"*San Juan bagilean, denpora ederrean*" bi eratara bildu zuen Azkuek, Otxandion eta Murelagan; belarren usaiaz aparte, sinesmenaren zentzu zaharrezkorik San Juan Ebanjelista Jesukristoren lengusutzat jartzen du herri kantak:

*San Juan bagilean*
*denpora ederrean,*
*edozein bedarren usaina dauko*
*Doniane goizean.*
*Da San Juan, da San Juan,*
*Beti ohi zaukadaz gogoan.*

*Ia da Doniane edo*
*jentea triste dago.*
*San Juan bera bere*
*loak hartua dago.*
*Atzo San Juan San Juan zan*
*da gaurda San Juan Batista,*
*Jesukristoren lengusua da*
*San Juan Ebanjelista.*
*Da San Juan, da San Juan,*
*beti ohi zaukadaz gogoan.*

Dena dela, Donibane kantategia zatikaturik edo pikorturik heldu zaigu eta antzinako mundu mitiko hartakorik aztarna batzuk besterik ez ditugu

* * *

Del ciclo del solsticio de verano, con las fiestas de San Juan, no disponemos de un cancionero tan rico y variado como de la época de Navidad. Aun así, su repertorio no es nada despreciable para hallar materiales del mundo mítico del pasado. La canción más generalizada, el himno de San Juan, aunque guarde algunas partes de la originaria popular, con alusión a las hogueras, es un arreglo de comienzos de nuestro siglo.

El primitivo cancionero nos ha llegado fragmentariamente, mezclado con reminiscencias de ritos paganos. En el presente artículo doy una muestra del contenido de algunas de estas canciones populares con creencias del pasado. En la estrofa final de una recogida por Azkue en Villarreal de Alava, la estrella simboliza al Bautista y el astro solar a Jesucristo. En una de Olazagutía se insiste sobre las virtudes del rocío; en otra de Urdiain se considera milagrosa a la fuente de San Juan; y en la de Murélaga se alude a las hierbas aromáticas.

J.M. de Barandiarán, en Donibane, del diccionario mitológico, "Obras completas" tomo I, expone una serie de creencias correspondientes al solsticio de verano. Asímismo J. Thalamas Labandibar en "La mentalidad popular vasca" basada en la obra *Euskalerriaren Yakintza* de Azkue, y concretamente en el capítulo "Eguzki". Aunque la mayoría de las canciones aquí recogidas procedan del "Cancionero popular vasco" de R. M. de Azkue

(GOGOZ, 57-60 Orr. 1978)

*NOTA*: Toribio Echevarría nos informa sobre algunos aspectos de la fiestas tradicionales de San Juan en la página 136 de *Viaje por el país de los recuerdos*, y también de la costumbre que continuaba hasta el día de San Pedro para festejar con una pantomima burlesca en imitación al Alcalde, para dar fín a las fiestas. En nuestros días hemos conocido las celebraciones rurales en la plaza de Urkizu.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**EKAINEKO DONIBANEZ**

Kosmos berritzearen ospakuntzak argi nabari zaizkigu neguan Eguberriz eda udaran ekaineko Donibanez. Urtaro hauen izenak heurak ere kosmogoniari loturik bai daude: Eguberri eta Ekaina. Eguberri, eguzki berritzea edo eguna berritzea. Egunaren izen bera eguzkian sustraitzen denez. Eta, Ekaina, eguzkia gainean (goren) aurkitzen den urtaroa da.

Inoiz esan dudanez, egutegi zaharra bi urte muga horietan banatzen zen. Gerokoa zaigu lautan zati-tzea, ilargiaren lau aldieri loturik eta eguzkiaren lau aldiotara bateratuz.

René Guénon-entzat, *Symboles fondamentaux de la Science Sacrée* (1962), solstizio hauek, eguzkiaren ospakuntzak, gizonen eritzizko kosmogoniaren bi ateak dira, ekaldeko erresumetan Jano-ren bi aurpegiez sinboliZatzen dena eta, kristautzean, itxura horri jarraituz San Joan bietan ospatzen dena: San Joan Ebangelista eta San Joan Bataiatzailea. *Yahanán* (edo, hobeto esan, *Yehohanán*), Jainkoaren miserikordia edo alabantza esan nahi duena, haientzat hartuz. Guri behinik-pehin, semantikaren joko hau irristakorra iruditzen zaigu. Hala ere, gai hontaz, bila-ketarako lagungarri zaigu.

Gai hau, Jose Mari Satrustegi adiskideaK, argitaratu zuen *Mitos y creencias* deritzan liburuaren 35-96 orrialdeetan. Satrustegik, Mircea Eliade-ren teoriak hartu ditu oinarri eta Euskal Herriko mitologiari erantsi. Egizko historian edo bizitzan oinarritzen diren mitoak, gizonaren egintzazko epikatik sortu diren kondairetatik banatuko ditu. Sorkunde arrazoiei erantzunez datozenak bereziz, eta hauetan garrantzitsuenak ditugu eguzkiaren ospakuntzak: Eguberri eta Ekaina.

Ekaineko ospakuntza, eguzkia gurtzeaz, ura, landare eta batez ere suaren ritoak erabiliko ditu, bakoitzaren inguruan bildu duena adieraziz.

Ospakuntza horien bidez, gizonak, urtero berritzen du sorkundea. Neguan jaiotzaz eta udaran Naturaren heldutasunez. Horrela aurkitzen du bere nortasuna. Sorkunde, hazkunde, garbikunde ohituretan inguraturik. Inoiz, ekaineko, sorginkeriekin ere nahasturik agertzen zaigu; baina honek,

nere ustez, bere lehenean garbikunde antzinean egiten ziren orgietan ditu bere sustraiak.

Ospakuntzok, mendeak zehar beren jatorrizko itxura aldatuz etorri zaizkigu eta gaur egun kontuz aztertu beharrezkoak ditugu gaiaren funtsera behar bezala hurbilduko bagara. Hontaz, lan ederra eskaini digu Satrustegik. Lehen aldiz ikuspegi berri eta egokiago bat eskaintzen bai digu. Orain bide argiagoak ditugu aintzinako euskaldunek Kosmos-aren sorreraz zer nolako usteak zituzten jakiteko.

Eguberri eta Ekaineko ohituren bilketaz aurrerapen handia egin da, batez ere J.M. Barandiaranek egin duen lanari esker.

*Gogoz* deritzan liburuaren 21-60 orrialdeetan ikus dezakegu zer nolako sineskerak erabili diren edo erabiltzen diren eguzkiaren ospakuntza hauetan. Eguzkia gurtzeaz soilik 1977ko ekainaren 20an argitaratu nuen artikuluan irakur genezake eta beste batean sorginkeriakin nahasteaz ihardun nintzen. Guziotan bada gairik aski gure mitologia zehatzago ikertuz joan ahal izateko. Baina oraingo honetan J. M. Satrustegik M. Eliade-ren teoriak hartuaz egin duen azterketari aurrerapen handia deritzagu. Aurrerantzean gai hauek ikertu behar dituenarentzat behar beharrezko liburua da.

Ekaineko Donibanez, edonondik begiraturik ere, gizonaren gogoetak aurkituko ditugu, izadiaren aurrez-aurre. Kant eta geroztiko razionalistek eta zientziaren abantailak Naturaren ikerketaz beste bide batzuetatik abiatu baziren ere, sorkunde arazoa oraindik misterio bat da eta antzinako gizonek hontaz zituzten sineskerak eta erabiltzen zituzten ritoak gauza jakingarriak dira izatearen eritzietan bildu den filosofia bera eta gizonaren pentsamendua hobeto ezagutzeko.

Zalantzak eta ikusmolde desberdinak aspaldikakoak ditugu. San Agustin berak zion, kristauak ez dutela ospatzen eguzkiagatik, baizik eta eguzkia egin zuenagatik.

Honela, era batera edo bestera, eguzkiaren goren eta beheren mugetan sorkundearen arrazoia aurkituko du gizonak eta bizitzaren berrikuntza ospatuko. Urtaro biotan bizitza berritzearen sinbologiaz arituko da, gorputzaren garbikundea eginaz. Hau egitea, bere izatea sorkundearekin bat egitea denez, bere nortasuna aurkituko bai du, bere burua nolabaiteko jainkotasunarekin jabetuz. Misterio honek, aspalditik, bere inguruan bildu zituen zenbait sineskeraren ageriak: sutan igarotzea, aztiz eta sorginez nahasturik, Testamentu zaharrean agertzen denez (Deut. XVIII, 10).

Berrikuntzaren oinarriz, bere goiak hartu dituenak guttitu beharra omen du, berriz ere itzulpena izango duen aldi berri bati ekinaz. Kosmogonia idea hauek zenbait aldiz eta zenbat eratara aurkituko ditugu Lao Tse-ren *Tao-te King*-en. Sísifo-ren mitolojia bera da. Baina Lao Tse haruntzago joango zaigu, esanaz: "Itzultzea Tao-ren ekintza da. Tao ezkutaturik dagoenez izenik gabe iharraitzen du, eta honela delarik beregan biltzen eta egiten dira gauza guziak".

Guénon-en ustetan, Glastonbury (Somersetshire) deritzan hirian aurkitzen den harrespila izartegi antzera egina omen da, lurrean Zodiakoa marraztuz. Britainia Handian bertan aurkitzen da Stonehenge (Wiltshire), Eneolitos garaiko harrespila ezaguna ere. Antzinako Egipton eta Amerika aldian ere baziren eguzkiaren ohorez eraikitako tenpluak. Hauek izan litezke eguzki gurtzearen ageririk zaharrenak. Baina, inora joan gabe, Euskal Herrian bertan ditugu garai haietako treguharriak, harrespilak, irunarri eta antzerako oroitarriak. Ekaldera begira egiteak eguzki gurtzearekin zer ikusirik ba dutela esan dezake. Ezpairik gabe, hor ditugu Eguberri eta Ekaineko ohituren jatorriak.

* * *

**Sobre el San Juan solsticial**

Vuelvo a escribir sobre el tema de los solsticios. Si de por sí constituye un tema prácticamente inagotable, en ocasiones hallaremos algunas novedades, como en el caso presente con la publicación del libro *Mitos y creencias* por J. M. Satrústegui.

A modo de introducción recuerdo las teorías semánticas de René Guénon, que hasta cierto punto pueden resultar dudosas respecto al juego bipartito, Jano e Yahanán, para convertir la cristianización de los solsticios en las personas de los santos Juan, Evangelista y Bautista; mientras que las etimologías vascas de Eguberri y Ekaina no dejan lugar a dudas su origen solsticial.

La citada obra *Mitos y creencias* de mi compañero José María Satrústegui constituye un avance considerable en materia cosmogónica. Entre las páginas 35 y 96 trata del agua ritual de Año Nuevo y el solsticio de verano. Para ello, el autor, antes ha tenido que analizar y desglosar la naturaleza de los mitos empleando por vez primera entre nosotros las teorías de Mircea Eliade y clasificar el mito de los orígenes y el eterno retorno, aplicando a personajes y héroes de nuestra mitología y a los ritos lustrales en las páginas referidas. Para las comparaciones interpretativas aporta un valioso material de la mitología vasca, en muchos casos de primera mano, y ayuda a esclarecer muchísimos aspectos.

Algunos ritos solsticiales se extienden a los equinoccios. Porque las cuatro fases lunares corresponden, en un ciclo más restringido, a las cuatro fases solares que son las cuatro estaciones del año, y las prácticas rituales se repiten, aunque con menor intensidad en los equinoccios en comparación con los solsticios que dividen el año en dos grandes ciclos.

En *Gogoz*, páginas 21-60, traté sobre este tema, y, en 1977, publiqué un artículo titulado "Eguzkia gurtzea" (el saludo al sol) que reproduzco en páginas precedentes, donde doy diversas referencias de la adoración del astro solar. Con todo, éste es un tema que resulta prácticamente inagotable.

San Agustin decía que los cristianos no solemnizan este día (San Juan) a causa del sol, sino a causa de quien ha hecho el Sol.

La práctica de pasar por el fuego, con mezcla de magia y brujería, aparece ya en el *Antiguo Testamento* (Deuteronomio, XVIII, 10).

La idea del eterno retorno, cuando alcanzado su máximo, no puede elevarse más; al contrario, sino comenzar a acrecerse en seguida y viceversa.

Es la idea cósmica, expresada varias veces en formas diversas, en el Teo-te King. En el mismo se dirá que "Todas las cosas encuentran vida en su Origen". De este modo: "El retorno es la acción del Tao. Tao estando oculto permanece sin nombre, y siendo así en él todas las cosas convergen y se realizan". En algún modo también se pueden relacionar con el mito de Sísifo.

Pero los monumentos megalíticos del Eneolítico se encuentran orientados al Este y es de suponer que las prácticas del culto solar datan cuando menos desde aquellas épocas. Guénon identificó el "templo estelar", como un inmenso Zodíaco, en los monumentos célticos de Glastonbury. Diríamos que también está claro en Stonehenge y otros similares de aquella época. También en el antiguo Egipto y en las culturas precolombinas existían templos erigidos al culto solar. Y los propios monumentos líticos del país vasco, tanto los dólmenes como los cromlechs, monumentos funerarios orientados al Este, mantienen a los muertos mirando al origen solar, origen de la vida para los antiguos.

**(LANDUZ, 31-36 orr. 1983)**
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**EKAINEKO OSPAKUNTZAK**

Ekainean, izenak berak dionez, eguzkia gainean (goren) jartzen delarik, urtaroa mugatzen du eta honegatik datoz antzinako denboretatik gure egunokarte ezagutzen diren ospakuntzak. Mitologia zahar honen sinbolorik ezagunenak: ura, landara, eta suaren inguruan egiten diren ospakuntzak dira. Hauek ordea, naturaren berritzearekin loturik daude. Bizitzaren berritzea adierazten du eta honegatik egiten dira garbikundezko jaialdiak. Jai hauek, batez ere, San Joanetan egiten dira, baina San Pedroetara iraunaraziz ere bai.

San Juan iturrietara erromez joateko ohiturak oso zaharrak dira gure artean. "Ur goiena. Ur barrena" delako ritoak oraindik bizirik daude Nafarroako Sakana partean.
Itxura denez, Lekeitioko Kaxarranka deritzan dantzaren jatorria, antzinatik arrantzaleak Kofradiko kaxa (kutxa) gainean San Pedroren irudia ipinita irtetzen omen ziren prozesiora, eta arrantza-leentzat urte txarra izan bazen, imajina itsasora botatzen omen zuten. 1682an, Kalahorrako apezpikuak ohitura hori debekatu zuen eta, horregatik, ikaragarrizko iskanbilak sortu omen ziren, errege Felipe III.ak parte hartzeraino. Garai haietatik, santu imajinaren ordez gizona ateratzen hasi omen ziren, baina gizonak, gizon biziak, kutxaren gainean San Pedroren irudiz geldirik itsusi ematen omen zuen eta aurrezkua dantzatzeari eman zioten.

Eibarren eta Plaentzian esan ohi denez, elgoitartarrek herriko jaietan egualdi ona "biogu" (behar dogu) eskatzen omen zuten, bestela santua errekara. Egia esan, honen ziurtasunik ez daukagu. Baina antzerako ohiturak ezagunak dira.

Iruñean 1581ean *De Superstitionnibus* zeritzan liburu bat argitaratu zuen garai hartan diakonoburu zen Martin de Andosilla y Arlés azkoiendarrak sineskerei buruz eta, bertan jasotzen dituenen artean, Usungo San Pedro ermitan ohi zena adierazten du. Usun Nafarroako Romanzado partean dago eta herritik ibaiaren bestaldean San Pedroren baseliza. Bertara erromes joaten ziren herritar eta elizgizonek santuaren irudia osineko uretara sartzen omen zuten. Baina Zaraitzuko ibai ertzean aurkitzen den San Pedro de Usun delakoan lehenagotik ere izango zen holako ohiturarik, zeren historiak diotenez, Santxo Garzes Nafarroako erregea 924. urtean Usungo San Pedro hortan otoitz eginaz sendatu omen zen sukar-gaitzetik.

San Joan goizean eguzkia irten baino lehen ura edatea, ihintzetan oinutsik ibiltzea, orrazia ihin-tzetan bustiz gero orraztea eta abar, oso ezagunak dira Euskalerririk gehienean.

San Joan goizaren lehen orduetan elorri eta lizar erramak hartu eta erreka edo uraren gainetik igaro gabe etxera eraman eta ateburuan edo atearen aldamenetan jartzea. Haritz arbola (Doninatxa, Donibane-haritza) plazetan jartzea eta abar. Eguzkiaren indarrez hazten diren landara edo bizia duena sinbolizatzen du. Gizonak naturalezan urtero nabarituko duen mirakulua bai da.

San Joan bezpera gauean suak egitea bera mundu guzian zabaldurik dagoen ohitura da. Herrialde bakoitzean bertako bereizkuntzekin; baina, mundu guziko ohitura. Su gainetik jauziz sarna fuera, lapurrak eta sorginak eta gainerako gaitz guziak erre, deadarka arituz. Gauza zahar guziak metatu eta erre. Aspaldiko usarioak benetan.

Garbikunde ospakuntzak dira horiek eta garbikuntzen aurretik agertzen zaizkigu zenbait sorginkeri. Naturaren berritzea datorrenez, barne grinak askaturik uzten dira eta aurrez, antzinako denboretan, orgietara amain emonik ibiliko ziren, Erronkariko Burgin 1569. urtean agertzen zaigun bezala, saindu, guraso eta askazi guziak ukatuz, sorginkeriari emanaz "latakan, tirakan, literna y dios vast" formula oihukatuz, gau-pasa. 1610. urtean Donibane gauez Zugarramurdin Akelarrea ospatu zutelako eraman zituzten sorgintzat Logroñoko auzitegira, berrogetahamaika urte lehenago Burgikoa Iruñara eraman zituzten bezala. Eta, ageri hoiek nonbait badute zer ikustekorik Testamentu Zaharrean Deuteronomio-ren hitzaldietan aurkitzen denarekin.

Donibanez, egunsentian, lehen lehenago biluzik bainatzen ziren Izaban, Lesakako San Joan-putzuan eta Igantzi, Orio eta beste zenbait herritako San Joan iturrietan egiten ziren garbikundezko rito horiek.

Antzinakoak oharturik zeuden urez eta eguzki beroaren indarrez hazten zirela landarak. Landaretan zuhaitza zela nagusi eta landaren egurrez egiten zela sua.

Suak ordea, gizona beste abere eta prizti guzien gainetik ihartzen zuela. Suak eguzkiarekin bazuela elkarrekiko antzik, baina batez ere suak berotzen eta girotzen zuela etxea, familiaren biltokia. Latinez *focus* "hogar", Leon aldeko "lares" gauza bera da eta *lares* latinez, "familiko jainkoak" esan nahi du. Beraz, idea bereko iturriak dituzte.

Bestalde, antzinako denboretan gizonaren abantailarik handiena sua izanik, gizona ahalmentsu eta trebe izaten laguntzeko, ezta batere harritzekoa suak, bere inguruan biltzen dituen dohainak hain handiak izanik horrela gurtzea eta eguzkiaren pare ihartzea.

Sortaldeko Zuberoan "Ekhi saindua", Larraunen eta beste zenbait lekutan ederrez agurtua, Gipuzkoako Goierrin "Jainkoaren begi" da eta Bizkairako "Amandre" egina berriz itzuliko da bere amagana. "Bihar etorriko da denbora ona bada".

Horrela beti. Eguerrietatik Ekainera, sorkunde, hazkunde, garbikunde gurpilez.

* * *

**Las celebraciones del solsticio de verano**

El solsticio de verano, en gran parte de nuestra geografía, normalmente se prolonga desde San Juan hasta San Pedro, con una extraordinaria riqueza de ritos mitológicos.

Desde las romerías a las fuentes de San Juan, el rito de mojarse en el rocío de las praderas, la entrega de agua bendita a los hogares, hasta las inmersiones en determinados ríos o pozos.

Dos costumbres antiguas de inmersiones por el dia de San Pedro, constituyen la primitiva procesión de Lequeitio transportando la imagen del santo sobre el arca de la Cofradía de pescadores al que se sometía a una inmersión en la mar en los malos años para la pesca. Costumbre prohibida en 1682 por el obispado, que ocasionó diversos tumultos e intervino el propio rey Felipe III. La imagen fue suplantada por una persona a la que para animar el cortejo, a los lekeitiarras, se les ocurrió ponerla a danzar el aurresku, dando origen a la actual Kaxarranka. Y la otra noticia nos viene de San Pedro de Usún, en el Romanzado (Navarra). según recogió Andosilla y Arlés en *De Superstitionnibus* (1581), se prohibió la práctica de meter al río al santo.

No se sabe si tendrá alguna relación con tal práctica la creencia de las propiedades curativas de las aguas de San Pedro de Usún. Se cuenta que el rey navarro Sancho Garcés se curó de calenturas intermitentes en San Pedro de Usún, en el año 924.

Las plantas que para junio florecen por las tierras que en primavera han sido regadas por las aguas y con la ayuda del calor solar y que al hombre le proporcionaran el fruto alimenticio y la leña, indispensable combustible para el hogar, también recibirán su adecuado tratamiento en los ritos solticiales con las enramadas y el árbol de San Juan.

Leña con la que encenderán el simbólico fuego la víspera de dicha festividad. El fuego, así como el agua, se considerarán purificadores.

Pero a los ritos de purificación le precederán algunos festivales que pueden convertirse en orgías.

Recuérdese que los juicios sobre brujería de Burgui (Roncal) y Zugarramurdi, en 1559 y 1610 respectivamente, fueron por estas prácticas en la noche de San Juan.

Por otra parte, el hombre era consciente del poder del fuego,. Si de *focus* proviene "hogar", *lares* que viene de la misma procedencia significa "los dioses familiares".

El poder sobrenatural que el fuego representaba para el hombre primitivo le indujo a los referidos rituales y a identificarle con el propio astro solar. Ese astro que proporciona luz y valor y al que en la parte oriental del país, en Zuberoa, se le saludará, como en Valcarlos, "sol santo", se le tributarán cantos de salutación por Larraun, se le denominará como a "la señora madre, abuela" que ha de retornar al regazo de su madre y ha de volver al día siguiente si el tiempo es despejado.

Así sucesivamente se renueva, de solsticio a solsticio, nace, crece y purifica ininterrumpidamente.

**(LANDUZ, 36-40 orri. 1983)**
**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**HERRIAREN GABON KANTAK**

Gure folklore ugariaz ahalik onduen aprobetxatzeko eta berdintasun aspergarrietatik ihes egiteko, gaurkoan, zer aurkitu ditzakegunaren adibide, Deba-arruaren behe partea ikutuko dugu. Badakizu azken urteotan Olentzeroak sartzen ari direla hautatu dugun inguru honetan. Baina ez dezala inork uste horren kontrako garenik. Norbait kexatu zen Olentzaroak behar ez ziren tokietan sartzen ari zirelako, haserrez gainera jardun ere, baina jaun ber-bera oso isil dago urrutiagoko "villancico"ak hemengo irratsaioetan ez-ezik kaleetan ere ikustera heldu garenaren aurrean. Ez naiz kanpo larrosa eta etxe kardo horietakoa, ez. Baizik, etxeagoko ditugun gure geure folklore ahaztuaren balioen aldekoa.
Ondoko adibideetatik ikusiko du, irakurleak, gure ahaleginik merezi duen ala ez.

Jo dezagun inoiz aipatutako iturrietara eta ikus dezagun orain dela larogeiren bat urte Elgoibarko ola-gizonak zer nolako Gabon kanta erabiltzen zuten:

*Ai hau gabaren preziosoa!*
*Jesus jaioa da Belenen.*
*Etxe honetan sartu ote dan*
*billa gabiltza beronen.*

*Erdiok gara olagizonak*
*beste erdiok arotzak:*
*limosnatxo bat egitekotzat*
*bigundu bediz bihotzak.*

*Ama gureak bere beiari*
*kaikua esne bildurik,*
*epel-epelik, giro-girorik,*
*hartu baleio gustorik.*

*Hor goitik eta beraiñokoak*
*artzain zaharraren saltoak,*
*bildots handia lepoan duela*
*altxa ezinik orpoak.*

*Belaunbikoka joan ginaden*
*Nazaretikan Belena,*

*geuk adoratu behar dugula*
*Jesus Maisua lehenena*

Bere doinua ezagutu gura duenak Azkueren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoko 1.072.orrialdean aurkituko du.

Plaentziarrak hemen be hotzak larritzen ditu eta egur bila, "berotxe aldera". Holako bertso hau jaso zion Don Poli Larrañagak Fermina Treviñori. 1919an:

*Peru, ekartzazu txorta bat egur,*
*haur hau hotzak hil ezteixan*
*xito naiz bildur.*

Don Polik Aita Donostiari bidali zion eta honek doinuz eta hitzez zerbait apainduago egin ondoren argitara eman zen. Ikus, "Obras musicales", I-*Navidad*, tomoaren 45.orrialdean. Bestea, A. Donostiaren artxiboan *CM:724* erreferentziarekin aurkitzen da.

Baina ez gero uste hoberik ez dutenik Plaentziarrek. Musikarako beti izan dira aproposak. Behar bada eibartarrok baino trebeagoak. Bai. Ze ez nabil txantxetan; armagintzan be heurak erakutsi ziguten eta.

Hogei urte izango dira Julian Bandaormaetxea adiskide minari Gabon kanta polit bat entzun niona, eta kontu honetan ni baino yayoagoa den aita Gandiagari dei egin nion, jaso zezan. Honen ustez ere gure kanta bildumetan ez-ezaguna zen. Doinu oso berezia du, jira-buelta batzuetan Olentzeroko parte bat oroitzen du, baina bestelakoa da. Letra bera ere oso polita du, herri kantetan ohi den bezalako erraza:

*Atozte danok lenbait len,*
*Jesus jaio da Belenen (bis)*
*Ikustera danok guazen*
*zer ote dan ba gertatzen (bis)*
*Jaungoikua zerutik jetxi-eta*
*askatxoan dago jarria. (bis)*

*Loria, loria Jaunari*
*loria Jesus Haurrari,*
*eta lurrak gizonari*
*ondasun pillak ugari.*
*Goazen, goazen, goazen Belenera*
*Jaun hau adoratzera,*
*Jaun hau adoratzera*
*goazen Belenera.*
*Hantxen dago fortalepian*
*Ama Birjiñaren aldamenian.*
*Goazen, goazen, goazen Belenera.*

Bere doinua ikus "Aránzazu" aldizkarian 1971ko abenduko zenbakian (Nº 491). 3garren orrialdean.
Hor ba, auzoak eder egin ditut, eta orain, holako kanta ederren aurrean eibartarrok toki txarrean gelditzen gara. Batzuetan igarri gabe egiten da "kanpo larrosa, etxe kardo".

Baina gurean beintzat bere alde onak agertzen dira jan-edanetan. Eibartarrok plaentziarrekin hain anaiak izanezkero, ezin zeikean elkarren artean alde handirik izan. Honegatik, Gabon gabean, plaentziarrak egurra dakarte, kanpotik berotzeko, eta eibartarrok ardoa eta janariak barrutik

berotzeko.

Eibartarron Gabon kanta Aita Donostiak ber-berak bildua da. 1917an hemen izan zen Eibarko musika-bandaren zuzendari, bertan antolatu zuten kontzierto batean, eta nere ustez garai hartan bildua izan behar du. Dena dela, han dago Lekarotzen, bere artxiboan, *CM:27* erreferentziaz. Izatez, "Ator, ator mutil etxera"ren antzerakoa da, bai doinuz eta bai letraz Herriko Club Deportivo-aren "Kezka" izeneko aldizkarian argitaratu nuen. 1974.ean geroztik irten diren kantari taldeetako batzuk kantatuko dute. Kanta bezala, poesia aldetik, ez da Elgoibarkoa eta Plaentziakoa bezain apaina, baina bai alaia. Gabon gauari tokatzen zaion gisara. Gurean, Gabon zelebratzeko ardoa karreatzen dugu eta bixigu errea jan bitartean gaztainak erre, mokau artean eten gabe txurrutari emanaz.

Askoren ustez seriotasun gutxiko kanta izango da, Gabon gaba zelebratzeko Jesusen aipamenik gabekoa denez. Baina, bestalde, zalantzarik gabekoa. Zalantzak Motrikuko kanta batean agertzen dira, baina honi ere ezingo diogu ukatu bere herritasuna eta bere gogo-nahia. Hara nola agertzen duten:

- *Haor goian etxea, jo daigun atea*
  *Gizonak bentanara nekez irtetzea!*

- *Gizonak bentanatik digu erantzuten:*
  *gabaz ordu honetan zer darabiltzute hemen?*

- *Dontzella eder bat dakart nerekin aldean,*
  *semea dakarrela bere sabelean.*

- *Semea ta dontzella, nola izan litezke?*
  *Enbustero, falsoa, hortikan zoazte!*

Hala azaltzen da Azkueren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoko 1.077garren orrialdean (920.kanta).

Hemendik ikusiko du irakurleak, urrutietara joan gabe, bakoitzak bere herrian edo ballaran aurkituko dituela Eguberrietarako kantak, eta ohitura zaharrak, batzuek noizbait etenda gelditu zirenak, berbiztu eta iraungo badute erabili beharra dugula. Ondo da besteena hartzea, baina norperarena utzi gabe.

* * *

Como apuntaba en otro artículo, nuestro folklore navideño es tan rico y variado que no deberíamos abusar en introducir repertorios del cancionero de otros lejanos lugares y aún del del país, sin aprovechar al máximo el acervo local. Y en el presente artículo doy una muestra del cancionero popular navideño de la cuenca baja del Deba, para que a otros sirva de ejemplo de cómo se pueden localizar canciones olvidadas en antologías y archivos y en la mente de algunos ancianos del lugar.

Reproduzco las letras de algunas canciones con la mención de dónde se pueden hallar sus melodías en pentagrama. Algunas publicadas y otras inéditas, las canciones que aquí se recogen pertenecen a la labor recopiladora de Azkue, P. Donostia y P. Gandiaga. En la primera, de Elgoibar, ferrones y artesanos que cantan la Buena Nueva; en la segunda, de Placencia -sin duda un fragmento de algo más amplio-, canta el acarreo y ofrenda para proveer de leña necesaria al Niño, para protegerle del frío; la tercera, es una preciosa canción placentina que convoca una peregrinación a Belén; tras comentar una canción eibarresa de la celebración de Nochebuena, que constituye una variante del "Ator, ator mutil etxera", que el Padre Donostia recogió a primeros de nuestro siglo, y que ha vuelto a engrosar en el repertorio de coros postulantes del propio Eibar; recojo una cuarta del *Cancionero* de Azkue, una canción coloquial de Motrico, donde la poesía

popular muestra sus dudas respecto a la preñez de la Virgen.

Considero, los mismo, valores folklóricos a mantener en la tradición.

(GOGOZ, 32-37 Orri. 1978)
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**GURE HERRIKO GABON KANTAK**

"Herriaren Gabon kantak" izenez Debarruaren behe parteko Gabon kanteri buruzko artikulua, Elgoibar, Plaentzia eta Mutrikuko zenbait kanta adiaraziz idatzi nuen. Ikus *Gogoz*, 32-37 orrialdeak. Gaurkoan, orduan esan genuenari jarraituz, gure folklore ugariaz ahalik onduen balia gaitezan, berdintasun aspergarrietatik ihesi, tokian tokikoa aprobetxatzearen alde jardungo gara.

Euskal-Herriaren alde guzietan aurkitu genezazke bertako eta inguruko Gabon kantak, eta hauetaz baliatzen ikasi beharra dugu. Ondo da auzotik hartzea ere; baina Gabon kanta jatorrak aurkitzeko ez dugu auzora joan beharrik. Euskal-Herriko alderdi guztietan aurkitu ditzazkegu ber-bertako herri kanta zaharrak, eta hoiek biltzea da euskaltzalearen lanetariko bat. Memoria argidun zaharrengana joaz edo bilketaz aritu zirenen lanetara joaz. Azkue, A. Donostia, M. Lekuona eta beste zenbaitek argitaratu zituzten bilduma ederrak hor dira, eta paperean idatziak baino askozaz hobeto legozke herriaren ahoetan; baina, inoiz esana dudan bezala, baita ere zorionak emanez erabiltzen diren "christma" direlako txarteletan. Euskal-Herria, gauza honetarako, harrobi ederra bai dugu.

Gure haurtzaroko Eibarren, Gabon astean sartzen ginanerako hasten ginen mutikoak errepika harekin:

*Gabon Gabonete*
*errez errezete*
*Jesus jaio da ta*
*jo daigun krixkete*

Eta Gabon egunez ez zen besterik entzuten, ume guztiok ibiltzen ginen kalez kale, errepika honekin edo eskean irtetzen zirenei entzuten genizkien beste haiekin:

*Agillando, agillando,*
*bizkaitarra(k) Durango(n);*
*aingeruak gara,*
*zerutik gatoz,*
*boltzia badogu,*
*eskian gatoz.*

Eibarren ere izango ziren ber bertako kanta zaharrak, baina ahoz heldu zaizkigunetatik haurrak kantatzen zituztenez oroitzen gara; besterik ez. Baina gauzak aztertzeari ematen badiogu, nork jakin zer aurkitu genezakean?. Azken urteotan hamazortzigarren mendeko Gabon kanta idatziak hor-hemen aurkitu bai dira. Eta oraindik posible izango da beste anitz aurkitzea, bai paper zaharretan eta bai ahozkoetan.

Aspaldi hasi nintzen Eibarko kanta zaharrak biltzen, baina gure bilaketak apalak izan dira eta Gabon kantarik urri ez ezik, kasik baterez. Arestian aipatu ditudan bi bertsoak eta zenbaiten aztarnak. Behar bada, interesgarriena, "Ator, ator"en bariante bat izango da.

*Eibartarren "Gabon-abestia"* izenez, Aita Donostiaren artxiboan aurkitu nuen (Ref. CM: 27, daroa fitxa ezaugarritzat). Kanta hau Juanito Gisasola eibartar musikariak bialdua zen, gure mende honen lehen partean. A. Donostiaren artxiboaren arduradun den Aita Jorge de Reizu-ri esker lortu nuen eta, musika ta guzti, Eibarko Club Deportivo-ko "Kezka" aldizkarian argitaratu nuen (Febrero,

1976, zenbakiaren 48. orrialdean). Bere letra ez da hain txukuna, besterik zen Azkuek Otxandion jaso zuen "Ator, ator...", baina kantaren zabalkundearen lekuko eta kidekoen osagarri, gure folklorean kontuan izatea merezi du. Hara hemen bere letra:

*Arzak, arzak mutill pitxer erdi ardau*
*guazen polliki polliki etxera*
*Gabon gaba zelebratzera (igarotzera)*
*aitaren da amaren onduan*
*ikusiko dek ama barrez da*
*aita ere bai txit kontentuz.*

*Baita nik ere zelango tragua (txurruta)*
*lelengo esan da Jesus...*
*lelengo esan da Jesus...*
*Bixigu erriaren azurra ondo txupatuko (garbituko) dogu.*

*Eragixok mutill, eragixok mutill*
*aurreko danbolin orri*
*gaztañak erre artian*
*gaztañak erre artian*
*tirrin-tarran, tirrin-tarran*
*plin, plaun, plust!*

*Pasau (euki) deigun Gabon gaba kontentuz...*
*pasau deigun Gabon gaba kontentuz-*

Urte barria heltzeaz, gure umezaroan, jentil kutsuzko bertso batekin agurtzen genduen berriaren sarrera eta zaharraren bukaera; ez zen umerik kalez kale honako bertso hau kantatzen ez zuenik:

*Urte barri eguna*
*ezta egun txarra:*
*kortara jausi jaku*
*gure sapai zarra.*

Azken lerroan, lehen lehenago, badirudi "sapai zarra"ren ordez "zagi zaharra" esaten zela, gure zaharrak horrela aitortzen dutenez. Oroi Arabako zenbait herritan zagi zaharrak erretzen dituztela Eguberrietan. Zegaman ostera, zagi erretze hau Ekaineko Donibanez egiten dute, eta hemendik ikus genezake eguzki aldien gora eta behera egitearen urte mugeri eta honekin suari loturik dagoela. Beraz, sineskera zaharreri lotua.

Gabon egunez "Agillando" (Aginaldo) kantatuz diru eta janari batzen egiten zen bezala, Urteberriz ere antzerako eskariz irtetzen ziren haur taldeak, baina hau batez ere nekazari munduko mutikoek egiten zuten baserririk baserri eskean ibiliaz:

*Urtebarri, barri,*
*txarri belarri,*
*daukanak ez daukanari*
*zaria bete madari.*

Batzuk, madariren ordez, gari.

Lehenagoko kanta osatuagoan zati edo ondakiñak dira nonbait. Herriz herri guziak bildu ahal balira azterketarako argi gehiago izango genuke.

Eguberrien amaieran ere erabiltzen dira beste zenbait kanta. Eibarren ezagutzen genuen bakarra, nere oroipenez, beste honako hau zen, Erregenak heltzeaz:

*Erregen, Erregen,*
*Mari montaña,*
*zazpi intxaur ta iru gaztaña.*

Hemen ere, behar bada, Kristau eta jentil sineskerak nahasturik dabiltza. Bestela nekez da Erregen egunean "Mari montaña"ri aipamen berezi hori, mitolojiako Mari izan ezik. Intxaur eta gaztainen aipamenak, eskarizko kantaren adiarazpena egiten digu, naiz eta gure denboran hortara erabilia ez izan.

Dena dela, herri guzietan bada oraindik zer bildu, eta kanta bilduok merezi dute, tokian tokiko, Eguberrietako txarteletan erabiltzea. Eguberrieri dagokien eran, zer nahi, hura aurkitu ezinik ez bait da. Honako ohitura honek herri literaturaren bilketak bizkortuko lituzke.

* * *

En estas mismas columnas y por estas fechas, expuse la necesidad y conveniencia de recopilar y utilizar las canciones alusivas a las Pascuas de Navidad de cada localidad, ya que la riqueza folklórica del país nos puede aportar abundante material para poder imprimir en cada lugar sus tarjetas de Navidad. En muchos, incluso con ilustraciones de los retablos del mismo pueblo que guardan interesantes escenas relacionadas con el nacimiento y los primeros días de la vida de Jesús. Y que conviene difundir su uso sin recurrir a las formas extrañas que se nos van imponiendo a través de los medios de comunicación que obedecen a distinta cultura. Que, aunque en el fondo la cuestión viene a ser la misma, cada lugar guarda sus propias peculiaridades que no se deben menospreciar.

Los cancioneros populares de Azkue, P. Donostia, M. Lekuona, etc., son un arsenal de canciones de Navidad y Año Nuevo, que no se han explotado en la medida que se merecen. Pero, además, en cada municipio se pueden recoger aún si sabemos recurrir a los ancianos o si se hurga en algunos archivos.

En el aludido artículo, expuse muestras de canciones de la cuenca baja del Deva; concretamente de Elgóibar, Placencia y Motrico. Y, en esta ocasión, al objeto de mostrar la posibilidad de unos resultados locales, recurro única y exclusivamente al folklore eibarrés, mucho más pobre que los citados pueblos en lo que se refiere a Navidad, pero lo suficiente para demostrar lo que aún nos queda por recoger.

En el texto en euskara se transcriben canciones y estrofas que son fragmentos de otras, con sus correspondientes comentarios. Alusivas todas ellas a Navidad, Año Nuevo y Reyes. Algunas son únicamente variantes de otras muy conocidas y difundidas en el país, pero otras, menos o nada conocidas, y en su conjunto, además de un interés local, constituyen la aportación para la reconstrucción general del cancionero popular.

(1997 BIDEZ, 30-356 orri. 1981)
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**MANUEL**

Maiz entzuna dugu ijito jendeak eta Espainiako zenbait tokitan, bereziki hegoaldean, Jainkoari eta batez ere Jesus Haurrari, Manuel izena ematen diotela. Nonbait, juduak lehenagotik erabiltzen zutena baizik ezta. Baina garai batean Euskal Herrian bertan ere hala ez ote?. Adibidez, Bizkai-Gipuzkoa mugako herrietan, trumoi hotsa entzutean esan ohi da: "Han, goiko Manuel boletan". Baina Gipuzkoako Goierri partean, oso ezaguna dugu eguberrietako kanta hau:

*Artzai buru zuri bi*
*Antton eta Peru,*
*Belengo portalera*
*etorri zaizkigu;*
*sartu dira barrena*
*Manueltxo gana,*
*presente egin diote*
*arkumetxo bana*

Bestalde, gure haurtzaroko Eibarren, Gabon inguruan kantatzen genuen beste hona hau:

*Astelena, martitzena,*
*eguaztenian,*
*zozuak kantatzen dau*
*Manueltxonian.*
*Ogixa jan ta hil,*
*artua jan ta piztu,*
*biba Manuel, txistu!*

Guk zentzu guti aurkitzen genion, baina zerbait misteriotsu gordetzen zuelako edo gogozko zitzaigun Eguberrietan kalez kale edo non-nahi bertso hori errepikatzea.

Egia esan, zozo eta eper kanta, berriemaile bezala azaltzen dira eibartarron folklore zaharrean; zori oneko berri emaile gisa. "Zozuak kantatzen dau Arrate ballian...", eta "Eperrak kantatzen dau Arrate ballian...", esanaz hasten diren koplak lekuko. Ikus *Odon Apraizi Omenaldia* (1981) deritzan liburuko 336. orrialdean.(1)

Zoriona, bere etimologiaren zentzuz, xori (txori) onetik datorrela dirudi. Honek beronek ere erdarazko *pajaro de buen agero*-rekin badu zer ikusirik. Gure herrian ohitura zaharrekoa da ezkongaia bilatzeko Arrateko gurutzari hiru buelta ematea. Baina han bueltak eman eta begiak eta bihotza nora eroan ez dakitenentzat, erromeria egunetan maiz entzuten da panderojotzaileen ahoetatik kopla hura: "Eperrak kantatzen dau Arrate ballian, neskarik ederrena San Pedro aldian". Era hortara ezkongaiaren bilaketaz adibiderik anitz bada gure folklore zahar hortan eta zenbait berri ematen da *Iker*-2 Piarres lafitte-ren omenezko liburuaren 854-857 orrialdeetan.(2)

Egan, 1983
(1) Liburu honen azken kapituluan dato
(2) Ikus lehengoaren jarraian
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**SUAREN SINBOLOGIAZ**

Eguberriak, eskualde bakoitzean bere ospakizunezko era bereziak ditu, Olentzero, Subilaro, Txukil, Gabon-zuzi, Gabon-enborra... Funtsean denak bat dira, sua eta bera lortuko duen gaikia. Hoiek sinbolizatzeaz, giza itxura ematen zaie, Grezia zaharreko jainkokietan agertzen zaigun bezala.

Jende asko, Olentzaro esateko ahozkeraz edo idazkeraz gehiago arduratzen da adierazi nahi duen sinboloaz baino, J. M. Satrustegik ongi zion bezala. Hurrengo aski zaio, jendeari, Noel edo Oleris-en kideko dela jakiteaz, baina hortik harantza aurkitu genezakean jatorrizko inguruaren gogoetetatik ihesi ibiltzea nahiago du. Harrigarria badirudi ere, krisi batean bizi den gizonak ez du nahi hontaz pentsatzerik. Teknika aurrerapenen eta merkatalgo bizkortzearen eraginez, kontsumismoak itoa dauka egungo gizona; gizartearen masifikatzean eroria. Antzina berbizkundearen sinbolotzat erabiltzen zena, orain trapuzaharrez egindako irudi soil bat besterik ezta eta bulla ateratzeko bakarrik balio duena.

Lehenago, gure herriak, bere sineskeratan bizi zuen kosmosetikako hierofania zekarren, naturaleza adierazteko modu bat. Zer den hori? C. Geertz-ek zion bezala: Kultur eskematzat ulertzen dena, historian zehar etorria, lehenak geroari elkar loturazko izatean duten natur ustearen sistema, sinbolu bidez agertzen diren mezuak, antzinakoen ideiak bizitzaren esperientzietatik eskainia, ondoko belaunaldietan iraunarazteko. Laburrago esateko, Dumezil-ek ongi ziona: Mitoak, herri baten kulturan, gizaldien jarraipenerako oinarrizko dira.

Garai hoietako sineskeraz eta sinbologiaz, bai Eguberriz eta bai ekainez, anitz artikulu idatziak ditut eta hauetan emandako gaiak eta ideiak behar bezala ordenaz jarriaz argi gehiago aurkitu ditzakegu.

J.M. Barandiaran, R. M. Azkue, eta bestek bildutako materialak hor daude aztertu nahi dituenarentzat. Lehenago J. Caro Barojak emana digu hoien argitasunik aski, baina azkenaldi hontan beste ikerketarik ere bada sineskerak eta sinboloak aztertuz. Hara nola Emeterio Sorazuren *Antropología y religión en el pueblo vasco* (1979) eta J. M. Satrustegiren *Mitos y creencias* (1980) deritzan liburuak. Lehenengoak, bere bigarren eta bosgarren kapituluetan gaiak ugari pilatzen ditu eta bibliografia aberatsa dakar.

Baina, hasieran esan dudan bezala, Olentzero eta kidekoak, naturaren sinboluzko pertsonaiak dira; zura eta sua batipat. Sua bera, ez dakigu zer neurritaraino ez ote zuten sinbolizatzen eguzkiarekin. Eguzkia sua da. Sua, garbikundea dakarrena. Eguzkiak, bere goi-beheak hartzeaz, bizitza aldatzen du. Aldakuntza bakoitzarekin, munduak aldi berri bati ekingo dio. Honela, eten gabe, urterik urte, gizonak berbizkundea ezagutuko du. Eguzkiaren eragina, sua bere kideko duela. Mircea Eliade-ren lehenera itzultzeko berritze eternala, edo eten gabeko berritzea.

Berbizkundeak ordea, berakin dakar garbikundea. Eta, sinbologiak estudiatu dituzten guziak bat datoz sua eta ura garbikundezko sinbolotzat hartzeaz.

J. G. Frazer-ek badu liburu bat ere suaren sorkundezko mitoeri buruzkoa. Baina, agian, René Guénon eta Gaston Bachelard izanen dira eguzkia eta suaren arteko sinbologiak onduen ikertu dituztenetakoak. Hauek ez dute ezagutu gure herriko mitologiarik eta bestetan aurkitu zituzten arrazoiak gurean aurkitzen direnen antzekoak baldin badira ere, hemen ageri harrigarririk bada, 1977ko ekainaren 20an "Eguzkia gurtzen" izenburuz eman nuen artikulu hura lekuko. Hemen lehen orrietan bildua dator.

Sorkundearen mitoari loturik aurkituko ditugu eguzkia eta sua. Bestalde, sua, etxearen sinbolo bihurtzen da. Honegatik, etxea, antzinakoentzat, deitura bera baino gehiago zen eta hau berau ere maizenik bertatik sortzen zen. Holako adierazpenik badu Bonifazio Etxegaraik auzoetako harremanak ikertzean, bereziki *Los ritos funerarios en el Derecho consuetudinario de Navarra* (1951) deritzan lanean. Etorkizuna zaintzen bai du etxean sua iraunarazteak. Berriki E. Knörrek aurkitu dituen Ehariko Ordenantzen 5.kapituluan irakurtzen denez, 1659ko arauen artean, bertako egin nahi zuen etorkinak hanega t'erdi gari eta kantaro bat ardo eman behar zituen, baina inoiz hiru egunez eta hiru gauez surik pizten ez bazuen biztanle eskubideak galduko zituen.

Eguberrietan, naiz ekainean, urtemugaz egiten diren suak sineskera zaharren hondarrak ditugu, inoiz Olentzero ikazkinaren bidez datorkiguna, naiz urrengo berri onaren mezua dakarrena bada ere. Gure mitologian eguzkia bera inoiz pertsonaje bihurtzen bai da.

Aurreko artikulu batetan aipatu nuen bezala aita Donostiak bildutako otoitza:

*Agur, eguzki ederra,*
*Jetxirik zerutik lurrera,*
*Illuna desterratzera*

*Ta gu argitten paratzera.*

Bestean J. M. Barandiaranek Muskurutxu mendietan jasotako hura:

*Eguzki amandria*
*Badoia amangana,*
*Biar etorriko da,*
*Denbora ona bada*

M. Lekuona ordea, Gernikan Eguberriz kantatzen diren "Marijesiak" biltzean *(Anuario de Eusko-Folklore*, XIII, 1933), honako bertso polit honekin aurkitu zen:

*Eguzki dibinala*
*Gauaren gauberdian*
*Etorri da mundura*
*Gizonaren jantzian*

Egia esan, Marijesietako bertso hau beste iturri batekoa izan daiteke, latinez elizan aspalditik sartutako kontzeptua bai da. Baina, elizak berak ere lehenago ez ote zuen hartu, Eguberriak bezala, jentil sineskeretatik? Dena dela, euskaraz lehen aldiz idatzirik ageri dena, zera da, Nikolas Zubiaren *Doctrina christiana*-n datorrena, 1691ean argitaratua:

Eguzki dibinala
Gaberdi batean
Etorri zan lurrera
Gizonen soñean

Eta, honek, Marijesietatik hartua dirudi.

* * *

**Sobre la simbología del fuego**

Siguiendo la trayectoria de mis artículos, tocante a los solsticios, renuevo las sugerencias en torno a los símbolos míticos.

Respecto a Olentzero, la gente muestra más preocupación por la de su forma hablada o escrita de la palabra que a su representación como símbolo. A veces les basta con saber los paralelismos que guarda con Noel u Oleris, pero generalmente huyen de las averiguaciones de su trasfondo, como acostumbran huir de la meditación sobre el entorno tradicional. Pero bien dijo J.M. Satrústegi en un artículo: "Interesa recabar datos dispersos y rehacer información para ir dibujando la silueta definitiva del personaje".

Olentzero se conoce en un área concreta, pero sus equivalentes Subillaro, Txukil, Gabonzuzi, Gabonenpor, etc., se extienden por toda la geografía de nuestro pueblo con mayor o menor intensidad. en esencia, es un personaje mítico que simboliza al solsticio de invierno. Y, por tanto, irá unido a los ritos del fuego en el concepto primitivo, y al de mensajero de una buena nueva en lo moderno.

Barandiarán, Donostia, Azkue y otros recopiladores nos ofrecieron denso material sobre el tema. J. Caro Baroja, entre otros, nos marcó el camino de la investigación para comprender el mito. En mis artículos en fechas solsticiales he ido reuniendo distintos materiales para sugerir algunas interpretaciones. Ultimamente, E. Sorazu, en dos capítulos que no tienen desperdicio, en su obra *Antropología y religión en el pueblo vasco* y J. M. Satrústegui en *Mitos y creencias* han aportado

un material nada despreciable. Pero la materia sigue siendo poco menos que inextinguible.

Olentzero y sus equivalentes se identifican con el fuego, éste a su vez con el sol y la purificación; el cambio de estación traerá consigo la renovación; a la orgía le seguirá la frugalidad, y todo volverá a redimirse. A Olentzero y su equivalentes corresponde la pantomima transitoria del solsticio. Es el sol, el fuego y su energía purificadora, para el que antes habrá que preparar la despedida de la vieja estación a la manera dionisíaca, porque significa el etorno retornar a los orígenes. Son concepciones inherentes expresadas simbólicamente.

Sobre esta materia aún queda mucho por indagar. Frazer escribió un libro que tiene por título *Mitos sobre el origen del fuego*, pero son más actuales las obras de Guénon y Bachelard sobre la mitología del sol y el fuego. En nuestro caso, de considerable importancia por todo lo que ha representado el hogar. Pues fuego es sinónimo de hogar, casa, vida tradicional. Recordemos los trabajos de Bonifacio Echegaray sobre la vecindad. La importancia del mantenimiento del fuego hogareño nos reflejan las Ordenanzas de Ali, de 1659, recientemente descubiertas y publicadas por E. Knörr.

Pero constituye casi un hecho insólito la personificación del astro solar, tal como aparece en la literatura oral vasca, como nos vienen a testimoniar las estrofas recogidas en distintos puntos del país por el Padre Donostia, J. M. de Barandiarán y M. de Lecuona.

**(LANDUZ, 1983, PP 19-23)**

**NOTA: En torno al solsticio vease el capítulo "Olentzero" en la obra Estudios vascos de J. Caro Baroja, para adentrarnos en la compleja y rica trama folklórica de la estación invernal durante el tránsito de los años.**

**SAN BLASKO OPILLAK**

Otsailaren hiruan, San Blas egunez, opil bedeinkatze ohitura aski zabaldua dago. Egia esan, Santu honen inguruan bestelako ohiturarik ere bada, baina Euskal Herrian, bereziki janariak bedeinkatzea ohi da. Nafarroan gatza, zaia, ogia, lukainkak.... eta beste jaki batzuk eramaten dira elizara. Gatz bedeinkatua abereentzat gordetzen da eta gainerako jakiok etxerako. Gipuzkoan, jeneralki, ogia, artoa eta beste janari batzuk bedeinkatzen dira, urtearen barna eztarriko gaitzez diren oiloeri emateko.

Zuberoan, zenbait sineste zaharren artean, San Bladi, artzaina zen ustea dute; artzain bati Ama Birjiña arantza gainean agertu zitzaion eta apezari eta apezpikuari toki hartan kapera bat eraikitzeko eskaria egin zezala agindu zion. Azkuek jasotako sineskera honek badu zer ikusirik Arantzazuko Andra Mariaren kondairarekin.

Lanak ustea da San Bladi egunez aurkitzen ditugun ohituren arteko. Baina Bizkai-Gipuzkoako mugen inguruko herrietan eta Goiherrietan oso zabaldua da opillak bedeinkatzea. Eibarren bertan, gure haurtzaroan ez ezik, oraindik orain ere indar handia du ohitura honek.

F. Carreras y Cadi-k 1931-33. urteetan hiru tomotan argitaratu zuen ohitureri buruz *Folklore y costumbres de España* delako obra, hirugarrengoaren 619garren orrialdean Eibarko argazki bat dakar, dudarik gabe I. Ojanguren zenak aterea, San Blas egunez San Andres parrokiatik opillez irtetzea. Elkar lanean egindako obra honek Valerio Serra y Boldú-rena du erlijio ohiturei buruz dakarren kapitulua. Bertan dakarrenez, San Blas edo San Bladi, eztarriko eta arnas-bideko gaitzak sendatzen laguntzen duena da, alde askotan ohitura denez. Eta uste hau izan da Eibar eta inguruetan ere. San Blas opillak eztula sendatzen laguntzen du eta opilla bera bedeinkatzera eramaten den oihala, eztulik denean lepoan (saman) jartzeko gordetzen zen. Zenbait etxetan oraindik ere hola egiten da.

Ohitura hau antzinakoa dugu. Zaharrengandik jaso nuenez, lehen lehenago Santa Iñes ermitan gordetzen zen San Blas irudia eta hara joaten ziren opillak bedeinkatzera. Gerra aurretik ezagutu nuen Santa Iñes ermita, Isasiko jauregiaren baratz gurenean (baratzak zuen hesiaren kanpokaldetik), jauregi honen eta Kaskarrengua baserriaren bitartean, baina ordurako ez zen egiten han ezertariko elizkizunik. Ohitura San Andres parrokiara igaroa zen eta hona joaten ginen, opillak ez ezik, naranjak ere eramaten genituen. Maiz, zalantza larrian irtetzen ginen, bedeinkazio orduan opillak eta naranjak ahalik goren altxatzen genituenarren ia ur-bedeinkatu tantarik heldu zaigun ala ez. Haurrok uste bai genuen beharrezkoa zela urak ikutzea.

Opillak eta naranjak zamauz edo esku-zapi batean bildurik eramaten genituen. Baziren opillaren gainean, oihal barnetik zintak jartzen zituenak ere. Zinta horiek eztulik zenean lepoa biltzeko izaten zen. San Blas egunez, goizetik eskoletan jai egiten zen eta haurrok ur-bitsetan pasatzen genuen.

Opillak, hasiera batean, artoirinez eginak izango ziren, noski; baina guk lehen lehen ezagutu genituenak bi eratakoak ziren: irin fiñez, inoiz esne txorrozta bat orea gertatzen, azukre pizkat ere bai, eta egosterakoan azukrea gainean bota (sagar zatiak, okaranpasak eta mahaspasak jartzen zituenak ere baziren) eta era honetara azala gozatzen zen; beste erakoa da orain ezagutzen dugun bakarra, irin, esne ta arraultza gorringoz oreatu, anis tanta batzuk, eta erdizka egosirik dagoanean labatik atera eta ur, zuringo eta azukrez gertatzen den orea gainean jarriaz berriz labaratu. Bigarren era hau, esan dugunez, gure egunotan egiten dena da. Gu haurrak ginela etxe aberatsetakoek edo ekonomiaz hobeto bizi ziren familietakoek bakarrik egiten zuten oraingo opil hau; pobreok ogi gozatu hura izaten genuen. Egia esan, oraingo erako opillak gozotegi edo konfiterietan erosten ziren orduan, baina egiteko errezeta eta etxeetako labak hedatuaz eta hobetuaz joan diren neurriak aldatu zen opil fiñagoak soilik egiteko ohitura. Hala ere, gaur egun, lehengo opil haiek gogokoago nituela iduritzen zait. Haiek okindegietan egiten ziren eta

gozotegietakoak baino askoz merkeagoak izaten ziren.

Gaztainerre eta Ixu egunakin batean Eibarrek bere ohitura jatorrenetakoa du San Blas. Eta hauei buruzko berriak ederki jasoak ditu L. P. Peña Santiago adiskideak *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* deritzan liburuan.

*     *     *

Sierra y Boldú, en su descripción sobre costumbres religiosas, en torno a la tradición de San Blas expuso que este santo era venerado popularmente como abogado contra los males de la garganta y del aparato respiratorio. Que en muchas ciudades y pueblos se llevaban a la iglesia pasteles, panecillos, etc., para ser bendecidos. Prácticas similares y otras variantes se recogen en el tomo primero de *Euskalerriaren Yakintza* (página 291) de R. M. de Azkue.
En Eibar está muy arraigada la tradición de llevar a bendecir a la iglesia las tortas que se preparan ex-profesamente para ese día, 3 de febrero. Esta costumbre, antiguamente, se llevaba a cabo en la ermita de Santa Inés, donde se veneraba una imagen de San Blas, pero con el tiempo se trasladó a la parroquia de San Andrés Apostol.

En nuestra niñez, además de las tortas, se llevaban también naranjas, pero este uso se ha abandonado. Entonces también se hacian en las panaderías de la localidad otro tipo de tortas, consistentes en panes y panecillos hechos de fina harina y con azúcar y frutas secas en la corteza superior.

También se conocían las tortas actuales, que generalmente se hacían en las pastelerías y se consumían en familias mejor acomodadas. Estas tortas son un componente de harina con azúcar, leche e yema de huevos. Una vez cocida, se baña la superficie con un batido preparado a base de azúcar y clara de huevo con un poquitín de agua, que es cocida a su vez. Su receta, así como las peculiaridades de esta tradición se recogen en la obra *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* de Peña Santiago.

Antaño, las servilletas que se usaban para envolver las tortas que se llevaban a bendecir, se guardaban para envolver el cuello en caso de tos. Así mismo el hilo o cinta que se ponía encima de la torta.
Esta costumbre está aún muy en uso en los pueblos limítrofes de Guipúzcoa y Vizcaya.

**(Bidez, 40-43. orr. 1981)**

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXX

**SANTA AGEDA KANTAK**

Santa Ageda kantak(1) aski zabalduak dira Euskal Herrian, eta baditeke lehenago zabalduagoak izatea. Bertan erabiltzen diren bertsoak herri kanta zaharretako kobla erakoak dira. Azkue-ren *Cancionero popular vasco*-ren II. tomoko 1.127/1.131 orrialdeetan aurkituko ditugu kanta hoietakoak, Azkue gogoan-garriak Baxenabarrako Amikuzen, Nafarroako Olazti eta Altzasun, Gipuzkoako Getarian eta Bizkaiko Gernikan jasoak.

Eibarren bertan ere ohitura zaharrekoak ditugu Santa Ageda kantak, herrian taldeak kalez-kale ezagutu ditugu Santa Ageda bezpera gauean, otsailaren 4an. Basarritarren artean lehenagotik ezagutzen da. Eta Eibarren, Aginaga auzoko San Roman ermita dugu ohitura honen agiririk zaharrenak ematen dizkiguna. San Romanen XVIgarren mendeko Santa Ageda irudi eder bat gordetzen da eta baillaratik aparte, Eibar, Barinaga eta Markina-Etxebarriako basarritarrek debozio handia diote. Gainera, haurdun dauden emakumeak otoitz egitera joaten zaizkio eta kandelak piztutzera.

Antzina, Ertzil zaharrak kontatu zigunez, bezpera illuntzean kantari talde bat abiatzen omen zen, bertsolari batekin, baserririk baserri. Bertsolariak bakarrean bertso bat kantatzen omen zuan etxe bakoitzeko atarian, eta kantari taldeak bertso bera errepikatu. Bertso hauetan, gaiez, etxekoak agurtzea, Santa Agedaren goresmenak, eta diruzko edo janarizko laguntzea eskea. Biltzen zutenarekin biharamunean bazkari bat egiteko, eta ezer sobratzen bazen behartsueneri eman. Biharamunean, Santa Ageda egunez, oraindik ere erromeria egiten da San Romanen.
Ertzilek bere gaztaroan ezagutu zituen bertsoak oso ahulak omen ziren, eta sarri itxurarik gabeko arloteak. Hoietarikoak ditugu haurtzaroan Eibarko kaleetan entzuten genituenak ere. Adibidez:

*Kura-parroko mondongo*
*ik ez dok asko emongo;*
*ik emondako limosniarekin*
*ez juagu asko edango.*

Nolabait ere funtsez eta zentzuz galduaz etorri omen ziren ohiturazko kanta zaharrok, eta, arrazoi honegatik, Batzokikoek Kepa Enbeita "Urretxindorra"ri bertso berriak jartzeko eskaria egin zioten, eta honek lehengo jatorrizkoen gisara txukunak jarri.

Ohi zenez, kantatzen hasteko alkate jaunaren baimena behar zen lehen bertsoan esaten den bezala:

*Gabon etxeko nausi ta txiki*
*zar eta gazte batera.*
*Alkate jaunan baimenaz gatoz*
*zueri agur eitera*
*Lenauko zarren antzera*
*ba-gatoz zeuen etxera,*
*Santa Ageda-ren gorazpen anitzak*
*euskeraz abestutera*

Guztiz bost bertso dira, bere egituraz, lehenengo hau sarrerako agurrez, bigarrena eta laugarrena Eibarko herriari, bion erdian Santa Agedari eskainia eta bukaeran azken-agurra.

Eibar goretsizko laudorioak honela hasten dira.

*Eibarren dagoz gauza ederrak,*
*oso ederki egiñak:*
*Izkillu-olak, gizon aundiak,*
*mutil indartsu gordiñak,*
*andra eder ta bikañak,*
*neskatxa polit apañak,*
*udabarriko lili ta lora*
*diran lakoxe berdiñak.*

Martiriari bere partea honelako bertsoz eskaini zion:

*Illarteraño Jaunkoiko-zale*
*garbi-garbia izan zan;*
*orbandu gura ez ebalako,*
*bularrak ebai eutsezan,*
*ziñopa eginda il zan;*
*orain dago zeruetan.*
*Bere antzeko garbi-zaliak*

*gu ere izan gaitezan*

Ondorean berriz Eibarri buruzko laudorioz jardungo da:

*Eibar euskaldun erri maitiau*
*ospetsua da benetan;*
*bertako seme jator zintzuak*
*daukaguz goien munduan.*
*Pelotarien artian*
*Migel dogu gallurrian:*
*Pozez beterik ikusten dogu*
*mutil au gure errian.*

Eta kantaren bukaeraz honelako aske-agur hau jarri zuen:

*Zorioneko izango al da*
*etxe au beti-betiko;*
*bizi garian arte guztian*
*dogu goguan eukiko.*
*Maitagarria dalako.*
*Belutu egin orduko,*
*agur! egiñik amaitzen goiaz,*
*beste batera jaoateko.*

Herrian egiten diren taldeak, bai lehen eta bai orain, premia behartsuan aurkitzen direnen laguntzarako diru batzea izaten da, eta ez daukagu dudarik urtero bezala onhartuak izango dirala.

* * *

Los coros de Santa Agueda(2) están muy extendidos en el país; son por lo general del género "kopla zaharrak" de la literatura popular. Azkue recoge en su *Cancionero* cantares del Pays de Mixe de la Baja Navarra, de Olazagutía y Alsasua de Navarra, Getaria (Guipúzcoa) y de Gernica (Vizcaya).

En Eibar y su contorno contamos con esa tradición que probablemente, si no su origen, su fuente más antígua, procede de la ermita de San Román que conserva una preciosa talla policromada del Renacimiento. Como cuenta Luis Pedro Peña en sus *Fiestas tradicionales y romerías* de Guipúzcoa, a la imagen de Santa Agueda de San Román le tienen devoción especial las mujeres que esperan el nacimiento de un hijo, y acuden a rezar y ofrendar vela.

En este lugar del barrio de Aginaga de Eibar, la víspera de Santa Agueda, con un bersolari de solista y un grupo coral improvisado, los labradores recorrían los caseríos de la zona con cantares alusivos a la santa. De igual modo hemos conocido desde la niñez en el núcleo urbano de la villa armera. Con el tiempo, estos cantares vinieron degenerando a lo grotesco. Y es posible que muchos hasta le encontrarán gusto. Pero esas causas motivaron, hacia los años veinte, a los eibarreses más patriotas a encargar una composición respetuosa al distinguido poeta popular vizcaíno Kepa Enbeita "Urretxindorra". Desde entonces constituye el canto oficial, que transcribimos su texto íntegro.

De nuevo, como todos los años, los grupos corales recorrerán las calles de la villa postulando por los necesitados.

1) Eibarko zaharrak, ohitura honi, "Santa Ageda batzen" deitzen diote.
(2) Gai hontaz berri gehiago eman nuen "La ermita de San Román de Eibar y la devoción a Santa

Agueda" deritzan lanean. *Boletin de la Real Sociedad Vascongada de los amigos del País*,XXXI, 1975, pp.585.589

XXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**ARATOSTIAK**

Deba-arru gehienean Aratostiak deitzen dira Bizkaiko herrietan Aratuste diranak. Euskal Herririk gehienean Ihauteri edo Iñauteri.

Azkuek bere hiztegian dakarrenez, Aratustiak, haragi uzteak dira; baina nere iritzian, guk erabiltzen dugun eraz oinarritzen bagara, Aratostiak, haragi osteak (haragi jateen ondorena; hau da, baraua). Dena dela, era bietatik ere ideia berera joten dugu: latinezko "carnestolendas" dira.
Hemen ez naiz hasiko Aratostiak zer diren adierazten; horren xehetasunak J. Caro Barojak eman zituen *El Carnaval* (Taurus. Madrid, 1965) deritzan estudio hartan. Gure Euskal Herri honi dagokion aldetik J. Garmendia Larrañagak eman zigun *Iñauteria. El Carnaval vasco* (S.G.E.P., S.A. Donostia, 1973) eta zehaztasunak nahi dituenak horietara jo beharko du.

Ihauteriak, beste gabe, ez da erraz ulertzeko gauza zeren Ihauteri edo Aratosteak, azken batean, inguru zabalago bati lotzen dira, J. M. Satrustegik J. Garmendiaren liburu horri egin zion hitzaurrean agertu zuen bezala eta gero *Solsticio de invierno* (Col. Diario de Navarra. Iruña, 1974) deritzan liburuan lasaiago adiaraziko zigun bezala.

Baina esan dudan bezala, ez naiz arituko Aratostien sustraieri buruz, baizik hauek gure herrian zer izan zirenari baino.

Gerra ondoren barau egunak bai, honek ezagutu genduzen, baina barau aurretik egiten ziren jaialdi eta mozorroz jazteak ez. Baina denboraren zehar, zertarakoa den gizona, hartarako grinak agertzen ditu. Aratostiak debekatu ziren, baina urteko beste jai batzuk Aratoste bihurtu dira. Orain Eibarren, San Juan egunez irtetzen diren konparsak -kontsejuak sarituak gainera-, lehenago Aratostietako gauza zen. Gainera, egiten ziren konparsak bazuten jatortasun berezi bat, batez ere kuadrillakoek beren artean ateratako bertsoak kantatzen zituztenean. Hurrengo, kanpoko modaren haize giroak ekartzen zuenetik ere bai. Donostiako kalderaginena ere hala izan zen. Antzinago, zaharrak diotenez, sardinaren ehortze hilketak ere bai. Hau oraintsuago San Juanetan egin zen azkenengo aldiz, bertako ohitura zahar bat berritzea balitz bezala, baina Goya-ren pinturetan bestelakorik azaltzen da.

Gauzak zelan aldatzen eta itxuragabeko bihurtzea diren agiri-agirian jarri izan digu Eibarren azken urte hauetan inoiz egin izan den danborradak. Danborradak, Donostian badu bere jatortasunezko giroa, Iruñan San Ferminak duten bezala. Baina zenbait herritan, danborrada edo San Ferminen antzera jokatu nahirik itxurarik gabeko ihauteri egunez bihurtzen dute beren herriko jai nagusia. Garai bakoitzeko jaiaren sustraietara joko bagenu, jai bakoitzak jatorriz izan duen iturri gardenetara joko genuke.

Baina hainbestekorik eskatu gabe ere, garaian garaikoari dagokionez, jai bakoitza bere giroz ospatuaz, ihauteriak ihauterietako gordetzen ikasiko genuke. Hau da, Aratostiak Aratostietarako, udarako abarketak eta negurako zapatak diren bezela. Lehen gure herri guzietan Ihauteriak ospatzen baziren, orain zergatik ez ? Sasoian gerizak bezala, ihauteriak ere beren bete beharra dute gure gizartean. Honegatik, nere esku balego, urtero konpartsen sariketa antolatuko nuke. Eta, gau berean, baita ere mozorro edo koko jantziena. Honela, Eibarren behintzat, nere haurtzaroan ezagutu nituen jai alai haien oroitza berrituko nuke gure herriaren pozgarri.

Zaharragoen artean oroitzapen biziak gordetzen dira, guk hondarretan ezagutu genituenak baino atseginagoak.

"Ardurabakuak" zeritzan kuadrilak 1930ean eratu zuen konparsa izango da nere lehen oroitza, hain ongi gogoratzen ez banaiz ere. Gainera, orduan kantatu zituzten hamabi bertsoak bildurik *Eztenkadak* liburuan argitaratu nituen(1). Hasierako bertsoak hau zion:

*Kanta berri batzuek*
*dituguz atara,*
*aitzen emoten gatoz*
*herri honetara;*
*Arioplanuan juateko*
*asmuetan gara,*
*bihar urtetzen dogu*
*Ameriketara*

Garai haretan oraindik egazkinen hastapenetan geunden eta "Ardurabakuen" jira ez zen txantxetakoa, kainaberazko armazoiz eta oihal zuriz egindako aireplanu hura kalez kale erakutsi ondorean Ameriketara irtengo zirela herriari azalduz. Ez hori bakarrik, handik Ifar-hizoztegira ere bai; han zer aurkituko zutenaren berriak ezaguturik gainera.

*Polo Norten ei dagoz*
*hain paraje baltzak,*
*harako egin dituguz*
*aproposko galtzak;*
*Eskuetan harturik*
*galtzairuzko lantzak:*
*ez gaitezan han galdu*
*hortzak edo artzak*

Eskatzeko ere modu politak zituzten; hara hemen azken bigarren bertsoa:

*Aparatugiñan eiñ dogu*
*urte bian lana,*
*hortan gastatu dogu*
*geure diru dana;*
*oin berriz biderako*
*bihar dogu jana,*
*horregatik eskatzen dogu*
*errialtxo bana.*

Doinu eta bertso asmatzen denak parte hartzen bazuten ere, Itsaso eta Beltxi izaten ziren buru. Itsasoren inguruan egiten zirenak zortzikoaren doinuz izaten ziren eta bilduak ditudan doinu hoietan bada zenbait oraingo bertsolarien artean ezagutzen ez denik ere. Beltxik ordea, inoiz zortzikoaren doinuz egiten bazituen ere, urrengo, garai batean modan jarri ziren habanerak ere enplegatzen zituen.

Armaginen konparsak bi kanta erabili zituen, bata habaneraz, eta ez dut izan bertso guziak biltze-rik. Inork balezki pozik hartuko nituzke. Zortzikoz atera zutena ere oso polita izan zen. Eta hau eman nuen Club Deportivo-ak egiten duen aldizkarian. Ikus *Kezka*, 1976. urteko zenbakiaren 22-23. orrialdeetan.

Ohiturazko legeak gordetzeko, konparsak kalez kale biltzen zuten diruz bazkari bat egiten zuten eta sobratzen zena herriko hospitalerako izaten zen.

Herri batek hola jokatu behar du bere kulturagintzan, lehengo ohiturei irauneraziz eta bere giroan egungoa itsatsiz. Hala bete zuten gure gurasoek urtero kanta berriak eta doinuberriak plazaratuz.

Eta, herri bat, gauzen sorkunderako ahalmenak indartuz nobleagotzen da. Eta nork daki Aratostiak piztutzeaz San Juanak ere neurri hobe batean berriz San Juan bihurtuko ez diren?

(1) Ikus *Eztenkadak,* 1965.urtean Zarautzen argitaratua, 100-106 orrialdeak

* * *

Los carnavales de algunos pueblos y entre éstos los de la cuenca del Deva, no debieron tener el arraigo o la fuerza popular que contaban los de Tolosa y pueblos de la montaña de Navarra. Pues de lo contrario se hubieran salvado de las prohibiciones que vinieron en postguerra.

Pero como al hombre le es dificil resistir los impulsos de la propia naturaleza, tal vez por esto, en muchos pueblos las fiestas patronales o tradicionales que tuvieron otro sentido se han ido convirtiendo en auténtico Carnaval pagano. Muchas veces he pensado que puede ser por la falta del indicado día en el calendario, o derivado de una mala pantomima a imitación de otras fiestas. Por ejemplo, de la castiza tamborrada donostiarra y de los sanfermines de Pamplona, que tienen solera propia, se hacen malas imitaciones. Pues, de por sí, las imitaciones generalmente suelen ser malas. Y, por esto, tal vez será necesario devolver los carnavales para acabar con tanta charanga de mal gusto y tan fuera de lugar en las fiestas patronales.

El Carnaval que conocimos en el Eibar de nuestra niñez, al conjunto de los tres días le llamábamos *Aratostiak* (Carnestolendas), y en su forma castiza consistía en comparsas y baile de máscaras. Las comparsas actuaban por la mañana, recorriendo las calles con algún motivo, casi siempre original, y cantando canciones alusivas al tema representado. Eran canciones compuestas por el grupo, en el cual siempre había algun aficionado a componer los versos. Itsaso y Beltxi eran dos elementos populares que intervenían en los arreglos de estas canciones. Una muestra de las mismas son los versos que reproduzco. Las comparsas postulaban por las calles, y con los beneficios hacían una comida y el resto lo entregaban al Asilo-Hospital. A veces, durante el baile que se organizaba en el frontón Astelena al caer la tarde, solía haber concursos de disfraces. Era un día alegre y jovial.

**(Bidez, 43-47.orr) - 1977.II.7**

NOTA: ~~Una cita al carnaval de Eibar la encontraremos en la página 261, en la obra Viaje por el país de los recuerdos de T. Echevarria.~~

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**Eibarko Aratostiak**

***Antxiñ'go Jentillen gandik***
***Aratoste zoruak;***
***amaiñ-emonda katetik***
***infarnuko diabruak***

Horrela hasten zituen Toribio Etxebarriak Aratostieri egindako bertsoak (ikus **Ibiltarixanak** liburuaren 197.orrialdean). Toribio izan bai zen, nik dakidanez, Eibarko Aratostieri buruz zerbait idatzirik utzi zigun pertsona bakarra. Maite zituen nonbait jendearen alaigarri ziren jaiak bere idazkietan, bai euskaraz eta bai erdaraz, Aratostiei buruzko berri jakingarriak utzi zituen. Maiz, gertakari zelebreak azalduz. Aipatu dudan liburu hortan bertan, 255. orrialdean, Batista Kojuarekin gertatua dator. Baina, ***Viaje por el país de los recuerdos*** deritzan liburua dugu gure mende honen lehen partekoa ez ezik joan zen mendearen azkenaldiko ageri asko ematen dituena. Besteak beste, 261. orrialdean adierazi zuen bere garaiko Aratostiak zertan oinarritzen ziren, edo Eibarko Aratostien ederrena zertan zen. Arrate eta Noche zeritzen kafetegietan ba omen zen abots

ederdun kantari jatorrik eta: "Ganaba ésta del café de Arrate a todas en su especialidad de animadora del carnaval, con originales comparsas, que en competencia con otras cuadrillas, organizaba todos los años, trayendo para el consumo de las criadas, música y letra que duraban en el cartel hasta el año siguiente".

Baina, gure akorduz, neskameak etxeko zereginetan ez ezik gerra aurrean mutiko ginenok ere geure errekadugintzan (mandatuetan) kalez kale Aratostietan entzun eta ikasitako kantak kantatuz joaten ginen, hurrengo urteko kanta berriak lehenagokoa itzali arte. Hala ere, kanta batzuk indar handia izaten zuten eta urteak joanaz ere kantatzen genituen. Gehien gustatzen zirenak, inoiz, jendearen eskariz birargitaratzen ziren konparsak.

Toribiok aipatzen zituen konparsak ote dira Eibarko lehenak? Behar bada, bai. Baina hiriko Aratostiak heurak sustrai zaharragoak dituzte.

J. A. Arana Martijak zionez, gure etnologoen eritziz, XVIII. mendearen azkenaldian edo XIX.aren hasieran, burgesiaren eraginez, baserri girotik kaleratu ziren Ihauteriak; hau da, nekazari mundutik hiritartzera. Baina, ni ez naiz uste hortakoa, zeren artikulu batetan argi ta garbi agertu nuenez, mende t'erdi lehenago egiten ziren Oñatin Unibertsitateko ikasleen artean. 1565ean ospatu zena dugu lekuko.
Dena dela, noizbait, antzirudiak pantomimetatik parodietaraino eroan ziren eta gure mende honen hasieratik ezagutu dira Eibarren kalez kale. **Eguen zuri,** bereziki, umeen pantomimaz osatzen da eta adinekoekin asteartez burutzen dira Aratoste jaiak. Egun honetan, antzina, entzutea dugunez, Sardina ehorzketa ere egiten omen zen, beste zenbait tokitan ezagutu den eran eta Goyak bere oihaletan utzi zigun horren oroitza. Pertzagileena (kaldereroak) donostiar erara, erderazko kanta bertara aukeratuz egin izan da. Aireplanuarenak 1930ekoak dira, Barberoena eta Armaginena bateratsu ezagutu ziren. Eta, ez naiz oroitzen gehiagoz. 1982.urtean Tomás Etxaluzek, **El Diario Vasco** egunkarian (Eibarko orrian) eman dituen berriak oso interesgarriak dira. Ongi litzake zaharragoengandik holako berriak biltzea.

Aireplanuarenak, bertso guziak oso osorik eman nituen **Eztenkadak** liburuan eta beste zenbait berri. Zortzikoz eginak ziren eta gaur egungo bertsolariak erabiltzen ez duten doinuz. Armaginenak ordea, bi kanta ziren, bata habaneraz eta bestea zortzikoaz. Hemen ere, zortziko doinu ez ezagun batean eta merezi du bertsoak bederen gaur hemen jasotzea. Hara:

**Tallar honetan lagun ugari,**
**hasi gerade lanian;**
**zer egiten dan ikusitzera**
**etorri nahi dezunian.**
**Gerri makurtuta nekatzen,**
**egoten gerade astian,**
**jaia heltzeko desiatzen**
**pasatzeko humore onian.**

**Etxian ondo ikusi nahirik**
**eta faltatu ez dein jana;**
**horregatikan egiten degu**
**izardiz beterik lana.**

**Aste pasau-ta guk etxian**
**emoten degu pozgarria,**
**esanaz: "amatxo maitia,**
**hauxe da nik irabazia".**

Irakurlea ohartuko da, Bizkai aldeko euskalkikoak ere, bertsotan hasten direnean giputz

bertsolarien joera hartzen dutela, usadioaren eraginari jaramon eginaz. Esan beharrik ezta bertso horiek politak direla, baina maizago parodia erabili izan dela

Berrogei urte ilun haiek atzean utziaz, berriz ere ospatu dezagun Ihauteri, zeren ondorean izan bai du (orain hain gogorra ez bada ere):

**Garizuma zazpi asteko,**
**barau gogorrak parte;**
**zuri, alantxe izateko...**
**datorren urtera arte!.**

* * *

El origen de los carnavales se remonta al estadio pastoril, pero en las poblaciones urbanas de nuestro país, probablemente penetró mucho antes de lo que se suponen algunos etnólogos, tal como señalé. Hallaremos noticia muy elocuente en la **Historia de la Universidad de Oñate**, de José A. Lizarralde. El testimonio más concreto viene a ser aquel escandaloso peito de 1565.
En Eibar, los testimonios escritos que hoy conocemos, son muy tardíos, que no van más allá de las postrimerías del s. XIX. Fue Toribio Echevarria quien recogió curiosas noticias y divertidas anécdotas en varias de sus obras. En el **Lexicón** eibarrés viene a decir: "**Aratostiak.** Los tres días de Carnestolendas. Aratostiak izanten dira, jendia zoratzeko. Los Carnavales son para enloquecer a la gente". Sin embargo, no se vislumbra esa severidad a través de los textos de **Ibiltarixanak** (en verso euskérico) y en las memorias **Viaje por el país de los recuerdos**. De los mismos, se pueden extraer interesantes noticias de las fiestas del Carnaval. Menciona a grupos corales improvisados en torno a las tertulias de café, que componían sus propias músicas y letras para poder competir entre distintos grupos. Es una verdadera lástima que no se haya recogido este material. Por mi parte, lo poco que he logrado, son tres canciones con otras tantas melodías: una parodia de la época pionera de la aviación, unas loas a los armeros y la gran epopeya de los progresos industriales. Dos en **zortziko** originales y una habanera.

Que las presentes líneas sirvan para animar a la labor recopiladora de un aspecto de la historia, como es el Carnaval.

**HOJA DEL LUNES, 22 de febrero de 1982**

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**Ondorenak**

Ihauteri edo Aratostiak, heuren debekuak izan dituzte, moral aldetikoak behinik-pehin; baina, guk dakigunez, lehengo denboretan ere ez zen ezer gertatzen giza naturalezaren grinetikakoa ez zenik. Zaharragoengandik jaso ahal izan ditudan gertakari batzuen oroitza ekarriko dut gaurkoan.

Oso ezaguna da Eibarko pareja harena, biak beren itxurak disfrazez aldatuak eta lizunkerietarako prest. Isilian joan omen ziren ezkutulekura, eta elkarrekiko zereginetara heldu zirenean ohartu zen senarra, bestea bere emaztea zela. Hori zen emazte argiak bere senar neskazaleari jokatu zion ziri sartzea

.
Jaialdiak parejaka egiten ziren dantzalekuak ere baziren Eibarren. Behin ordea, gizon bat bakarrean toki hartara sartu nahi zuenean, emakumezko baten laguntza ekar zezala eskatu zion atezainak, eta handik denbora gutira han agertu omen zen emagaldu batekin. Eta, atezainak, zituen mandatuak zehatz bete nahirik. Esan omen zion:

- Ezin sar zindezke zalantzazko emakume batekin.
Bestearen ihardespena:
- Zalantzazko emakumeak hor barnean daudenak izango dira, zeren hau oso jakinekoa bai da.

Elkarrengandik banatu ezinezko pareja, Plaentziako Pope eta Andando omen ziren. Beti berenak eta bi egiteko gertu zeudenak. Baina, horregatik hain zuzen, koko jantzita ere, biak batean egiten zituzten bihurrikeriak oso ezagunak ziren bai Plaentzian eta bai inguruko herrietan; baita Aratosteetako antzirudiak gora behera ere. Horregatik, behin batean, inork ezagutu gabe ibiltzeko asmotan, biak disfrazaturik joan omen ziren Bitoriara (Gasteizera). Bidean Andando loak hartu eta Popek bere fetxuria egin nahiaz, atzekaldean klarionez (tizaz) "Andando" idatzi zion bizkarra beteko letraz. Gasteizko kaleetan, Andandok bere izena entzuteaz, a zen sustoa! Zoiazen lekuan zoiazela, atzetikara jendeak: "Andando".Orduan, Poperi esan omen zion:

- Hi Pope; hemen ere laster ezagutu gaituztek eta bueltako trena hartu eta goazen azkar Plaentziara.
Eibarko Batista kojua ere, itxura aldaketak gora behera, ez zen aratostietan inork ezagutu gabe ibili ahal izateko gizona. Izan ere bere errenka ibiltzeko era hain omen zen berezia, nork ez igarri? Urte batean, guztiak beti laster ezagutzen zutelako benetan aspertua zegoenez, koko jantzi gabe irten omen zen. Eta, jendeak harrituta esaten omen zuen: "Horrek bai duela Batista kojuaren antza. Nork esan hain ondo imita zitekeanik?" Batista kojuak inoiz ez omen zuen gozatu urte hartako Aratostietan adina.

Beste pareja harena ere ez zen gutiagorako. Handiak egiteko asmoz mozorro jantzi eta bai neurritik gorakoak irten ere. Ihauterietako asteartez (martitzen Aratostez), biak disfrazaturik, gau guztiz izugarriak egin ondorean eta azkenerako mozkorrak errenditurik, lastoz betetako kamioi bat aurkitu zuten eta besterik ez zitzaien gogoratu lastatzan etzan eta lo egitea baino.

Loak hartu zituen bai, baina ez zen hor amaitu. Biharamunean, hauster egunez, goizean Azkoitian esnatu ziren, kamioi gainean, bueltarako dirurik gabe eta kale gorrian. Hura zan hura bi gizonen xaxaria, Azkoitiko kaleetan, zer egin etzekitela, bata indio jantzita eta bestea txino.
Elizara zoazen atsoak aspamentuz eta ikaraturik: "Jesus, Maria ta Jose! Oraindik ikusi behar ditugu ikustekoak". Baina, hala ere, eibartarrok lasai. Misiolariak hauts-eguna ospatzera bialduak balira bezala. Zeren, beste erremediorik etzutenez. Batak besteari: **Quia pulvis es et in pulverem reverteris.**

* * *

Los carnavales tan temidos y tantos años prohibidos so pretexto de atentar a la moral, apenas han tenido otras repercusiones que el estruendoso jolgorio y el buen humor, tan necesario para el hombre que ha de sobrellevar los azares de la vida.

De lo que hemos podido recoger de aquellos festivales de antaño, el único saldo son toda una serie de anécdotas sin graves consecuencias. Lo sucedido a aquel marido mujeriego que le arrastraban sus habituales pretensiones, pero cuya esposa también se disfrazó y consiguió un ligue con su propio esposo. De aquel otro que pretendía entrar en un baile donde forzosamente se exigia ir aparejado y se hacia acompañar de una cuya reputación era dudosa y le puso impedimentos el portero por las instrucciones que debería cumplir para no llevar compañías que ofrecían dudas sobre moralidad, y al que el interesado alegaba que las dudosas ya estaban dentro y la que le acompañaba no era dudosa, puesto que su conducta moral era del dominio público. Aquellas otras "celebridades" de los placentinos Pope y Andando, cuyas hazañas iban más allá de la estrecha cuenca del Deva. Las adversidades y reversidades de Batista el cojo de Txirio-kale, que por mucho que pretendiera disfrazarse, para su desgracia, no conseguía pasar inapercibido. Hasta el no menos sucedido de aquella otra pareja que la noche del martes de carnaval se sobrepasaron con la bebida y acabaron tumbándose en un camión cargado de paja. Pero lo curioso fue que no acabaron, sino, que a la mañana siguiente, miércoles de ceniza, se despertaron en Azcoitia, sin recursos económicos para emprender el viaje de retorno, vagando por la calles de Azcoitia cuando los habitantes de la localidad se dirigían al templo, ellos, el uno

disfrazado de indio y el otro de chino, tratando de disimular como enviados por los misioneros para las funciones del miércoles de ceniza.

**HOJA DE LUNES 1 de marzo de 1982**
**XXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**IXU-EGUNA**

"Ixu-eguna" deitzen diogu Eibarren berpizkunde egunari. Larunbat santu egunez sua eta ura bedeinkatzeak egiten bai dira, urtetik urtera galduaz badator ere, eta hemendik du izen hori.

Urte mugetan, ekainean Donibane edo San Juan bezpera gauan eta Eguberrietan oso ezagunak ditugu suaren ospaketak, Donibane egunsentian eta Urte-berriz urarenak ohi diren bezala. Badirudi eguzki gurtzearen urte mugetatik aldatuak direla, edo antzina antzinatik horrela datorrela.

Abelzaintza munduan, Neolitos garai beretik, badirudi bi urte muga besterik ez zirela ezagutzen: Udara eta negua. Bertatik sortu ziren udaberri eta udazken edo udagoiena, nekazaritzaren munduak ekarri zuen lau zatitako urte mugaketa. Arrazoi honegatik, daitekeena da zenbait ohitura ere, lehenagoko bi urte mugaketa hartatik beste bietara zabaltzea. Edo, nork daki mendi goietako larradietatik behekaldeetako lur edo herrietara eta hoietatik berriz goietara unaiak eta artzaiak aldatzen ziren garaietatik ez ote datorren urtea lautan zatitzea? Dena dela, antzinago bi zati baizik ez zirela; argi dago. Baita ere, bi zati hoietan suaren eta uraren ospaketak indartsuago eta hedatuago aurkitzen direla.

Udaberriz eta udagoienez, ospaketa hoiek urriago aurkitzen ditugu, eta harrigarria bada ere, XVI. menderako olen industria indartua zen Eibar bezalako herri batean ohitura hoiek nabarmengarri gorde izan dira. Udagoienez Gaztaiñerre deritzan egunez eta udaberriz "Ixu" bedeinkatua partitzez.

Azterketa batek laster eramango gaitu ohiturok beste zenbait tokitan ere aurkitzera, zeren udaberriko su ospaketa besterik ez baita Valencia-ko Falla famatua. Lantzeko ihauterietan Miel-Otxin erretzea eta Erronkariko Su-berria. James George Frazer-ek *La Rama Dorada*-n (1890) dakarrenez, Alemanian ere oso ezagunak ziren su-berri hoiek.

Su eta urak beren sustraiz, purifikazioa sinbolizatzen dute eta antzinakoentzat oso garrantzitsuak ziren. Sakratuak; noski. Hoien ohiturazko indarra elizak ere onartu beharra izan zuen. Erronkariko azken euskaldunengandik jaso nuen harek aitortzen duen bezala.

*Su-berri*
*Ur-bedeinkatu*
*Meza andira*
*Bezpetra*
*Maitrinetra*
*Akudatzera*

*Mundu guzia*
*Su-berri xerka.*

Euskal-Herriaren beste muturrean agertzen zaigun adibide hau dugu lehenago hedatuagoa zenaren agiririk onena. Bizkai-Gipuzkoetako mugaren inguruko herri askotan gorde da ohitura zahar hau, eta adibidetzat Eibarkoari lotuko natzaio, gure haurtzaroan ezagutu genuena adiaraziz.

Baina, aldez aurretik esan dezadan Luis Pedro Peña Santiagok oso ongi jasoa duela *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* (1973) deritzan liburuaren 137/138 orrialdeetan.

Ixua deitzen diogu egun hortarako ilintia gertatzeko erabiltzen den gaiki edo materialari. Pago enborreko une eiharretatik ateratzen genuen, esponja gisara jarritako parte zuri biguna, eta esku-leku edo kirten aukerakoa egiten genion labanez eta zatitxoak poltsikoan gordetzeko. Goizian goiz jaikita, zazpiretatik zortziretara bitartean ematen ziguten elizan su bedeinkatua. Honetarako su-hazia gertatua izaten zen elizan. Lehen lehenago Isasiko elizan izaten zen eta gero San Andres parrokian. Ilinta pizturik, besoa jiraka eramaten genuen haizea emanaz, itzali ez zedin, eta etxee-tan patrikako ixu puxkak ematen genituen, ahoz puts eginaz pizturik. Esaten zenez, "ixu-bedeinkatuz" behar zen etxeetan eguneko sua piztea, etxearen ondasunerako. Eskupekoz ordaintzen ginduzten etxeetan. Auzoko eta ahaidekoen artean zabaltzen genuen gehiena, eta inoiz beste inor aurreratzen zenean, bazutela, eta, eskupekorik gabe irtetzen ginen. Hurrengo, pertsona oso ezagunak edo ahaidekoak zirenean, beste inor aurreratzen bazen ere eskupekoz eta eskerrikaskoz irtetzen ginen. Taldetxoak eginaz jakiten genduen nondik nora ibili. Bagenituen bezero antzerako etxe hartuak eta taldeak elkar errespetatzen ahalegintzen ginen. Baita ere ezagutzen genituen joaten ziren guzientzat saria edo eskupekoa izaten zuten familia elizkoiak. Hoientzat ez zen ohitura merkea izaten, zeren Eibarko mutikoetarik erdiak agertzen bai zitzaiz-kien. Eibar erdi diot hain zuzen ere, Eibar erdia bai zen goitarren bezerutza eta beste erdia behetarrena. Ez zen deskuidatuko behetarrik goian sartzera, ez eta ere goitarrik behean. Hoiek esparru nagusi jakinak izaten ziren, eta antzinako hiritar eta burgoarrak (edo errebaltarrak) elkarrengandik berezirik jarraituko zuten ohitura orokorretan ere.

Goizeko bederatzi t'erdiak edo beranduen ere hamarretarako, berriz jotzen genuen elizara. Su bedeinkatuaren ordua bukatua zen eta ur-bedeinkatuarekin hasi behar ginen. Mutikook botilla bana ur hartzen genuen eta txolot txikitxo batekin, etxez etxe abiatuz, lehen su bedeinkatua bezala partitzen genuen ur bedeinkatua.

* * *

En las comarcas lindantes de Guipúzcoa y Vizcaya, la mañana del Sábado Santo se practicaban, y en algunos municipios aún se sigue practicando, la vieja tradición ritual del fuego bendito, que en Eibar llamábamos "Ixu-eguna". Dicha costumbre está recogida en la obra *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* por L. P. Peña Santiago, páginas 137 y 138. El fuego bendecido en el pórtico de la iglesia, los niños recogen en tizones preparados con madera de haya seca y esponjosa y recorren las calles aventando el tizón para que no se apague y llevar el fuego bendito a los hogares.
Los ritos del fuego de los solsticios, más veladamente, vuelven a aparecer en los equinoccios con "Gaztaiñerre" en otoño e "Ixu-eguna" en primavera, en la referida comarca. Pero tal vez tenga alguna relación con la quema de Miel Otxin en el Carnaval de Lanz, las Fallas valencianas y los ritos que se conocen en Alemania.

Lo curioso del "Ixu-eguna" de Eibar es que a continuación del reparto del fuego bendito sigue el de agua bendita. De alguna manera guarda relación con el recital sobre el fuego nuevo que recogí en el valle de Roncal (Navarra) y que dí a conocer en "Fragmentos de canciones del "uskara" roncalés" en Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, número 22.

En el artículo en vascuence se detalla la manera de llevar a cabo este rito cuyas raíces se fundan en los ritos de protección y purificaicón.

<u>OHARRA</u>: Izu-eguna deitzen dio Toribio Etxebarriak eta gaztetan ezagutu zuen ospakizunaren berri ematen digu *Viaje por el país de los recuerdos* liburuaren 134. orrialdean.

(<u>Bidez</u>, 48-51.orr. 1978-II-27)

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**GAZTAINERRE EGUNA**

Industriagintzak aurrera doazen neurrian galduaz doaz nekazaritzako ohiturak; baina, hala ere, badira gauza batzuk industria hirietan ere irauten dutenak, eta hoietako bat dugu Gaztaiñerre eguna. Egun hau, Ermua, Eibar eta Plaentzian Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da.

Urtetxoak dira Gaztaiñerre egun jatorrari buruzko zalantzak eta eztabaidak ezagutu nituela. Batzuen ustez "Domunun Santu" egunetik bigarren astelehena behar zuen izan eta beste batzuen ustez Arimen egunetik urrengo astelehena, eta baita ere baziren Arimen egunetik hirugarren astelehena zela uste zutenek ere. Jan-edan zaleentzat hain da egun ona, baziren astelehen bietan behar zela esaten zutenetarik ere, eta Guruzeta korresponsalarentzat, duda hoiek kontuan harturik, azaroko astelehen guzietan ospatu behar zen.

Iritziak iritzi, Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da.

Egun honetan, antzina familiak etxean ospatzen zuten, inoiz familia bat baino gehiago bilduaz; baina aspaldiko urteetan lagunarteko afari-meriendak izaten dira. Afari-merienda hoiek herriko tabernetan edo inguruko auzoetako bentetan egiten dira. Afari hau goizago xamar hasten da eta lehenbiziko eta plato nagusitzat marraskilloak saltsan, txorizo erria (batzuetan bakaillaua kazuelan edo potajia ere izaten da, baina oso gutxitan); baina azkenez gaztaiña erreak. Eta hemendik datorkio izena. Afari-merienda alaia, afalondoko mahai inguru luzez, ipuiak, kantak, zirikada... eta dantza. Urte batzuetan Astelena frontoian ere antolatu zen dantza, baina erori zen. Gehienetan lagun artean ospatzen den jaia da, eta oraintsura arte gizonezkoek soilik ospatzen zuten.

Jai honi buruzko berri asko ematen ditu L. P. Peña Santiagok *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* liburuan. Ikus 133/137 orrialdeak.

Gaztaiñerreak zergatik? Gaur gure basoetan gaztaiñondorik guti bada ere, aspaldi batean ugaria zen arbola mota hau eta urtearen garai honetan jakirik ugariena eta merkeena zen gaztaina. Uste dugu antzina batean orain bertan baino hedakunde handiagoa izango zuela afari-meriendaz egiten den jai honek eta garaiko frutu hau zen errazen aurkitu zezaketena hainbeste taldek edo hainbeste familiak egun berean beharrezko zuten janaritzat.

Gure *Castanea vesca*-ren laudorioak Munita zenaren liburuan aurkituko ditugu, gaztaindi eta bere frutua, antzinatik negu parteko postreetariko bat izan dena. Orixek bere poemaren parte bat eskaintzen dio Gaztainaro aldiari eta bertan ederki esango digu: "Danboliñeko gaztaiñik ez ba duzu jan, isil gazteiñez".

Hemen esan ohi denez, hileta ondoko "onrra-jana" bezalatsu da Gaztainerre. Horregatik egiten Domunu Santu eta Arimen egunaren ondorean.

Euskal Herriko dolmenak Neolitos garaitik, ekialdera, begira dauden hilobiak dira, eta zuloa ere izaten zuten alde hortara begira, argia sar zedin. Eta hobiaren gain partean janari hondarrak aurkitu izan dira. Nonbait, ordurako hasia zen hildakoei argia eta janaria eskaintzeko ohitura.

Oraindik orain ere gure elizetan argiarena egiten da, baina janariena galdu da. Esate baterako, Arakilen (Nafarroa), norbait hiltzen zenean, bazkaitara joan nahi duenak opila ta argi bat eta lau zortziko (dirua) eraman behar zituen; Azkuek *Euskalerriaren Yakintza* liburuan dionez. Bazkaitara horrela norpere burua komitatze hau zenbait tokitan oraindik egiten den "onrra-jana" bezalakoa da. Hildakoaren ohoretan egiten zen bazkari hau baino lehenagokoa dugu hilari berari janaria eramatea. Azkuek, aipatutako lan horretan dakarrenez, Elorrioko elizan hobi gaineetan ezartzen omen ziren olatak (oblatas), han ehortzirik zeuden hilak jan zezaten. Hasi Bizkaiko Kortezubitik eta Gipuzkoako Berastegira arte aurkitu izan ditu J. M. Barandiaranek holako olata eskaintza hauek *Obras completas*-en lehen tomoko 190/192 orrialdeetan agertzen denez.

Hileta ondoreko bazkariak Orixe berak ere aipatzen ditu *Euskaldunak* poemaren azken partean hilkizunari buruz ari delarik. Berri zehatzik ematen digute W. A. Douglass-ek *Muerte en Murélaga* liburuaren 58 eta 64 orrialdeetan. Bestalde, Domunun Santu egunean bertan, hobi gainean ogia jartzeko ohitura ere bazen, Douglass-ek 85. orrialdean aipatzen duen bezala. Eta A. Arrindaren *Euskalerria eta eriotza* delako liburuan ere holakorik bada, anitz maiztasunez gainera, hileri argia eta olatea jartzeaz. Eta heriotza ondorengo bazkariaz ere ikus azken liburu honen 138. orrialdea. Oraintsuago, A. Agirreazaldegi nere lehengusu elgetarrak landu du gai hau *Heriotza Euskal Herrian,* deritzan liburuan.

Argia eta ogia ez ezik, garia sakuka eta idia ere eramaten ziren elizara, Antonio Maria Zabala azkoitiarrak 1781ean idatzirik utzi zigunari jaramon egiten badiogu. Ikus RIEV, XIV (1923), 572/587.
Bere sustraietan udazkenez egiten ziren ospaketen hondarkinak izan daitezke, James George Frazer-ek 1890ean erlijio eta magiari buruz idatzi zuenarekin konparaketak egiten baldin baditugu.

Ermua, Eibar eta Plaentzia herrietako nekazarien artean, eta baita ere Durangaldekoen artean, oraindik bizi irauntzen du hileta ondorengo "onrra-janak". Zaharrak diotenagatik, ohitura hau kontuan harturik eta eman ditugun adibide horiek era orokorrez begiraturik, uste dut aski argi dagoela Gaztaiñerre egunaren jatorria. Hau da, hileta bakoitzean egiten den "onrra-janaren" araura, Domunu Santu eta Arimen egunak haintzat harturik, urtean behingo anaitasunezko otordua egitea hildako guzien oroiz.

Baina nondikakoaren oroitza bera galdua bada ere, afaria nahiz afari-merienda egiteko ohitura indartsu gordetzen da, eta era guzietako eibartarrei, berdin ermuar edo plaentziarrei, lagun artean anaikiro harremanetarako besterik ez bada ere, on zaie Gaztaiñerre eguneko otordua.

* * *

A medida que se han desarrollado los núcleos industriales ha ido decayendo la vida rural de nuestros pueblos con sus tradiciones culturales. De entre las herencias recibidas de ésta se mantiene aún hoy la costumbre de "Gaztañerre eguna" en la cuenca central y baja del Deba guipuzcoano.

"Gaztaiñerre" es un reducto de una costumbre probablemente derivada del "onrra-jana" ó ágape de funeral, que estaba muy extendido en el país, como podemos ver por las recopilaciones de Azkue y Barandiarán, y más recientemente en los estudios sobre la muerte por Douglass y Arrinda. Recientemente, Alberto Aguirreazaldegui ha desarrollado el tema en el libro titulado *Heriotza Euskal Herrian* (1989) y que tuve el honor de prologar.

Concretamente del "Gaztaiñerre eguna", celebración anual del segundo lunes siguiente al día de Todos los Santos y del día de las Animas, se ha ocupado L. P. Peña Santiago en su obra *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa)*, páginas 133/137. La tradición consiste en una cena o cena-merienda (afari-merienda), que antaño se celebraba agrupando familias en casa y que en nuestros días celebran en restaurantes, tabernas y ventas las distintas cuadrillas y grupos de amigos. El menú básico lo forman los caracoles en salsa, chorizo y castañas asadas. De aquí el nombre de "Gaztaiñerre eguna" (día de las castañas asadas).

Estas cenas reuniones son casi exclusivamente de hombres. En su origen puede ser una de las festividades del ciclo equinoccial tratado por J. G. Frazer en su obra *La Rama Dorada*. El hecho es que Ermua, Eibar y Placencia, sin faltar a la costumbre, también este año celebrarán su "Gaztaiñerre eguna", sin preocupación alguna de su origen y significado pero sabedores de la necesidad de esta celebración anual para el mantenimiento de las relaciones sociales.

(Gogoz, 76-79 orr.1976-XI-8)

Oharra Gaztañerre egunez eta Gabonetan marraskilloak jateko ohituraren berri ematen digu T. Etxebarriak Viaje por el país de los recuerdos liburuaren 240. orrialdean.4

**AKONDIA, LEXAR BAGA (antziñako gerra baten aztarnak)**

Akondia, gaur ezagutzen dogun mendi tontorra eta baserria baino zerbait gehiago zan antziñako denporetan, hortik hasi eta Gorosta ta Mandiola parteetatik behera, Azitain alderaiño. Gainera, historian aurrera sartu arte, Akondiako kofradia Ezkaregi-Eltzartza errekatik Matxari errekara, Urkuzua, Arragoeta eta Errebala hartzen ebala zan, eta urtero euren ordezkari bat izendatzen eben alkatetzarako.
Baina oraindik gutxiago dakiguna, Oñaz ta Ganboarren anaiarteko gerretan bertan izan ziran burruken barri.

Eibarko Unzuetatarren torre-zaharra Oiñaztarren ahide nagusietakoa zan, eta hau dalata izan zituen zenbait erreketa. Azitaingo jauregia dagoan leku berean egoan torre zahar hau. Gehiago oindiñok, torre zaharraren zimentarrietan jaso zan oraingo jauregia, Lasalletarrak eskolatzat daukena.

Akondiako lehelengo gerra, agiriak diñuenez, 1390garren urtean izan zan. Gerrate haren ondorenez zabaldu zan "Akondiako kanta", burrukan gertatu zana gogoratuz, *Acundia lejar (...)ga lejarbaga* hasten zana, Ibargüen-Cachopin-en kronikak 70garren kuadernuan dakarrenez. Mitxelenak *Textos arcaicos vascos*-en 69garren orrialdean jasotzen ditu bere oharrak.

Gure egunotan ez dogu ezagutzen kanta hau. Uste dogu betiko galdu zala. Behintzat, ez da inun bilatzen kanta horren zatirik, hasiera hori izan ezik. Hasierako zatitxo horrek esan gura dabena zera da, Akondia, lehen leizarrez (=lexarrez) zana, burrukaren ondorean leizarrik barik gelditu zala. Esate honegaz burrukaren gogorra agertu nahi dau.

Baina, ikusten danez, kanta hau, hain zabaldua zanez, ez eben koroniketan osorik jaso, baina gaur bere aztarna horixe bakarrik gelditzen jaku. Zer pena!.

Burruka edo gudu honen barri, Lope García Salazarrek be jaso eban *Las Bienandanzas e Fortunas*-en 22garren liburuan. Ganboarrak hesia ipini ei eutsen Unzuetarren torreari, eta Butrongoak, oiñaztarrak honek be, laguntzera etorri ei ziran, eta orduan, oiñaztarrok eta ganboarrok, alkar jo zirala Akondian. Burruka honetan, ganboarrok menderatu ei zituen eta Durangoko Joan Ybargoengoa bertan hilda laga.

García de Salazarrek bere liburuan diñuanez, 1422an barriz atakatu eben Unzuetako torrea, eta era berean barriz alkarregaz burruka izan ebela, Akondia bertan, eta barriz be oiñaztarrak nagusitu.

**1975**
**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**SOBRE LA TRADICION DE LA MUSICA CORAL EN EIBAR.**

El hecho de haber existido un cantoral de finales del siglo XIII ó de primeros del XIV (desaparecido en nuestra época) en la parroquia de San Andrés Apóstol, nos pone en la pista de una posibilidad, más remota en el tiempo que en lo probable, de algún grupo coral en aquellas tempranas fechas.

Independientemente de la tradición popular de los coros de Santa Agueda, muy arraigados desde antaño, la noticia más precisa que nos asegure la existencia de un grupo coral se remonta a los años de 1597 y 1603. Pues en estos años figura un chantre beneficiado, según testimonios escritos, en la parroquia de San Andrés. Se trata del eibarrés Joanes de Abanzabalegui, que consecutivamente firmó solemnemente "El Chantre" dignidad que le venía de la catedral de Calahorra.

En el archivo del coro parroquial de San Andrés se conserva una colección completa de cantos en latín para todas las misas del año, que completan doce tomos en pregamino, copias de una obra idéntica existente en la catedral de Toledo, con el nombre del donante en uno de los libros: "Escribió este libro Juan Ramírez de Arellano, de edad de 62 años. Siendo obrero y dignidad de esta iglesia de Toledo el Sr. D. Pedro de Iñarra, natural de Eibar, quien regaló a esta parroquia toda la librería. Año de 1673".

Citado por Gregorio de Múgica en la *Monografía de Eibar*, página 130. Hemos podido comprobar que se conservan íntegramente y que tienen el aspecto de haber sido muy usados. Estos volúmenes constituyen una valiosa obra artística. Hagamos para que se conserven.

Como cosa curiosa señalaremos que en el mismo archivo coral, en un legajo de composición manuscrita en papel, se conserva una "Misa a 6º tono" compuesta por el Conde de Peñaflorida, a quien Menéndez y Pelayo le incluyó entre los ilustrados heterodoxos del siglo XVIII.

Muy tarde hallaremos unas noticias más concisas sobre una masa coral. Gregorio de Múgica, en la citada *Monografía* nos precisa la fundación de un orfeón en 1887, "cuyo fin único fue el de cantar un himno alegórico y alguna otra composición a la llegada del primer tren, el día de la inauguración del ferrocarril de Durango a Zumárraga. El himno era obra del maestro Gorriti, quien fue dos veces desde Tolosa a Eibar a dirigir los oportunos ensayos. Pasada la solemnidad que se festejó, el orfeón se disolvió.

En 1901, don Crípulo Guisasola Axpe fundó el Orfeón Eibarrés, a quien años más tarde sucedería otro Guisasola, el gran maestro Juanito, que además de director de masas corales fué destacado compositor. Ramón Mª Sarasua, sobrino del maestro, es autor de una breve historia musical de la localidad, que el Ayuntamiento eibarrés publicó, a través de su comisión Ego-Ibarra, en 1991. Por mi parte publiqué en el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais, hace 20 años, un extenso ensayo titulado "*Noticias de músicos eibarreses entre los siglos XVII y XIX"*(Véase Bol. B.S.V.A.P. XXVIII, 1972, pp 358.362)

**1975**
**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**EIBAR, ERDI-AROKO AGIRIAK**

1978.urteko udaran, Eibarko udaletxeko artxiboan aurkitu nuen Erdi-aroko kantategi orri baten berri eman nuen. Aurkimen hau ez zen oraingoa. Duela bizpahiru urte, herriko ordenantza zaharrak ikertzen ibili nintzanean, hamazortzigarren mendeko esku-izkribu batzuk kantategi zahar baten larruzko orriz enkuadernaturik zeudela ohartu nintzen. Bere anotazioak monogramaz (lerro batean) eta letra tipoa frantsez gotikoa. Urte batzuk igaro dira San Andresko parrokiako koruan antzerako baten orri erdia aurkitu nuenetik eta elkarren arteko konparaketak egiteko asmoz utzi nuen.

Udaletxeko orriaren neurria 49 x 36 zentimetrokoa da, eta parrokiakoaren esku beretik irtena dela esango nuke. Are gehiago, bai larruaren itxuraz, bai neurriz, letraz eta gainerako xehetasunez, kantategi ber beraren orriak direla dirudi, eta biak gerrate inguruan galdu zen kantategi ber beraren orriak direla esango nuke. Bere berriak, ikus *R.S.B. Amigos del Pais*-ko *Boletin*-ean, XXVI (1970) urteko 490/93 orrialdeetan.

Oraingo zati hau osoagoa denez, ikerketarako aukera hobeak ematen dizkigu. Alde batetik, lehen uste genuen akitano kutsu hura oraindik nabarmenago agertzen zaigu. Letra, frantsez gotiko zaharra du, lerro bakarrean anotatuaz gainera, eta Nafarroan XIV.mendearen lehen partetik erabili zen "*minima"* delakorik ezta agertzen. Gregoriano musikaz dago, latinez idatzia eta gaitzat Andra Mariaren goresmenezko kanta.

Baina ez uste izan kantategiaren zati hau gure herriko Erdi-aroko agiri soil eta harrigarri bat denik. Aurkitze hau, aspalditik bilduaz nentorren agiri zaharren aberasgarritzat jo ditzakegu.

Aipatutako boletin hortan, 1961ean, Unzuetatarren leinua oiñaztarren ahaide nagusien artean aztertzeaz eman nituen Eibarren albiste zaharrak eta geroago, 1969an, herriko erromaniko artearenak. Geroztik, materialak bilduz eta aztertuz jarraitu dudanez -1975/76 urteetako San Juan jaietako programetan ikus ditzakegu-, orain guzien berri laburrak aurkeztea merezi du.

Eibarren izena agiri idatziz lehen aldiz J. Iñiguez de Ibarguenen *Crónica* famatu hartan agertzen da: Ziortzan zaldun batzuk batu omen ziren 1193. urtean don Celinos Nafarroako erregeen ahaide hurbila Eibarko Untzuetako alaba batekin ezkontzera etorri zenean eta txala egiteko zeuden hogetalau behi
eskaini omen zituen Ziortzako elizarentzat. Gainera, bertan azaltzen denez, orduan berritu omen zuten Untzueta jauregia. Beraz, ageri denez, 1193. urtea baino lehenagokoa zen etxe hau.

Hamairugarren mendean berri gehiago aurkituko dugu. 1267an, Alfonso el Sabio gaztelako erregeak Eibarko San Andres elizaren maiordomo izendatu zuen Juan López de Gamboa, Elgoibarko Olasoko jauna eta ganboarren buruzagi zena.

Untzuetatarrak oiñaztarrak izatez, elkarren etsai amorratuak ziren, beti etengabeko guduetan ari zirenak. Honegatik, esan beharrik ez dago, Eibarko eliza ganboarren esku uzteaz zer iskanbila sortuko zen. Dena dela, hamar urte geroago, 1277an, gaztelako errege ber berak hesia jarri zion Untzuetako dorre-etxeari. Hala ere, apenaz humildu ziren Untzuetarrak, eta ondorengo erregeak ere, Alfonso horren seme zen Sancho "el Bravo"k Diego López de Salcedo bidali zuen bere guda-rosteekin Eibarko dorre-etxe bera errenditu zedin.

Azken gertakizun honen berri Erregeen koroniketan ematen da, eta bai lehena eta bai bigarrena Lope García Salazarkoaren *Las Bienandanzas e Fortunas* deritzan esku-izkribuetan.

Eibar hiri-bildu izendatu zen 1346an, eta, geroztik, XIV. mendean zehar berriak ugarituz datoz. Aipagarriak dira "Carta-puebla" bera, 1390.urtean Akondiako kantak sortu zituen gudu hura eta beste zenbait berri.

XII eta XIII. mendeeetako berriak edukitzeaz, jakinekoa zen bestelako aztarnarik ere izatea. 1927an E. Urroz parroko zenak Azitaingo koruko horman harrizko Kristo gurutzatua aurkitu zuen eta handik parrokiara eraman eta gerra ostean galdu zen. Esan dugunez, XIII. mendekoak dira San Andres elizaren lehen aipamenezko agiriak. Honegatik oraingo eliza baino lehen ba zen beste bat eta garaiagatik, erromanikoa zitekean. Eta, behar bada, gelditzen zaigun agiri bakarra, San Pedroren harrizko imajina erromanikoa da, eleizaren ekaldeko ateburuan gordetzen zena. Arestian aipatu bezala, R.S.B.A.P.-ko Boletinean agertu nituen berriok. Ikus XXV (1969) urteko zenbakian. Gaur egun, San Pedro imajina hori elizaren barrukaldean gordetzen da.

XIV. mendeko agiriak ugari dira, eta, era berean, gotiko aztarnak ere ugariago. Gerratean hainbeste gauzaren artean galdu zen, sakristia erretzean, Aita Lizarraldek katalogatua zen Andra Mari irudi polit bat. Katalogatzailearen iduriz, Arratekoa bera baino zaharragoa. Arrateko Andra Mari XIV. mendearen lehen partekoa da, eta Arrateko elizaren ekalde partea ere gotiko egiturazkoa. Zozolan Sienako Santa Katalinaren harrizko imajina, Arraten gordetzen den San Laurente zurean polikromatua ere bai. Aginagako San Migel Arkanjeluaren elizan dugu beste Andra Mari eder bat, XV. mendekoa. Irudi hoiez gainera aipagarria da Isasi kaleko laugarrenean Jesus monogramazko ateburukoa, San Andres-en gurutzarekin. Eibar zaharraren agiri bikaina dugu.

Kantategiaren aztarna honekin aski material aurkitzen dugu Erdi-aroko Eibar zerbait ezagutzera

hurbiltzeko. Behinik behin, hamalaugarren mendeko hiri bildua ez zela eremu soilean eraikia izan adieraziko digute.

* * *

Hace unos tres años, cuando indagaba sobre las ordenanzas municipales en el archivo de Eibar, hallé un legajo con cubierta de pergamino avitelado. Se trataba de unos manuscritos del siglo XVIII encuadernados con una hoja de un cantoral medieval, cuya medida total viene a ser de 49 x 36 cms. Su particularidad consiste en su notación a una sola línea y el tipo de letra gótica francesa; pero, además, no figura la nota mínima que se introdujo para mediados del siglo XIV en Navarra con el *Ars Nova*. Lo que hace pensar que la hoja pertenece a un códice del siglo XIII o principios del XIV. Sus características, en cuestión, coindiden con la hoja que hace unos años descubrí en el archivo del coro parroquial de San Andrés y que muy probablamente pertenecieron al cantoral desaparecido en la última contienda y cuyas referencias se detallaron en la "Crónica" del IV Congreso Nacional de Música Sagrada celebrado en Vitoria en 1928, donde se expuso el cantoral de Eibar, que llamó la atención de los entendidos, junto con otros ejemplares procedentes de los grandes monasterios. En su día, en el *Boletín de la R.S.V. de Amigos del País,* XXIV (1970), pp 490/3, dí una reseña explicativa. El nuevo hallazgo ayudará en la investigación que tiende a confirmar su origen o influencia aquitana, con musica gregoriana y tiene como tema la exaltación de la Virgen.

La época de la hoja hallada se remonta a la de las primeras noticias de la parroquia eibarresa. La que en 1267 Alfonso el Sabio -precisamente el autor de las "Cantigas"-, hizo merced del patronato a favor de Juan L. de Gamboa, señor de Olaso de Elgoibar y cabeza del bando gamboino y enemigo del solar eibarrés de los Unzueta, parientes mayores del bando oñacino. Epoca en que las cosas no debieron marchar bien, puesto que a los diez años el rey en persona puso cerco a la casa-torre de Unzueta en Azitain.

La primera noticia de Eibar es aún bastante anterior y en la misma se dice que la casa de Unzueta se reedificó en 1193.

Las noticias del siglo XIV ya son más abundantes, con la fundación de villa cercada, la "Carta-puebla", la batalla de Akondia y su cantar, etc.

A aquel Eibar medieval pertenecen el San Pedro románico que hoy se conserva como único testimonio en su estilo artístico, ya que desapareció el crucifijo de piedra que E. Urroz descubriera en Azitain, y las dos hojas del cantoral. Mas, del período gótico, de los siglos XIV y XV, son las imágenes de Arrate, Aginaga y Zozola. En las bases del edificio Unzueta se pueden observar las de la casa-torre primitiva, y en el número 4 de Isasi un anagrama de Jesús con aspas de San Andrés, clave de la puerta de algún antiguo edificio gótico.

Estos materiales, estudiados en su conjunto, nos aproximan a un mejor conocimiento de la historia local en el medioevo.

**(BIDEZ, 85-89.orr. 1978-XI-27)**
**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**MAS SOBRE MUSICA Y MUSICOS EIBARRESES.**

Nos consta que Eibar tenía a un nativo de la villa, entre los años 1597 y 1603, de chantre beneficiado para dirigir el coro parroquial. Este chantre era Joanes de Abanzabalegui, y su título le venía de la Catedral de Calahorra, a cuya diócesis pertenecía nuestra villa.

Sin embargo, la existencia de un coro parroquial se remonta a mediados del siglo XVI (sin entrar en consideraciones de un probable coro en el alto medioevo, a juzgar por el cantoral medieval desaparecido de la parroquia); en ordenanzas parroquiales de 1559 hallaremos unos cultos

dignos de una Catedral, donde no faltaban actuaciones con cánticos. En el artículo quinto, se lee: "Que dichos 10 beneficiarios sean obligados a decir y oficiar en dicha Iglesia la misa mayor del día todos los domingos y fiestas de guardar cantada con Diácono y Sub-Diácono y que dichos días digan la tercera cantada media hora antes de la Misa mayor y víspera y completas cantadas todos los dichos días." Y en el artículo octavo añade: "Que así bien digan todos la Salve cantada al anochecer de todos los sábados del año y en las vísperas de las fiestas de Nuestra Señora que en el año se celebran con órgano".

Entro otros, como los Eguiguren y Sostoa, debería figurar, entre los ilustres músicos hijos de la villa, Pedro de Iñarra, pués según consta en el *Compendio Historial de Guipúzcoa* de Lope de Isasti, era chantre y canónigo de la Catedral de Toledo. Este personaje fue quien regaló en 1673 una colección de doce tomos de cantorales en pergamino, copia idéntica de otra colección existente en la Catedral de Toledo, y que constituye una primorosa obra artística.

Desconocemos lo relativo al órgano mencionado en las ordenanzas de 1559. Fue sustituído por otro construído por el eibarrés Fray Joseph de Eizaga Echevarría en el año 1658, y que en 1667 él mismo afinó y le añadió algunos registros más. La fabricación se llevó a cabo en el mismo Eibar en colaboración con otros oficiales bajo la dirección de Eizaga Echevarría. Y el mismo año de 1667, que am-plió los registros del órgano parroquial, fabricó el órgano del Santuario de Arrate, que en 1816 fue retirado por inutilizado. Este eibarrés, religioso franciscano y renombrado maestro organero, construyó, entre 1656 y 1659 el órgano de San Bartolomé de Olaso en Elgoibar, al que hizo algunas ampliaciones en 1668; en 1677, construyó los órganos de Mondragón y el de San Diego de Alcalá de Henares, y en 1682 el del Santuario de Aranzazu.

Discípulo suyo fue su homónimo José de Echevarría, casado y vecino de Oñate. En este punto conviene aclarar que Eizaga Echeverría a veces figura en documentos de la época unicamente como José de Echevarría, y no debemos confundirlo con su sobrino y con aquel otro de igual nombre, oriundo de Eibar y organero de Carlos III.

Este José de Echevarría, descendiente de Eibar, organero del rey Carlos III, renovó y aumentó según el estilo de su época, en 1787, el órgano construído por José de Eizaga Echeverría para la parroquia de San Andrés Apóstol, que para la ejecución de dicha renovación se vino exprofesamente desde Madrid. La misma fecha se ocupó de la restauración del ya citado órgano de Elgoibar.

**1976**
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**DANTZAK**

Edozein herritan, bertako etnia ezagutzeko, garrantzi handia dute dantzak. Hauen ederra, dantzari bakoitzaren mugimenduetan eta talde moltzoaren koreografian datza. Herri baten dantzaren ugaritasuna bera ere aberasgarritzat joten da. Dantzak, musika, musikagailu, jantzi, ospakuntza, kanta eta abar, bere inguruatzat dute. Beraz, dantzaren balioa ezta dantza soiletik bakarrik begiratzekoa, ingurua osagarri duenez. Gainera, dantzak heurak ere, erlijio ospaketaz, ohorezko erreberentziaz, herri jaietan, ezkontzetan, ihauterietan... seriozki edo alaitasunez, gizonak lanetik kanporako jolasetan behar duen bizitza beraren lagungarriak dira.

Dantzen aldetik ospe handia du Euskal-Herriak. Baina, horrez gainera, herbeste eta etxean bertan, hain zabaldua izan den euskal literaturarik eza bera gezurtatzen du dantzak. Ez zenbait dantza kantatuak direlako, ez; baizik, Iztuetak gai hontaz utzi zizkigun bi liburuegatik areago. Folkloreak oraindik izen hau hartzeke zuela, dantza bilketan oraindik kasik inor aritu ez zen garaian, gure Iztuetak bi liburu idatzi zizkigun, bata dantzaz eta bestea dantzen doinuez, joan zen mendearen lehen parte hartan. Gainera, dantzak, kantekin batean, gure doinu zaharren eusle izan dira eta Euskal-Herriaren musika jatorra inork ez du ukatzen.

Hau hola delarik, aspalditik behar genituen bertako dantzen bildumak; baina, zoritxarrez, Aita Donostia, Veyrin, G. Barandiaran eta guti batzuk besterik ez dira arduratu euskal dantzetaz. Urte asko ez dela, *Dantzari* zeritzan aldizkari bat sortu zen, baina ez du izan bizitza luzerik. Bere kideko zen *Txistulari* zeritzanak ere bildu zituen, doinuak behinikpehin.

Orain, urte askoko frututzat eta izerdi askoren ekintzaz, hara hemen non argitaratu den *Dantzak* deritzan liburu ederra. Bai, ederra benetan, baldin ederrik bada. Honako liburu honen egilea Juan Antonio Urbeltz da, eta argiratzailea, urtero holako liburu bakanen bat eskaintzen digun Lankide Aurrezkia.

Liburu eder hau, marrazkiz eta argazkiz ongi hornitua, edertasun oparotsu baten jabe da. Argazki asko kolorez ditu gainera. Sarreratzat hiru aurkezpen daramazki: Luis Iriondo, Ninette de Valois eta Lucile Armstrog-renak. Babes hoberik ezin zaiteken.

Aurkezpenok eta egilearen sarrera bera euskara erdaraz daude. Gainerakoa erdaraz, tarteka zenbait esaldi eta kanta zahar euskarazko dituela.

Hara zer dion L. Iriondok bere aurkezpen horren zati batean: "Munduak dantzarako dugun iaiotasunaz, beste arte expresiobidez baino gehiago ezagutzen gaituela argi dago. Eta honenbestez, gure dantzaren unibertsaltasuna beste arte alor guztien gainetik dagoela aitor genezake. Bestalde, Europako beste folkloreak begiratzen hasi orduko, Euskal dantzaren edertasun-berezitasunaz ohartuko gara. Gure dantzaren koreografia-eboluzioa, pauso eta salto nahastatuen konplexotasuna, plastikazko zenbait konposamenen dotorezia galanta, eta gorputz-expresio bereziak, beste herrialdeetako dantza folklorikoetatik erabat bereizten du gure dantza. Batez ere, estetika eta formari dagokionez".

Baina, esan dezagun, J. A. Urbeltz, Argia dantza taldearen zuzendariak, bildu ez ezik ikertu ere sakon ikertu dituela Euskal-Herriko dantzak, bere liburu bikaina lekuko. Gure dantzak ezagutuaz eta liburu honen aurrean, gai hauetan hain jakitun den Ninette de Valois andereak, bere idazki ohoregarrian hara zer dion: "zihur baino zihurrago naiz, liburu berri honek zoko ilun asko desestaliko duela, eta Balleta klasikoaren aurrerabidean euskal dantzak izan duen eragina behin betiko argituko dela."

Ondorean, oso ongi dio L. Armstrong andereak, herri bat bere sustraietan oinarritzen denez, beharrezkoa zaigula sustrai hoiek ezagutzea.

Egileak, sarreran, dantza mota bakoitzaren klasifikazioa egiten du, lehenengo euskaraz eta gero erdaraz. Ondorean, hauen koreografia, adibideekin eta marrazki eta argazkien laguntzaz. Era berean, maiz, doinuen pentagramak ere agertzen ditu. Azkenik, musikagailuak. Bukaeran folklore atlasa, bibliografia eta aurkibide eta oharrak.

Bertako argazkiak, gehienak kolorez, Egiguren anaiak atereak eta maketagintza beren ardurapean eginaz osatzen dute liburua. Argazkiok, Egigurentarrei dagokioen bezala, kolorez era eztitsuan eta irudiak lausotuaz emanak dira. Hauek, lan eder hau hobeto burutzeko, arte balioz hornitzen dute lan orokorra, patxarazko album bat osatuaz.

Iztuetaren *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira,* 1824. urtean argitaratua, euskal literaturaren barnean liburu bitxia baldin bada, Urbeltzen hau ere gauza bitxi bat bezala geldituko zaigu gure historiarako. Honi esker agertzen zaizkigu edonorren eskuetara eta begietara gure dantzen edertasuna bere funtsez adiarazia, eta ondoko anitz urtetan liburu honen beharrean aurkituko dira Euskal-Herriko folklorea sakon ezagutu nahi dutenek.

Bijoaz gure zorionak liburuaren egileari eta bertan parte hartu duten guziei.

* * *

Nos era conocidísima la famosa frase de Voltaire: "...peuples qui demeuremt ou plutôt qui sautent au pied des Pyrénées et qu'on apelle Vasques ou Vascons", recordado principalmente por viajeros y folkloristas extranjeros, pero a pesar de la fama de bailarines, no han abundado estudiosos de la coreografía. Larramendi dio interesantes referencias sobre nuestros bailes, pero se debe a Iztueta el honor de las primeras recopilaciones en 1824. Desde entonces habían de transcurrir muchísimos años hasta que otros hombres se interesaran por esta especialidad. Y, ahora, la obra recién publicada de José Antonio Urbeltz, director del grupo Argia.

Esta obra titulada *Dantzak*, volumen de 275 páginas en formado de 29 x 23 centímetros, por el contenido de texto e ilustraciones, viene a ser un libro preciadísimo.

Obra editada por la Caja Laboral Popular, confeccionada por un equipo de especialistas bajo la coordinación de Juan José Berasategui, con fotografías y diseño de los hermanos Eguiguren.

Lleva tres presentaciones. La primera de ellas se debe a la pluma de Luis Iriondo, principal promotor de la edición, quien recuerda la aludida frase de Voltaire y hace una historia de la edición y describe la importancia de los bailes vascos; le siguen unas breves pero sustanciosas línes de Ninette de Valois, más una extensa presentación de Lucile Armstrong que como folklorista enjuicia los valores de los bailes de nuestra tierra.

Dice Armstrong en su encabezamiento: "Una flor no puede crecer sin raíces; una casa sin cimientos se derrumba con el primer temporal. En este mismo órden, un Pueblo se desmoraliza y desintegra si queda aislado de sus raíces". Para continuar describiéndonos la importancia del folklore, que en definitiva es la recopilación de la sabiduría popular.

En una amplia introducción, Urbeltz describe su plan de trabajo, en vascuence y en castellano. Selección y descripción de las danzas, etc., y a lo largo de la obra recogerá detalladamente todos los aspectos coreográficos, a veces con melodías y generalmente con dibujos y fotografías. Fotografías de los hermanos Eguiguren que son unas verdaderas obras de arte. Como apéndice, va un atlas folklórico, para terminar con una rica bibliografía e índices a la obra.

Artísticamente es un libro monumental, tanto por la presentación como por su contenido, y documentalmente, bastará con afirmar, que, será en lo sucesivo de consulta indispensable para todos cuantos pretendan estudiar el folklore vasco.

**(BIDEZ, 56-61 ORR. 1978-VII-17** )
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**EIBARKO DANTZAK**

Gerra aurreko Eibar haretan umetatik ezagutu genduzen dantza sariketak.

San Juan egunez goizetik egiten ziran Untzagako plazan mutikoentzako zenbait jolas, zaku antzitziketak, lapiko apurtzeak, txorokil batzeak, arrautza koilaran eta hau ahoan ipinita nork lehenago eruan, eta abar. Azkenik, eguerdi aldera, aurrezku sariketarekin amaitzen ziran goizeko jokuak.
Aurrezkulariak edonondik etorritakoak izaten ziran eta parte hartzen ebenen artean eibartarrak be izaten ziran, eta eibartarrik onenarentzat sari berezi bat izaten zan. Aurrezku dantza honetan, bakoitzak libre eban Gipuzkoako eraz edo Bizkaiko eraz dantzatzea. Era horrek gaur ezagutzen diran ber berak dira eta eibartarrak, edo eibartarrik gehienak behintzat, Bizkaiko erara dantzatzen eben. Behar bada hau zan bertako jatorrizko era zaharra, baina ezin geinke segurantzia

guztiarekin ziur hola zala egiztatu.

Ondoren, San Pedro egunez eta Urkuzuko plazan, baserritar giroko jaiak izaten ziran; Untzagan San Juanetan kaletarrentzat izaten ziran lez. Ganadu sariketak, harrijasotzaileak, aizkolariak, bertsolariak eta abar; eta heuren artian trikitrilarien sariketa.

Hemen be edonongoak parte hartzen eben eta eibartarrik onenentzat sari berezi bat izaten zan.

Jai horretatik zenbait gure egunok arte iraun dabe, baina beste ohitura batzuk galdu ziran.

Horrek dantzok noiztikakoak eta hain bertakoak ziran ezin geinke egiztatu. Ohiturak be heuren gorabeherak izaten dituez, modatik pasatuaz eta denborarekin berriz modara etorriaz. Holakorik izango da gure dantza horretan be. Dana dala, nor hobeka sariketak egiten ziranez, dantza horrek erabiltzen ziralako da.

Eibarko batzokiak, bere aldetik, baeukan dantzari talde bat be, baina gure mende honen lehen partean beste leku batzuetatik jasotako dantzak erabiltzen zituana. Baita be, heuretatik eta heuretan oinarriturik Gregorio Santakruzek berak asmatutakoak be. Baina ez antzinan Eibarrren bertan erabiltzen ziranetatik. Egia esan, Eibarko antzinakoak zelakoak ziranik ere ez dakigu; bazirala bakarrik. Eta izan ziranetatik ziurrena esku-dantza izango da, Arrateko irudi zahar batek erakusten deuskunez.

G. Mujikaren Monografia-k dakarrenez, 1605.urtean, Printzearen jaiotza zala medio, prozesiño bat egin zan Eibarren, sortze horren ohorez, eta prozesiño berean dantza agertu zan.

Eta, 1708.urtean, badakigu, kontu-liburuak dakarrenez, urte honetako Korpuskristi egunez eta San Juan jaietan dantzatu ziraneri 400 errial eta tanbolin edo txistulariari 300 errial ordaindu zeutsezela. Bestalde, baita be, badakigu 1744. urteko Korpuskristi egunez ezpata-dantza egin zala. Eta 1756ko agirietan irakurtzen danez, antzinatikako ohitura zanez, sindiko izendatzen zanak urteko 50 dukado-belloi jasotzen zituan eta diru horretatik, beste egitekoen artean, beregain hartu beharra eukan San Juan jaietan eta Korpuskristi egunez parte hartzen eben dantzari eta tanbolinari janariak ordaintzea.

Aipatutako urte honen ingurukoa da, XVIII. mendearen lehen partekoa, Orioko baserri batean aurkitu zan grabadua, gaur Donostiako San Telmo museoan dagoena. Grabadu zahar horretan Arrateko elizaren altara agertzen da eta bere inguruan, ezker-eskuma Arrateko zelaia eta azpikaldetik Eibar. Arrateko zelaiaren ezker partean, zenbait gauzaren artean bereziena, esku-dantza da. Elizaurrean, esku-dantzaren aurrez aurre herriko alkatea buru eta auzo alkatea buruordezko, eta eliz-atari inguruan tanboliña, azpirago neska-mutillak trikitri dantzan.

Herri dantzen agiririk ederrena dogu eta orrialde honetan berau bakarrik agertu nahi izan dogu.

**1977an San Joan jaietako programan argitaratua**

**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX**
**KARLISTEN GERRATEKO KANTAK (I)**

> ***Gerra baten gaiñian***
> ***nai neuke itz egin,***
> ***zuzen goiazelakotzat***
> ***igual uts egin***

1977ko urtarrilaren 3an hil zen Eibarren, 92 urtekin, Joakin Olañeta, "Ertzil" izenez ezagunago genuen agure bizkorra. Markina-Etxebarri parteko Ertzil baserrian jaioa zen, Eibarko mugatik

hurbil. Munduz asko ibilia zen baina bere bizitzako parterik gehiena Eibarren igaro zuen. Euskal abertzaletasunaren hasieretan "bizkaitarren" alde ipini zen eta, gezurra badirudi ere, ideiaz hurbilen zebiltzaten karlistak zituzten etsairik handienak, naiz foruzale edo naiz bestelako. Abertzale horietakoa genuen Ertzil ere, eta inoiz ez nuen jakin gurasoak karlistak zituen ala ez. Karlistenik etzuen ezer entzuterik nahi.

Gaztaroan edo haurtzaoran ikasirik: Ertzilek, karlisten kontrako kanta asko zekizkin eta konfiantzazko pertsoei horiek kantatzea gustatzen zitzaion. Bere zahartzaroan, bizpairu bertsoz oroitzen zenean, gure etxera etortzen zitzaigun horiek kantatzera eta magnetofonoz jasotzen hasi nintzen. Guziak bertsolarien doinu berezi batean kantatzen zituen; zortziko txikian gainera.

Ertzilek, esaten dutenez, gure mende honen hasieretatik, Bizkaian eta Gipuzkoan (Bizkaiakin muga egiten duen Debarru partean), baserririk baserri lan handia egin omen zuen abertzaleentzat botoak irabazten, eta, ez dakit zergatik, baina honako bertso hauek erabiliko zituela iruditzen zait, karlista jendea abertzaletzeko. Garai hartan "bizkaitartu" edo "bizkaitarristatu"; hala esan ohi zen. Irakurlea laster ohartuko denez, karlistak parregarri uzteko asmatuak dira. Zalantzarik gabe bigarren karlisten gerrate garai inguruan liberalak jarritako bertsoak. Liberalak, edo karlista desengañatuak.

*Somorrostroko gaiñian*
*gerra jaku asi;*
*Don Kastor jeneralori*
*karlisten nagusi*
*Balaso bat artuta*
*lurrera zan jausi;*
*baltzak jarraian eta*
*zuriok igesi*
*gerrarik ezin leike*
*orrela irabazi.*

Hor aipatzen duen jenerala don Kastor Andetxaga izan behar zuen. Baltzak, liberalak ziren eta zuriak, karlistak.

Karlistok, Markina ingurua zuten feudoetarik bat eta inguru horietako pertsonaiak bakoitzaren joera edo grinegatik ridikulizatu nahi dira.

Hala dira ondoko hauek, Ermuko Valdespinako markesagandik hasita. Orbetarra zen berau eta karlisten buruzagi:

*Markes zaarra ta Dorregaray*
*irugarren Elio,*
*gerra au irabazteko*
*ez dabe balio.*
*Guk naikua egin dogu*
*agur eta adio;*
*biarra bada ugari*
*zuentzat oindio.*

*Berrizko seme bat dogu*
*Franzisko Zengoita,*
*Gobernadore militar*
*Markiñan jarrita;*
*jan da edan sendo egin*
*iñok ekarrita;*

*adiskide izan biar dau*
*Doña Margarita.*

*Berrizko jeneral orrek*
*alberti antzia*
*Urkiolako mendian*
*trintxeragintzia.*
*Eztaukanari emon ez*
*daukanari kentzia:*
*auxe dok euskaldun jendia*
*bendean artzia.*

(Beste batean, bertso honen bukaeran, honako hau kantatu zidan: "Au da Euskalerrian/naastiak jartzia).

*Markiñako Zabalak*
*urten dau mendira;*
*pauso ori narraztuta*
*jatxi zan errira.*
*Leengo jai-goiz batian*
*jarri naiz begira:*
*gizonak errenditzeko,*
*andrak onak dira.*

*Agure begi txiki,*
*Markiñako Txirten,*
*etxian zer janik ezta*
*komandante irten.*
*Amaika andrari negar*
*erain diok aurten.*

*Iturri ta Munioz*
*geure nagusiak,*
*arto pixkat jan ezinik*
*askok ikusiak.*
*Komandante izateko*
*gizon itxusiak;*
*eiñgo deutse justizia*
*goiko Nagusiak.*

Liberalak jarritako bertsoak edo etsipenez desengaiñatutako karlistak heurak. Baina, dela dela, euskaldun askoren irakasbide ez badira ere, hor daude gure historiaren agiritzat. Ertzil zenaren kezka zen bertso horiek betiko galduko ote ziren, eta horregatik kantatzen zizkidan, norbaitek gerorako gorde ahal izateko. Jarri zidan kondizio bakarra, azken gerrateko izua hezurretaraino sartua zuenez, bera bizi zen artean ez argitaratzeko, edo, beinikpehin, ez beintzat Franco-ren errejimenak irauntze zuen artean. Epe horiek igaro zirenez, ordua deritzat bertsook argitara emateko.

* * *

Hace ya unos años que el anciano llamado Joaquín Olañeta, más conocido por "Ertzil", en memoria del caserío donde nació en 1885, confiado por mi euskarofilia, me visitaba frecuentemente para cantarme los versos de la segunda guerra carlista, en la medida que le venían a la memoria. Según me contaba, los había aprendido en su niñez y el repertorio era mucho mayor de lo que iba recordando. Y, aunque a veces me repetía los mismos, procuré

En Uztarroz, el día de Santa Lucía, se acostumbraba encender hogueras en la plaza. El mismo día, por tradición, se comían migas en los hogares, (migas, son una sopa típica roncalesa).

**SUPERSTICION Y CULTO**

**PIEDRAS MAGICAS**

Dentro de la ermita de San Miguel de Arretxinaga (Marquina) existen unos peñascos calizos apoyados en el suelo y sostenidos unos contra otros. Forman concavidades de tamaño regular, en dos de los cuales existen altares dedicados a San Miguel y a Santa Polonia.

Los solteros de ambos sexos suelen pasar tres veces por el hueco que hay debajo de uno de aquellos bloques, lo cual hacen con gran dificultad por la estrechez del sitio. Al mismo tiempo rezan tres Ave Marías. Dicen que practicando esto se casan dentro del año.

Antes había costumbre de arrancar pequeños trozos al peñasco de la derecha, en cuyo costado se hallan el altar y la estatua de Santa Polonia. Decíase que tales piedrezuelas curaban el dolor de muelas, metiéndolas en la boca.

**LAS ERMITAS Y LAS FUENTES MEDICINALES. SANDALLI**

En el camino que va de Oñate al barrio de Araotz se halla la ermita de Sandalli ó Santalli (=San Elias), dentro de una cueva.

A ella acuden los matrimonios que no tienen sucesión, a pedírsela al Santo.

Al pie de una peña, cerca de la ermita, existe un pozo, en cuyas aguas se bañan las mujeres estériles, mojándose, bien la cabeza, bien los pies: algunas se introducen en el agua hasta la cintura. A este baño llaman beratu (lit.: ablandarse).

Hay quienes llevan allí ropas de niños, las lavan en el pozo y luego las tienden en un zarzal próximo para que se sequen, todo con el fin de obtener descendencia.

Alguna vez ha sido llevada agua de aquel pozo a América: lo que revela no poca fe en su virtud curativa.

(Comunicado en 1920 por D. Leonardo Guridi, de Oñate)

**COSTUMBRE DE BERRIATUA**

La ermita de Santa María Magdalena (vulgo "Maala") de Berriatua (Vizcaya), se sitúa próxima a los caseríos Legarre, Aranzadi y Urdinoleta, y a unos 250 metros de la misma, en dirección Este, en una cavidad de roca arenisca se halla el pozo conocido con los nombres de Axpozua, Sarnapozua y también Oleitxurri. Entre el pozo y la ermita se alza una cruz de piedra que llaman Maalako kurutzia.

El día 25 de Julio de 1957, don José María Ugalde del caserío Urdinoleta, me informó lo siguiente, en torno a la ermita y el pozo: Según tradición, lavándose en dicho pozo se cura de las

enfermedades de la piel. Con ese fín van muchos desde puntos muy lejanos de Vizcaya y Guipúzcoa, sobre todo de la parte costera, a poner en práctica el tratamiento. La práctica se lleva a cabo muy particularmente en cuaresma, pues entonces frecuentan muchas madres con sus hijos afectados de la enfemedad. Consiste en lavarse en el pozo para secar con toalla, pañuelo o alguna prenda de vestir y dejar el trapo empleado en el secado colgado de algún árbol o arbusto que circunda el pozo, para que se pudran en aquel lugar. Creen que con dicha práctica quedan curados.

El día de Santa María Magdalena (22 de Julio), la mayoría de los romeros que acuden siguen esta costumbre de lavarse la cara o cuando menos las manos, para secarse con pañuelos y dejarlos colgados. Ese mismo día, a continuación de lavarse en el pozo, los devotos encienden velas en ofrenda a
Santa María Magdalena en el interior de la ermita. Esta ofrenda de velas encendidas se va perdiendo en los últimos años, pero el lavado del pozo se mantiene sin decadencia. Y aunque sea frecuentado en cuaresma y día de Santa María Magdalena, se hace indistintamente en cualquier día del año, si hay necesidad de curación.

**LAS IGLESIAS**

Entre los monumentos antiguos que han llegado hasta nosotros, los más celebrados en las leyendas populares son las iglesias. Las disensiones y contiendas acerca de su emplazamiento, indicaciones de orden sobrenatural que precedieron a su erección, personajes que tomaron parte en las obras, los campanarios, las imágenes, las lámparas y los osarios o cementerios han sido objeto de creencias y relatos maravillosos, que retratan un aspecto del espíritu de las generaciones pasadas y aun de nuestros días.

La elección del emplazamiento. Transporte del material, castigos, etc.

**Nuestra Señora de Ezozia (* *)**

En el archivo de Eusko-Folklore existe un informe comunicado el año 1921, por D. Carlos de Orueta, médico, natural de Placencia, que dice así: Hay en Placencia una ermita, Nuestra Señora de Ezozia, cuyo libro actual de cuentas, que data del año 1500 y tantos, habla de otro tomo anterior que se quemó. Supuse que existiría alguna tradición acerca de esa Virgen, y preguntando sobre ese particular, he logrado saber lo siguiente, que me contó un viejo, que yo asistía, días antes de morir:
Oiñ dala urte asko, milla urtiak akaso, Irigoingo(1) gizon bateri urte otxan Ama Birgiñak eta eza otxan eitxeko eliza bat Irigoin'go soguetan.

Gizon ori azi izan toki on baten billa; baña Arritxa(2) sogua begitxandu jakon paraje garbixa ta laua. Laguneri esan i otxan, da, danak konprome eresela, eki otxen biarrian Arritxa'ko soguan.
Egunaz eitxen ebena, gabian apurtuta topatzen i eben, da gañera arri da ol gustiak Ezozi'ra jatxita.
Urrengo goizian, jaso arrixok Arritxa'ko sogora, ekiñ eitxen eliz ori, da gabian betikua: arri gustiak bera eruanda.

Aspertu zian ala ibiltzen, da Irigoin'go gizona gertau zan gabian zaintzeko

Alaze, gabe erdixan ikusi i eban Ama Birjiña zidarrezko jantzixakin da bei bikiñ arrixok Ezozi'ra jeisten, esanaz:

Aida txuri ta belegi,
Begira daguan orri

Begixa atara bei.

Irigoin'go gizon ori begi bakarrakin gelditxu i zan, da ameiku gizaldik ero begixan zeoze izan i dabe.

(Ahora hace muchos años, acaso mil años, al hombre de Irigoian se le apareció la Madre Virgen, y le dijo que hiciese una iglesia en los prados de Irigoin.

Este hombre empezó a buscar un buen sitio; pero el prado de Arritxa le pareció paraje limpio y llano. Se lo comunicó a sus vecinos, y hallándose todos conformes, acometieron el trabajo en el prado de Arritxa.

Lo que construían de día, lo hallaban derribado de noche, y además, todas las piedras y tablas bajadas a Ezozi.

A la mañana siguiente subieron estas piedras al prado de Arritxa, y empezaron a construir esa iglesia, y a la noche ocurrió lo de siempre: todas las piedras trasladadas abajo.

Se cansaron de andar así, y el hombre de Irigoin se quedó a hacer guardia de noche.
Así, a la media noche vio a la Madre Virgen con traje de plata y que bajaba estas piedras con dos vacas a Ezozi, diciendo:

Aida blanca y amarilla
A ese que está mirando
Sácale el ojo.

Ese hombre de Irigoin se quedó con un solo ojo, y unas once generaciones de Irigoin han tenido algo en el ojo)

(Tomado de *"El mundo en la mente popular vasca"*, de D. José Miguel de Barandiarán)

---------------------------------------------------------------------
(* *) Posteriormente localicé otra variante en Elgeta, concretamente en la ermita de Ntra. Sra. de Uriarte. Véase en mi monografía *Elgueta con Anguiozar y Ubera*, 1975, pp. 76, 122 y 123)
(1) Irigoin, Caserío de Placencia
(2) Arritxa, Caserío de Placencia

**ARRATEKO KONDAIRAZ ZENBAIT OHAR**

Jaiotzak eta heriotzak mugatzen du bizitza. Eta, zer esanik ere ez, bi pasarteok garrantzitsuak direla pertsonaren baitan.

Sortzea alaitasunez hartzen baldin badugu eta amaieraz betirako alde beharra negarrez, ezta batere harritzekoa eibartarrontzat Arrate hain leku maitagarria izatea. Gure kondairaren usteetan han hasten bai da bizia; pertsona munduko izate honen sorrera.

Haurrak, beste toki batzuetan Paristik edo zikoinak ekartzen dituen bezala, Eibarrera Arratetik ekartzen dira. Guretzat Arrate da bizitzaren sorlekua eta debozioz hara doaz gure pozak. Baina, haurrak sortu ez ezik, ezkon-laguna topatzeko ere, hango mendi-gailurrean dagoen harrizko kurutzari Kredoa otoitzez hiru buelta ematea baino hoberik ezta. Latsurregik 1936ko Argiaren Egutegian ongi zion bezala.

Ezkongaia bilatzeko ahalmena eta bizitzaren sorrera izatez gainera, antzina, Eibarren umerik gaixo-tzen zenean on zen Arratera eroan eta Amabirgiñaren kapapetik igarotzea. Andra Mari Arratekoa zen bizitzaren zaindaria, 1784ko kanta batek dion bezala: "magal zabal orretan bizi oi gazala".

Bizitzaren misterioaz, adinekoek ez ezik, haurrak ere kezkatzen dira, eta Arratera heldu ta elizan sartzeaz bat, Eibarko ume guzien galdera izaten da, ea haurtxoak non gordetzen diren. Gurasoek, nolabait erantzun beharrez, sabaiaren erditik zintzilik dagoen itsasontzia seiñalatzen dute. Haurra-ren irudimena hain luzea denez, inoiz haurtxoren baten burua ikustera ere heltzen dira, baina umeen negarra noiznahi entzuten dute.

Hortik, itsasoz ekartzen diren ustea zabaltzen zen. Baina, izatez, zintzilika dagoen itsasontzitxoa marinelen oparia baizik ezta. 1785ko kanta batean dugu aztarna, era hontara aipatzen dena, itsas-gizonak erromes aurkeztean:

*Marinel fraka-luze*
*Arrate-zaliak*
*emen etorri dira*
*ontziak zeresat*
*itsaso zabalian*
*balegoz bezela*
*ermitan paratzeko*
*beren pozgarritzat.*

Arrateko kantategia aski aberatsa da eta bertako ohituraz zenbait berri eskaintzen dizkiguna. Joan zen mendera arteko kantak hanhemenka bildu nituen eta *Odon Apraizi Omenaldia* (Gasteiz, 1981) deritzan liburuko 335-352 orrialdeetan jasoak datoz. Liburu honetan birargitaratzen dudan lana.

Kantarik zaharrenetakoak eta berezienak: "*Arrateko zelaiko/bai floridadea...*" bezala hasten direnak noski. Horiek zenbait mendez gure garaira arte heldu dira, baina Amabirjiña koroatzean berriagoak sartu ziren (E. Urroz-en *Historial de la Virgen de Arrate* deritzan liburuaren azken bi orrialdeetan datozenak) eta zahar haiek poliki-poliki baztertuz joan dira.

Arrate bizitzaren sorleku izateak mitologia zaharreko sineskeretara eroaten gaitu. Baina, horrez gainera, bada beste kondaira bat ere, euskal mitologiako Marigana hurbiltzen gaituena. Arraten Andra Mariaren irudia agertzeaz, eleiza bat bertan eraikitzea eskatzen omen zuen eta inguruko biztanleek Azitainen eraiki nahi, hurbilago edukitzearren. Egunaz bertara biltzen zituzten harriak, gauaz Amabirgiñak garraiatzen omen zituen Arrateko zelaira, Ataungo jentilen antzera. Hortik ezagutzen da

"Aida txuri ta belio...", Urrozek, aipatutako liburu horren 26. orrialdean, jasotzen duena. Kondaira hori, nik dakidanez, Marzial Marinez Arregik jaso zuen lehenik *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratzeko (1884. urtean, XI zenb., 266-270 orr). Elgetan, Uriarteko Andra Mariagatik gauza bera esan ohi da eta inguru hauetan kondaira horrek izan duen hedakundea aipatzen nuen *Elgueta con Anguiozar y Ubera* liburuaren 76-77 eta 123 orrialdeetan. Karlos Orueta Plaentziako medikoak 1921. urtean Ezoziko sineskeratzat jasoa ere, funtsean, argudioz gauza bera da.

Euskal mitologiako Mari nahasturik aurkitzea ezta hain harrigarria. J. M. Barandiaranek, bere ikerketen ondorean hara zer adierazten zigun: "Izen oni darraizkion izen-ondoak, erriak numen ortaz zedukan aburua erakusten digute, *Andre Mari* izenak, Amabirjiñari ematen zaion izen berbera ain zuzen argi asko erakusten digu zer nolako andi ta gurentzat zedukaten Mari euskaldunak" (*Obras completas,* T.I, 337 orr.)

Izan ere, sinekerietako Mari ezta arkitzen Akitaniako dibinitateen artean, eta Birjinarekin bateratsu dator Erdi-Aroan.

Elizak VI. mendetik ospatzen du Mariaren birjiñatasuna eta mende bat geroago sartu zuten Inglaterran Sortzez garbiaren debozioa, San Veremundok handik Nafarroako Iratxe monastegira ekarria, 1090. urtean, A. Azkaratek *La flor de la Liturgia renovada* deritzan liburuan dakarrenez (Buenos Aires, 1976.eko argitalpenaren 345-348 orrialdeetan jasotzen duenaren arabera).

Hortik beste bi edo hiru mende geroztikoa dugu Arrateko Andra Mariaren debozioa.

Agiri zaharretan, 1498. urtean aipatzen da lehen aldiz *Nuestra Señora de Arrate*, usa edo herri basoetatik Eibarko biztanleei urterako egurtzak markatzean. Ez dago zalantzarik antzinagotik ba zena. Gainera, elizaren gotiko aztarnak XIV. mendera eroaten gaitu. Fr. Jose A. Lizarralde zenaren ustez, hamalaugarren mendearen hasieretakoa da Amabirjinaren irudia. Eta, arkitekturaz, elizaren burualdia bera ere gotiko egiturazkoa da, bere sola poligonala kantoi bakoitzean ostikoz indartutako horma eraikiekin.

Agiri zaharrago eta zehatzagoak nekez aurkitu ditzazke, Arrateko altura haietan maiz odeiak bezala ingurutzen dute bere misterioa. Hala ere, eibartarrontzat Arraten sortzen da bizitza. Eta, irailaren 8an, urtero bezala, edo 1710.eko koplak dioten bezala, hara doaz Eibar eta bere ingurukoen gogo eta asmoak:

*Atozte Arrate'ra jentia*
*aldapan bada ere nekia*
*adoratzen birjiña santia.*
*Izanik bada au gure jabia*
*emango digu bere grazia...*

El cancionero de Arrate es una buena muestra de las tradiciones y de la expansión que antaño tuvo esta advocación mariana, y lo publiqué en el volumen *Homenaje a Don Odón de Apraiz* (Vitoria, 1981, páginas 335-352). Aparte de aquella leyenda de transporte de materiales, depositados en Azitain para la erección del templo, y que de noche eran llevados a la campa de Arrate, lo más antiguo y original constituyen aquellas canciones donde en su primera o segunda estrofa se inserta "Arrateko zelaiko/bai floridadea...", que pueden remontarse al siglo XVI.

Su antigüedad hace que a veces la Andra Mari se confunda con la divinidad pagana de Mari, tal como advirtió J. M. de Barandiaran (*Obras completas*, tomo I, pág. 337). Sin embargo tanto una como otra se introdujeron durante la Edad Media. En el caso de Arrate, no hay lugar a dudas que se han mezclado las creencias paganas con las cristianas.

En uno y otro caso, las averiguaciones históricas, con testimonio escrito, no nos llevan más allá

del año de 1498, donde se cita a *Nuestra Señora de Arrate* en la saca anual de leña del común para el vecindario eibarrés. La imagen de la Virgen es de estilo gótico, de primeros del siglo XIV, según Fr. José A. Lizarralde. Y, la estructura arquitectónica de la testera del templo, con planta poligonal y contrafuertes en vértices angulares, también viene a ser gótica, probablemente contemporánea a la imágen.

HOJA DEL LUNES DE SAN SEBASTIAN, 6 de setiembre de 1982

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
**ARRATEKO KANTATEGIA (*)**

*Odón Apraiz jaunari, Eibarren hedatu zizkigun irakaskintzen eskergarri.*
(Arratetiko seme honek)

Arrateko folklorea aberatsa izan da. Bertako erromeriak entzute handia eta zabala zuten Bizkai-Gipuzkoetan. Honegatik, antzinatik datorkigun ohitura honek izan du kantategi ezaugarri bat bere inguru.

Kantategitik aparteko gauza bitxirik ere izan du Arratek. Esate baterako, Eibarko umeak Arratetikoak gara. Beste toki batzuetako haurrak zigoinak edo Paris-tik ekarriak diren bezala, gu Arratetik.

Toribio Etxebarriaren ustez, gure euskalkiaren berezitasunak ere bazuten ikustekorik gure sorrera berezi honekin, eta bere euskarazko lanak eibartarrez egin zituenez "Arratetiko bat" erabili zuen izenordezko. Berak egin zuen euskalki mota honen hiztegi mardula ere honela titulatzen zuen: *Lexicón del euskara dialectal de Eibar (Arrate'tikuen izketia)*(1). Eta Toribio berak mamitu zuen *Ibiltarixanak* poema liburuak ere "Arrate-tikuen izketango alegiñak" daroa bigarren izenburuz(2), eta liburuaren lehen partean Testamentu zaharrean oinarritzen diren bertsu epikoetan "Arrate'tikuak" izeneko kapitulu bat sartzen du arrazoi honegatik(3). Horrez gainera, liburuaren barne aurkituko ditugu zenbait adibide. Esate baterako, 138 orrialdean:

*Orrela izan gendun,*
*ekiñik Arraten*
*Urkiko esparruraiñok*
*bizi ogia: jaten,*
*janzten obeto eta*
*gizonak izaten.*

Bertsu honen esan nahia, Arraten sortu eta Urkiko hesparruan bukatu, bizitzaren ibilia; Arratetik haurrak ekartzen direnez eta Urkin Eibarko hilerria dagoenez. *Ibiltarixanak* izeneko liburuaren barruan zehar, Toribio Etxebarriak maiz agertzen dizkigu honelako ideiak. Ikus 279. orrialdean ere Josafateko zelaiari egiten dizkion bertsuen hasiera ere:

*Ez-dakidan alakoren baten,*
*izango dot amaittu biarra,*
*asi neban ibilixa Arraten.*

Baina Arratetik sortutako eibartarrak Arratera doaz ezkontzeko lagun bila. Ohitura zaharra da senarra edo emaztea aurkitzeko Arrateko muinorik altuenean dagoen harrizko gurutzari Kredoa errezatuaz hiru buelta ematea. Ohitura hau kopla zaharretan jasotzen da, eta inoiz txoriren bat da mutilari neska eder baten berri emango diona, non aurkitu dezakeanaren berri emanez. Adibidez:

*Eperrak kantatzen dau Arrate gaiñian*
*eperrak kantatzen dau Arrate gaiñian*

neskarik ederrenak Zaldibar aldian
    ai!, Zaldibar aldian;
eperrak kantatzen dau Arrate gaiñian(4).

Honako kanta hau, beste era honetara ere azaltzen da:

*Zozuak kantatzen dau Arrate baillian*
*neskarik ederrena Eibarko kalian.*

Edo beste era honetara ere maiz erabilia da:

*Eperrak kantatzen dau Arrate partian*
*neskarik ederrena San Pedro aldian.*

Mutilak aurkitzeko adiarazpenak ere antzera agertzen dira kanta zaharretan, behar bada txoriak ez dira berri emaile baina neskek badakite Arratera jo behar dutela senargai bila, bertara ostera ez bai zen garestia:

*Altzola goiti dago, bai Mendaro baiño,*
*mutila merkeago, bai neskatxa baino,*
*Mutila nai duenak beretzat erosi,*
*Arrateko zelaian txanponean zortzi.*
*Onak baldin badira, eztira garesti;*
*txarrak baldin badira, probatu ta utzi.*
*Lau, bost, sei, sardiña-makaillero;*
*sei, zazpi, ez gabiltza gaizki(5).*

Latsurregik Arrateko Andra Mariari eskaini zizkion bertsu politetan ere gogoan izan zuen ezkon laguna topatzeko ohitura hau:

*Arrateko bidean*
*Azitain aldetik*
*arrizko gurutze bat*
*dago aintzinetik.*
*An Kredo bat, an Kredo bi,*
*nai dunak hamabi.*
*Laguna topatzeko*
*ez da gauza oberik*(6).

Hauetatik konturatuko da irakurlea zein berezia den Arrateko kantategi zaharra, jentil garaiko ernaltzeen aztarnak bertan aurkitzen ditugunez. Hontaz egina dudan ikerketaz beste lan batean arduratuko naiz, zeren bestela luzeegi joango nintzake eta gaitik ere irtengo nintzake (**). Gainera, Erroman Vesta zaintzen zuten bezala, Arrateko Amak ere dontzeilak zituen bere beharretan laguntzeko.
Gure mende honen lehen partean Eibarko Errebaleko komentuan egiten ziren apaintze zereginak. Hara nola adierazi zuen don Poli Larrañagak: "Irailaren 6a da. Goizean goiz, Errebal aurrean gurdi eder bat agertu da; bi bei ditu, bata beltza, txuria bestea, eta baserriko maiordomoak darama. Hamabi dontzeila gerturatu dira gurdira; txuriz eta guziak berdin ederki jantzita datoz. Konbentura igo ta konbentutik jetxi, Ama Birjinaren jantziak eta elizarako tresnak laster ipintzen dituzte gurdian. Azkenik, kutxa eder bat, eta honen barruan koroi, agurtza, eta balio haundiko gauzak". Errebaleko komenduan urte guzian gordetzen ziren gauzekin, guziak gurdiz, Arratera doaz, eta "Egun hartan hamabi dontzeilak garbitzen dute eliza, aldarak ere bai, Ama Birjina jantzi, eta guzia preztatu" (7). Biharamunean hasiko bai ziren Arrateko jaiak.

Arrateko jaiaren egun nagusian, irailaren 8an, Andra Mariaren irudiarekin egiten zen prozesioa, elizatik irten eta zelaian zehar harrizko guratzaraino. Gurutzaren aurrean jartzen zutenean, haurrak hiru aldiz igarotzen ziren imajinaren azpitik(8). Oraindik ere egiten da prozesio hau eta elizaratu ondorean Andra Mariaren azpitik igarotzeko ohitura gordetzen da. Lehen lehenago haur eriak edo makalak noiz nahi eramaten omen ziren Arratera, Amabirjinaren irudiaren azpitik igarotzeko(9).

Adibide hoiek kontuan izanik eta G. Mujikak Eibarko monografian(10) jasotzen dituen debekuak, XVII. mendetik XIXan barna, gizakumezkoek eta emakumezkoek Arrateko elizan elkar nahasian gaurik igaro ez zezaten, laster ohartuko gara jentil ohituren aztarnez. Behar bada Euskal Herriko beste zenbait Andra Mariren inguruan ere aurkituko dena, ondoko bertsu honek dionari kasu egiten baldin badiogu:

*Armailaetan altuan*
*Dago Birjiña Begoñakoa,*
*Ala beretan altuagoan*
*Birjiña Arratekua:*
*Birjiña orreitan ederrena*
*Birjiña Arantzazukoa.*
*Zazpi dontzeilak josten diote*
*Bere buruko belua:*
*Dontzeilak ere ederrak ziran,*
*Baiña belua ederragua...(11).*

Baina, arestian esan bezala, gaitik irtetzea denez, beste toki eta garai baterako uzten dugu hau. Kantak dion bezala, "altuagoan Birjiña Arratekua". Itsasoz goitik 530 metroan dago Arrate, laurehun metro azpitik Eibarko herria duela. Bertako Andra Mariaren irudia, XIVgarren mendearen lehen partekoa da, bere estiloz herri-arte gotikoa. Elizaren atze partea ere, arkitekturaz, gotiko eraz egina da. Erdi ingurutik aurre partea, ate aldera, pizkunde garaian gehitua. Elizaren agiririk zaharrena 1498koa da. Eta 1508rako bazen Eibarren Arrateko Amaren izeneko kofradia bat.

Arratek, bere inguru baditu zenbait kondaira ere, eta hoien arteko elizagintzarena. Ama Birjiña artzai bati agertu omen zitzaion, berari eliza bat jasotzea eskatuaz. Artzainak inguruetako baserritarrei aditzera eman omen zien, eta guzien artean erabakia hartu, eliza Azitainen egitea. Artzaina, ordea, Arraten egitearen aldekoa omen zen, baina gehienen nahira bihurtu zirenez, Azitainen ekin zioten eliza eraikitzeari. Guzien harridura, egunez lanerako erabiltzen zituzten tresnak gauez norbaitek Arratera eramaten zituenez. Sinesgabeenak ziren Zelai eta Pagoaga baserrikoen egintzaren susmoa hartu omen zuten. Hoien ezetzari beste honako erabagi hau eman zien, lanabesak guziak berriz jetxi lehengo lekura eta Zelaiko eta Pagoagakoa gauez zelatari utzi. Gauez, zelatariak zarata entzutean, batek ate-morroilo zulotik eta bestea zirrikitutik begira hasi zirenean, ile gorrizko neskatilla polit eta lirain bat ikusi omen zuten gurdi apain batera tresnak jasotzen; eta eskuan akuilua hartuaz eta beiei begiratuaz esan omen zuen:

*Aida, txuri ta belio;*
*zelataka dagoanari*
*begiak urten bekio;*
*berriz makurka dagoana,*
*oker gelditu beio.*

Eta odei argitsu baten gainean joan zen ididun gurdia, neskatila aingeruarekin. Pagoagakoa gelditu zen begi gabe eta Zelaikoa konkor; eta bi baserrietan mendeak zehar beren oinordekoak ere begi-bakar eta konkordunak izan omen dira(12).

Euskal Herrian oso zabaldua dago elizagintzan ari zirenei materialak beste toki batera aldatzearen

kondaira(13); Deba-arruan bertan beste zenbait Andra Marigatik esan ohi da(14). Ziortzan eta Ataunen jentilen eginkizuntzat jotzen da antzerako elizagintza(15).

Kanta eta ohitura hoien noiztikakoa jakitzea ezta gauza erraza. Kantategi zaharretikako zati batzuk, Aita Inazio Omaetxebarriaren ikerketari jaramon egiterik badugu(16), hamaseigarren mendera urbilduko ginake, Arantzazuko kantategiak ematen dituen aztarnak Arratekoarekin konparatuz. Bere ustez Arrate eta Arantzazu bai dira Bizkai-Gipuzkoetan folklore zaharrez kutsatuak. Antzina, arratsaldetan Salbearen otoitza omen zen Arrateko berezitasunetarik bat, bere kontseziozko nortasunarekin. Gainera, Elgoibarren eta Eibarko Isasin frantziskotarrak zituzten komentuetatik edo zabaldua, elkarrekin nahasturik aurkitzen ditugu honako bertsu hauetan:

*Aldatza igaro-ta*
*zelai landa baten,*
*an dago Jesukristo*
*mezia esaten.*

*San Pedro ta San Paulo*
*mezia erasoten,*
*amaika mila aingeru*
*koruan kantatzen.*

*Aita San Franziskua*
*organua joten,*
*amabi apostoluak*
*mezia entzuten.*

*Arraten altarea*
*erramuz jantzirik,*
*lirio züririk eta*
*lirio gorririk.*

*Aintxe kantaten dabe*
*Salbea ederki,*
*neu bere araxe noa*
*ikasi al benegi.*

*Gabean Salbea ta*
*goizean mezia;*
*Birjiña Arrateko*
*zeruko loria.*

Bestalde, A. Ormaetxeberriarentzat, Kalahorrako apezpikutegiko izan ziren lur hauetan, gipuzkeraren kutsua geroztikoagoa da, eta era berean "bertso berri" erakoak maizago. Hau hala izango da; ez dugu dudarik. Baina baita ere, esango nuke, lehenagoko kanta zaharrak eurak ere inoiz euskalkiz aldatu eta nahastu direla.

Dena dela, Arrateko kantategi zaharrekoak ditugu kopla eraz eta erromantze bezala kondaira adiarazpenezko haiek, sakabanaturik eta zatika aurkituak, gehienetan hasiera bezala "Arrateko zelaiko/bai floridadea..." dutenek. Herri kopla politak dira, bai hizkuntzaz eta bai egituraz. Nonbait, beren egituraz, bertsu baten bukaerako lerro berarekin hasten zen ondorengoa, bihurkia (*ritornelo*) eginez. Eta inoiz horrelakorik ez bada, seguru asko, tarteka bertsuak falta direlako edo formaren aldaketak izan dituztelako da.

Kanta zahar honen bildumarik ederrena eta osatuena Polikarpo Larrañaga zenak azaldu zuen 1923an, arestian aipatutako hitzaldi hartan, eta 1926an argitaratu zen Euskal-Esnaleako

"Itzaldiak" liburuxkaren 125/129 orrialdeetan.

Bilduna honen ildotik joango gara zenbait ohar itsatsiaz. Eibartarron oroitzapenetan Don Poli Larrañaga, edo Don Poli hutsik, zenak, bertsuez gainera kanta honen doinuak ere jaso zituen. Hauek ere zatikaturik. Doinuak, 1919ko urriaren 12an Aita Donostiari igorri zizkion. Bost doinu ziren, hiru kopla zaharrenak; eta hiru hoietarik zaharrenean (itxuraz, zaharrentzat jo genezakeana esan nahi dut) oinarriturik, A. Donostiak bere gisara eratu zuen eta 1921ean Zeruko Argia aldizkariaren 32. zenbakian argitaratu zuen. Bere *Obras Musicales* delako lanaren IV. tomoan dator "Andre Mari gozoa" izenez (17). A. Donostiaren artxiboa hain arduratsu zaintzen duen Aita Riezu adiskide minari esker lortu dut Don Polik bidali zuen esku-izkribua. Bost doinuak ber berak jaso zituen bezala, hobeto esan, bere eskuz dauden bezala, hemen ematen ditugu lehen aldiz. Aurretik dituen zenbakiak A. Donostiaren artxiboko erreferentziak dira eta zenbakien aurretik *C M* jartzen dizkie A. Jorge Riezu-koak, argitara gabeen "Cancionero Manuscrito" adiaraziz.

xxxxxxxxxxxxxx
......lugar donde hay que incluir el pentagrama en manuscrito
xxxxxxxxxxxxxxxxxxx

Bost doinuetatik *C M: 722* erreferentziadun hau, lehenbizikoa da, Aita Donostiak bere hori eratzeko hartu zuena. Ezagun da doinu zaharra dela, adibidez *C M. 1.064* daramanarekin konparaketa egiten baldin badugu. Dena dela, hor daude bost doinuok diren bezala. Eta ondotik emango ditugun bertsuak ere Don Poli berak jaso bezala.

*C M: 722*

*Arrateko zelaiko*
*bai floridadea;*
*andixek gora dago*
*zerura bidea*

*CM: 723*

*Aldatza igaro ta*
*zelai landa baten*
*Birjiña ta Semia*
*atsegin artutzen*(18)
*Lirio berdez jantzirik*
*dago Arraten altaria;*
*aintxen kantatzen dabe*
*ederki Salbia.*

*Zerura gura neuke,*
*zerura boladu,*
*aingeruak balidakez*
*eguak prestadu.*

*Eguak balirade*
*argizarizkuak,*
*urtuko lituzkela*
*eguzki beruak.(19)*

*Bai eta ausi bere*
*ipartxo senduak,*
*bai eta ausi bere*
*ipartxo senduak.*

*Zerura noa ni ta*
*nork nai du etorri?*

*Orain etorri jataz*
*iru mandatari.*

*Atzo etorri jataz*
*iru mandatari,*
*uso zuri eder bat*
*aingeru polit bi.*

*Uso zuri ederra*
*zeruan ze berri?*
*Zeruan berri onak*
*orain eta beti.*
*Zer dakazu bada*
*zeruko gauzarik?*
*Olibo adartxo bat*
*Birjiñak emanik(20).*

*Birjiñak emanik ta*
*noizko izentaturik?*
*Erramu egunerako*
*bai seiñalaturik.*

*Erramu urrin da ta*
*igar ez baledi,*
*ori igartzen bada*
*beste bat ekarri.*

*Zeruan asko dagoz*
*olibo adarrik,*
*olibo adarrik eta*
*lirio lorarik.*

*Lirio lorarik eta*
*Santu ta Santarik;*
*ez dala igartuko*
*zeruko gauzarik.*

*Aita San Pedro dago*
*zeruan giltzari.*
*Ai!, Jaunak egin banindu*
*giltzaren jabe ni.*

*Atiak ereteko*
*aita neuriari,*
*leenengo aitari ta*
*urrengo amari.*

*Andik eta aurrera*
*mundu guztiari,*
*andik eta aurrera*
*munduko guztiari.*

Lehen bertsu sail honetan irakurlea konturatuko da zenbait hutsunez. Bertsu batzuk ez dutela bihurkirik eta urrengo zatiren bat edo beste falta direla, elkar loturak falta direnez. Gainera, bi

bertsutan lehen eta bigarren bertsuak berdinak direla, nonbait puntu baten hutsunetik sortuak, nolabait bete beharrez. Otoi, inoiz zenbait herri kantaren klixeak ere hor aurkituko ditugu.

A. Omaetxebarriaren ustez, Arratek oso bere kantategikoa du "Arrateko zelaiko/bai floridadea;-/handixek gora dago/zerura bidea." Arratetik gora zerua besterik ez dagoenez, eta bertatiko gora nahiak hega egiteari eman beharra. Honetarako Kretatik Ikarok bezala, hegoak argizariz pegaturiko igo ahal izateko asmoak agertzen dira kantategian; edo aingeruari hegoak eskatuz.
Doinuz hain polita eta zaharra ez bada ere (*C M: 1.064* erreferentziaduna); Don Polik Arrateko Partxuaneko Tomasi jaso zion hura ere zaharretarikoa nonbait, bere letraren aldetik, eta Tomasek 1923an larogei urte beteak zituenez gero, joan zen mendearen erdialdean sortu zen gizon bategandikakoa dalako. Hara kanta zati hau.

*Arrateko zelaiko*
*bai floridadea;*
*andixek gora dago*
*zerura bidea.*

*Nere Ama Birjiña*
*Kontzeziñokoa,*
*arren, mobitu zazu*
*neroren gogua...*

*Zeruko jardin eder*
*loraren artian*
*egon bearko degu*
*egunen batian.*

*Noiz etorriko ote da*
*egun eder ari?*
*Bai, etorriko jaku*
*orduren batian*

*C M: 1.065* adiarazpena duen doinuak, honako bertsu hau daroa.

*Ama Birjiña Arratekua*
*arkaitz arteko loria,*
*aingeruakin astera noa*
*esaten Ave Maria.*

Irarragorri (gaur Iragorri deitzen dena) baserriko Jorjeri jasoa, eta honek 1879an hil zen bere amonagandik ikasia. Zaharrak izanik ere, ez dira "Arrateko zelaiko..." direlakoaren bezain zaharrak, ez gutiagorik ere.

Irarragorriko jaun berari jasoa da *C M: 1.066* adiarazpena duen soinua ere. Eta, hara bere bertsuak:

*Ama Birjiña Arratekua*
*pekatarien Ama,*
*zeruko lora ederrez*
*jantzirik zaudena;*
*graziak ematera*
*nator ni Zugana.*

*Guztiz peligro aundixan*

*bizi gerade emen,*
*guardatu gaizuz Ama,*
*zerurako, arren,*
*gero egon gaitezen*
*alkarrekin antxen.*

*Zure paraji au*
*prestatu zanian,*
*lau pausuan aguro*
*zeuk igo zenduan*

Ahozko literatura zaharrean era askotara sakabanaturik jasotzen dira "Arrateko zelaiko/bai florida-dea!" zatiak, elkarren antzeko baina ez beti berdinak. Salbearen otoitz kantaren oroitza dakarren hau argitaratu zuen Aita Omaetxebarriak aipatutako lan hartan:

*Birjiña Arrateko,*
*Zeruko lorea,*
*zuri ta enkarnada,*
*graziaz betea.*

*¡Arrateko zelaiko!*
*¡bai floridadea!*
*Antxe kantetan dabe*
*ederki Salbea.*

*Lirio loraz dago*
*Arraten altarea.*
*Andixek gora doa*
*zerura bidea.*

*Zerura gura neuke*
*zerura boladu,*
*aingeruak baleidakez*
*eguak prestadu.*

Antzerako asko bildu dira, baina bestelakorik ere bai. Adibidez, hara hemen Don Poli zenak Arratekotzak jaso zuen bat. Zortziko txikian dagoen honek zerranda batzuk falta ditu bertso guziak osatzeko.

*Orren jaiotza eder*
*mirariz betia,*
*dator zelebratzera,*
*Birjiña Maria,*
*erri askotatikan*
*jende txit noblia,*
*aldapa aundi oietan*
*arturik nekia.*

*Ea bada, Birjiña,*
*graziaz betia,*
*ez beza arren faltatu*
*berorren grazia,*
*bada zoro bezala*
*denpora guztia*
*eman degu ofenditzen*

*...............*
*...............*
*gure uts egitia*
*guztiz andiago da*
*miserikordia*
*onezaz betia*
*dudarikan ez degu*
*au alkanzatzia.*
*Norgana juango gera*
*Birjiña amandria*
*ofenditu ezkero*
*berorren Semia?*

*Orregana ezpada*
*ba da jabia*
*ta Zu pekatarian*
*Ama txit maitia.*

Holako kantekin igotzen omen ziren Arratera, asko oinutsik eta banakaren bat oinutsik eta lepoan arantzak zituztela. Hemen, azken bertsuan, inoiz gure jentil oroitzetan erabilia den "Ilargi amandria"ren antzerako agertzen zaigu, irudimenaren apain horniduraz.(21)

Arrateko kantategiak dituen ederrenetakoak ditugu ahoz aho etorri zaizkigun herri literaturako kopla hoiek. Nire iduriz, gure mende honen hasiera ingurutik baztertuaz etorri ziren kanta jator hoiek. Beste joera batzuk agertu ziren eta hizkuntzaren hitz txukuntasunaren beharrak ere galtzera lagundu zituen. Adibidez, nere artikulu batean agertzen nuen bezala(22), ikusi besterik ez dugu 1929an E. Urrozek argitaratu zuen liburuaren eraskinean zelako kantak agertzen diren.

E. Urrozen liburuko kantak(23), hauek dira: "Agur ene Ama", 1913ko martxoaren 3an Ama Birjina Eibarrera jetxi zutenean kantatua; "Guazen Arratera", urte berean berriz gora eramaten kantatua; "Ama Birjiña Arratekoa", lehenagoko "Ama Birjiña Arratekua/pekatarien ama" kanta hartatik konpondua; eta "Eibar'ko Zaindariari bere buruntzialdian", 1929an egina.

1936an Latsurregik eskainitako bertsoak oso politak dira(24); bestela ere bertsolarien kantarik ez du falta, eta hauen arteko dugu Basarri bera ere (25); baina azken urteetako kantarik politena "Eibar'ko zaindaria" izenez 1959an M. Lekuonak egina Almandozen muzikaz. Baina hoiek literatura idatziaren sailean sartzen dira.

Literatura idatziaren kantak ere ez zaizkigu falta, herri kanta haiek bezain politak ez badira ere, oso aspaldikoak ditugu. Hauetarik zaharrenak Don Poli Larrañagak Mendigoitti baserrian aurkitu zituenak dira, inprimategi urtea 1710ekoa dutenek(26). Lehen aldiz agertzen zaigu Arriarte, Arrateren ordez. Behar bada ordutik zabaldu zen gero ezagutu dugun uste hura, Birjina harriartean agertu zela. Dena dela, bertsu hauek dauden daudenean argitaratzea merezi dute, P. Larrañagak eman zituen bezala:

COPLAS A M.ª SSMA. DE ARRIARTE
Año de 1710

*Oi au egunaren alegria*
*sortu zana Eibar'ko lurrian*
*Irailaren zortzigarrenian,*
*Birjiña arkitu zebanian*
*pastore pobre batek mendian*
*ta Arriartian, Arriartian,*

*jarririkan,*
*Arriartian, Arriartian,*
*jetxirik zerutik*
*beti izateko, beti izateko,*
*gure artian, gure artian.*

**Emen, emen, emen da arkitzen**
**Birjiña txit eder bat Arriarte baten.**
**Señora zertan dago jesarririk emen**
**pekatari tristiak bilabanengiye.**

*Atozte Arrate'ra jentia*
*aldapan bada ere nekia*
*adoratzen birjiña santia.*
*Izanik bada au gure jabia*
*emango digu bere grazia*
*bai alkantzatzeko, alkantzatzeko,*
*zerutikan*
*alkantzatzeko, alkantzatzeko*
*biar degun guztia,*
*baldin bagatoz, baldin bagatoz,*
*umildadiaz, umildadiaz.*

**Emen, emen, emen da arkitzen...**

*Nekez eltzen bagera ere ona*
*aldapa andi oietan gora,*
*emen arkitzen degu Ama ona*
*gure jabetzat etorri zana*
*ezin geiagoko zoriona*
*da Jesus'en ama Jesus'en ama.*

Ortografia don Poli Larrañagak ikutua da, eta hitzik aldatu zuenik ez dakigu. Azken gerratean Eibarren gauza guti salbatu ziren, eta erre zirenen arteko Larrañagaren etxea eta parrokiako artxiboak. Honegatik ez dugu izan kanta paper zahar hoiek bilatzerik. Mendigoitti baserri berean beste bi paper inprimatu ere aurkitu zituen, 1784 eta 1785, urteetan inprimatuak(27). Lehenengoan agerkundez ari da eta bigarrenean toki adiaraziz eta erromeseri buruz.

CANCION DE NUESTRA SEÑORA DE ARRIARTE
Año de 1784

*Median izateko zeruba bezela*
*Jesus'ek esan suben beria zubela,*
*Amari esanikan arren zetorrela*
*Arri arte batetik Eibar gordetzera.*

**Zorioneko arriartia, zorioneko mendia,**
**zorionian degu onera etortzia.**

*Apenas esan zion Birjiña Amari*
*etorri bear zubela mundukuegatik,*
*erantzun bide zion biotza idikirit:*
*"Guazen Seme maitia, mendira bertatik"*

**Zorioneko arriartia, zorioneko mendia,**

**zorionian degu onera etortzia.**

*Ea bada Señora Arriartekua*
*eman biar diguzu betiko gogua*
*onera etortzeko...*
*..................*
*magal zabal orretan bizi oi gazala.*

**Zorioneko arriartia, zorioneko mendia,**
**zorionian degu onera etortzia.**

VERSOS A LA NATIVIDAD DE NUESTRA SEÑORA DE ARRATE
Año de 1785

*Zelai zabal-zabal ermita eder Eibar'koan*
*nork kantatu alegere ezta faltatzen koruban.*
*Ai mendi alegere*
*zorionekua,*
*Jesus'ek Amarekin*
*beretzat egiña,*
*zenian jarririkan*
*arrien artian*
*agertu izan ziran*
*Eibar'ko lurrian.*

*Ematen badítugu*
*neke-izerdiak,*
*aldapa gogorretan*
*ondo penatuak,*
*orregatikan ere*
*gora eldu ezkero*
*konsolatzen gerade*
*zelai zabalian.*

*Konfesatuko degu*
*Señora guria*
*ezin ukaturikan*
*guziok egia,*
*Adan'en pekatuba*
*mantxatu gabia,*
*Amaren sabelian*
*sortu ziniana*

*Jaungoikuaren Ama*
*zu izatekotzat*
*eskojitu zinduzan*
*Aita eternoak;*
*frutu bedeinkatuba*
*zure sabelian*
*Jesus gure maitia*
*sortuba izan zan.*

*Marinel fraka-luze*
*Arrate-zaliak*
*emen etorri dira*

*ontziak zeresat*
*itxaso zabalian*
*balegoz bezela*
*ermitan paratzeko*
*bere pozgarritzat.*

*Obligaturik bada*
*guztiok batetan*
*eskatu biar degu*
*biotz guztitikan,*
*Amak alde batetik,*
*Semiak bestetik,*
*libratu daiezala*
*tormentu guztitik.*

Batek. *Zelai zabal-zabalian, ermita eder Eibar'koan.*
Guziok. *Bai ta bai bai ta bai, bai baita bai.*
Batek. *Nork kantatu alegere ez da faltatzen koruban.*
Guziok. *Nork kantatu alegere, ez da faltatzen koruban.*
Batek. *Bai.*
*Guziok.* Bai ta bai.
Batek. *Bai*
Guziok. *Bai ta bai; ez da faltatzen koruban.*

P. Larrañagak zionez, ez zituela inoiz entzun, baina idatzitako erak kantatzeko zirela iduri dutela. Ez dago dudarik hala dela, zeren 1959ko urriaren 28an, Eibarren kanta zahar biltzen ari nintzela, Visitación Iñarrairaegi andereari jaso nion kanta honen zatitxo bat, zerbait aldatuaz. Andere hau, ahaideko egiten zaidana, 1886an jaio zen Eibarren bertan eta orainago hila da. Hara beragandiko zatitxoa:

*Zelai zabal batian*
*ermita eder Eibarkoa,*
*Jesusek Amarekin*
*beretzat egiña.*
*Zenian jarri eta*
*harrien artian*
*agertu izan ziren*
*Eibarko lurrian.*

Kanta paperaren azken aurreko bertsuan, marinel fraka-luzeak datoz erromes, "ontziak zeresat" (*zeuretzat*, noski) "ermitan paratzeko". Elizaren erdian, sabaitik zintzilizka itsasontzi handi bat gordetzen bai da gure egunok arte, eta Arraten bertan haurrak galdetzen dutelarik ia umeak non dauden, itsaontziaren barnean gordeak edukitzen direla, hark itsasotik ekarriak.

Kantategi hau aspaldiko erromes ohituraren agiri bizia dugu, kanten bizkai-gipuzkerazko hizkera motak inoiz berezirik eta urrengo nahasturik dituzte eta hau berau ere erromes zabalkundearen agiria dugu.

* * *

**RESUMEN**

El cancionero popular de Arrate es buena muestra de la expansión que antaño tuvo el culto a la Virgen y revela la importancia que alcanzaron en el país las romerías marianas. El padre

Donostia, don Policarpo Larrañaga, y más recientemente el padre Omaechevarría, dedicaron algunos estudios sobre el tema. Y el presente trabajo pretende agrupar y ampliar los fragmentos desperdigados de los textos escritos y de la transmisión oral, con la confianza de que esta recopilación constituya una aportación para los conocimientos de la literatura popular y sobre las creencias del pasado.
El Santuario de Arrate, rico en tradiciones, cuenta en su haber con una serie no menos rica de peculiaridades folklóricas, de las que algunas se reflejan en el cancionero. A estas peculiaridades espero dedicar un trabajo aparte, que en cierto modo su primera fase es el presente compendio del cancionero.(***)

Como en otras partes la cigüeña, según creencia en Eibar y Elgoibar, las criaturas se traen de Arrate. Por esta razón Toribio Echevarría empleó en sus escritos en vascuence: "Arratetiko bat", un procedente de Arrate. Pero además, siguiendo a las viejas creencias, es menester acudir a Arrate y dar tres vueltas a la cruz de piedra que se halla en lo más álto del cerro en petición de cónyuge. He aquí que la vida empieza en Arrate, y esta tradición aparece en el cancionero. Reminiscencias paganas precristianas, sin duda. A las que tal vez habría que añadir lo de los cuidados que recibía la imagen de la Virgen por parte de doce doncellas encargadas éstas de vestir y adecentar con ornamentos para el día de la gran fiesta de Arrate, y que recuerdan las vestales romanas.

Arrate se ubica sobre Eibar a 530 metros s.n.m., y conserva una bonita talla de la Virgen María con el Niño, en madera policromada (fue restaurada a primeros de nuestro siglo por el escultor eibarrés Carlos Elguezua, con la cooperación del restaurador Juan Martorell), es de estilo gótico-popular de primeros del siglo XIV. La planta arquitectónica del templo, la mitad posterior con su ábside poligonal, es también de estilo gótico, y, la parte anterior, con la bóveda de madera inclusive, es renacentista. La primera noticia escrita del templo se remonta al año 1498.

Cuenta la leyenda que, al aparecer en contra de la voluntad de la Virgen, eligieron Azitain como emplazamiento para construir el templo, pero la Andra Mari se oponía, transportando de noche los materiales allí depositados a Arrate, lugar de la aparición. Una estrofa describe el castigo dado a los guardianes puestos para impedir el traslado.

Las piezas más antiguas y jugosas, las más poéticas del cancionero, son aquellas coplas arromanzadas que se han conservado por vía oral y que comienzan por "Arrateko zelaiko/bai floridadea...". Según Omaechevarría, pueden remontarse al siglo XVI. Se han encontrado numerosas variantes de letra y hasta cinco melodías musicales. Estas melodías fueron enviadas por el presbítero Larrañaga al padre Donostia en 1919, y he logrado obtener copias del manuscrito, gracias a la gentileza de mi entrañable amigo el padre Jorge de Riezu, y que ahora se publican por vez primera. Llevan como referencia de dicho archivo, *Cancionero Manuscrito:* 722, 723, 1.064, 1.065 y 1.066. Además de otras melodías de Arrate, cuyas letras pertenecen a otro grupo y que figuran en el texto.

Finalmente, tras mencionar algunas composiciones de canciones relativamente modernas, se transcriben tres canciones del siglo XVIII, que fueron impresas en los años 1710, 1784 y 1785. En su contenido temático se hacen alusiones al lugar, a la aparición y a las romerías.

Si bien es verdad que las canciones más antíguas son más ingenuas por sus procedencias populares, hemos de reconocer que al mismo tiempo conservan un encanto poético difícil de superar por composiciones más cultas, en lo que se refiere al cancionero de Arrate.

(*)= Este trabajo fue publicado en el volumen *Homenaje a Odon de Apraiz - Odon Apraizi omenaldia*, por la Diputación Foral de Alava, año 1981, pp. 335-352
(**) Hor aipatzen dudan iker lana, ondoko kapituloan dator "Arraten sortzen da bizitza" izenburuz.
(***)El trabajo prometido, un ensayo de investigación etnológica, publiqué en el volumen

homenaje a Pierre Lafitte, y es el que ahora presento en el capítulo contiguo.
(1) *Euskera*, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak, X-XI. Bilbao, 1965-1966. Reeditado por el Ayuntamiento de Eibar en 1987.
(2) T. Etxebarria, *Ibiltarixanak*. Itxaropena argitaldaria. Zarautz, 1967
(3) T. E., *Ibiltarixanak*. 46/51 orr.
(4) Amatiño, "Eperrak kantatzen dau...", *Hoja del Lunes de San Sebastian,* 1972-V-2, 3 orr.
(5) R. M. Azkue *Cancionero popular vasco*, t. I, 288 orr., 199 kanta. Eta Iñazio Omaetxebarria, *Del Flolklóre Vasco - Sobre el poema viejo de Arrate*, rev. Eibar, nº 61, 7 orr., 1963.
(6) Latsurregi'tar Peli, "Arrate'ko Ama'ri", *Argiaren Egutegia*, 1936, 55 orr.
(7) Larrañaga'tar P., *Arrate.* 1923. urteko azaroaren 25ean eta abenduaren 2an irakurritako hitzaldiak, *Euskal-Esnaleak* "Itzaldiak"ren laugarren sailean argitaratua, 1926an; ikus 119/120 orr.
(8) J. M. de Barandiarán, *Obras completas.* Bilbao, 1973, tomo II, 224.
(9) Barandiaranen obra eta orrialde berean.
(10) G. de Mújica, *Monografía Histórica de la villa de Eibar*. Irún, 1910. 170/172 orr.
(11( R. P. José A. Lizarralde, *Ensayo iconográfico legendario e histórico. Andra Mari, reseña histórica del culto a la Virgen santísima en la provincia de Vizcaya*. Bilbao, 1934. 89 orr. A. I. Omae-txebarria, *Del Folklore vasco. Sobre el poema viejo de Arrate.* Rev. "Eibar", nº 61. 7 orr. 1963
(12) P. Larrañaga, *Arrate*, "Itzaldiak" 1926. 86/89 orr. Eta E. Urroz, *Historial de la Virgen de Arrate*. Eibar, 1929. 25/26 orr. Geroago, Ibargutxik, "Argia'ren Egutegia, 1936" alearen 47. orrialdean argitaratu zuen, dibujo ta guzti, Txiki-ren ikus-moldez.
(13) J. M. Barandiaran, *Obras completas*, Bilbao, 1972. I tomoaren 28/20 orr.
(14) J. San Martin, *Elgueta, con Anguiozar y Ubera*. Donostia, 1975, 76/77 orr. eta 122/123 orr. S. Mitxelenak, *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* liburuaren 50/52 orrialdeetan beste era batera konta-tzen du, antzerako argudioa izanarren. Aránzazu, Oñate, 1951.
(15) J. M. Barandiaran, *Obras completas*, Bilbao, 1973. II tomoaren 165/187 orr.
(16) Aita I. Omaetxebarria, *Del Folklóre vasco. Sobre el poema viejo de Arrate*. Revista "Eibar", nº 61 (agosto-septiembre de 1963), 7 orr.
(17) P. Donostia, *Obras Musicales*, IV tomo, *Marial* (1966), "Andre Mari gozoa" 72 orr., eta 40.ean doinua. Ikus liburu berean 155. orr. dakarren oharra.
(18) Duela hamazortzi edo hogei urte, Dolores Agirre eibartarrari (Asporosa-ren andrea) jaso nion zatian, azken lerroa beste era batera zen. Hau da: "Birjiña ta Semia/dira han aurkitzen.
(19) Bertsu honetan, Don Polik "balituzkez" eta "eguzki klaruak" jartzen zuen eta A. Omaetxebarriak dakarren "balirade" eta "eguzki beruak" hauatu dugu, hobeto iduritzen zaigulako.
(20) Hemen, Aita Ometxebarriak bildua "Usoa, zer dakarzu"kin hasten da, eta Don Polik "olibi" jartzen duenaren ordez "olibo" dakar. Guk, bai hemen eta bai beste zenbait pundutan, biekin baliaturik ikutu bat edo beste egiten diogu, baina beti Don Poliren bilduma nagusian oinarriturik.
(21) J. M. de Barandiarán, *Obras completas*, I, 103 orr. Hor dator illargi amandrearen aipamena, Horrez gainera, orrialde berean, Eibarko sineskeria jasotzen du, darabigun gaiarekin zer ikusirik duena: hilgoran haurdun gelditzen diren emakumezkoak mutila izaten dutela, eta hilbeherakoak neska.
(22). "Arrateko kanta zaharrak", Donostiako *Hoja del lunes*-ean, 1974ko irailaren 2an, eta *Gogoz* liburuaren 79-82 orrialdeetan. Donostia, 1978.
(23) E. Urroz. *Historial de la Virgen de Arrate*. Eibar, 1929. 93/94 orr.
(24) Latsurregi. "Arrate'ko Ama'ri. Argiaren Egutegia - 1936. 55 orr. Eta zenbaki berean dakar Igargutxiren "Aida txuri ta belio", 47/48 orrialdeetan.
(25) Basarri, *Kantari nator*. Zaraitz. 1960. 11/13 orr. Lau puntuko zortziko nagusian "Arrate'ko Ama'ri", 1954an egina.
(26) Larrañaga, *Arrate*. Euskal Esnalea, "Itzaldiak", 1926. 121 orr.
(27) Larrañaga. Aipatutako lanean 131/134 orr.

**ARRATEN SORTZEN DA BIZITZA (*)**

**Sarrera**

"Euskal-ipuietan jainko-manera zerbait duen izaite bakarra da mendietako Mari, orroi-harriek ezagu-tzen ez dutena. Haren izena hamalaugarren mendean baizik ez da irakurtzen lehen aldikotz. Arkaitz bazterretan, hedoien artetik, harpe-ziloetan gaindi, ez da ezagut-errexa, zazpi itxura bederen hartzen dituela. Bainan zuzenari atxikia da, manamenduak egin ditu gizonen onetan, gaizkia gaztikatzen du, ongia saristatzen mundu huntan berean, opariak zor zaizkio, haren delako "ez-ari emaitea" latinez izenda ginezake *justitia immanens compensatoria*... Badakite zonbait pondutan, izen bera zutelakotz, Andredena Maria eta biak ahaidetu dituzten..." (P. Lafitte, "Erlisione paganoak eskualde hauietan", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra,* núm. 14, págs. 121-132. Pamplona, 1973).

Mari, Elgoibarren ibili zen *ezaren bila*(1). Arratekik ez hain urruti. Mari, nonbait, era askotara nahasten da euskal mitolojian, bere zazpi era edo zazpi aurpegi ezagunekin, J. M. Barandiaran berak ere adierazia duenez(2). Bestalde, euskal mitolojiako Mari maiz nahastu da Andradena Mariaren izenarekin: "Izen oni darraizkion izen-ondokoak, erriak numen ortaz zedukan aburua erakusten digute, *Andre Mari* izenak, Amabirjiñari ematen zaion izen berbera ain zuzen, argi asko erakusten digu zer nolako andi ta gurentzat zedukaten Mari euskaldunak", esango digu Barandia-ran berberak(3).

Arrateko Andra Mariaren inguruan biltzen diren sineskerak, zazpi itxura horietakoren batean sartzen ez badira ere, zalantzarik gabe, paganoak dira jatorriz eta orrialde hauetan biltzera noa erligio paganoz eta euskal mitologiaz hainbeste lan burutu duen Piarres Lafitte jaunaren ohorez eta gure arbasoen sineskera ezagugarriz.

Eibar eta Elgoibar inguruetan Arraten sortzen da bizitza. Ezkongaia behar duenak hara jotzen zuen Arrate gainean dagoen harrizko gurutzari kredoa edo salbea otoitz eginaz hiru buelta ematera; haurrak, beste tokietan zikoinak edo Paris-tik bezala, Eibar eta Elgoibarrera Arratetik ekartzen ziren; haurrik eri zenean, Arratera eroan behar zen Andra Mariaren kapapetik hiru aldiz pasatzera eta Arrate egunean (Arrateko jaietan) Eibarko andrak beren umeak besoetan harturik hiru aldiz igarotzen ziren Amabirjinaren kapapetik. Ohiturarik gehienok oraindik bizirik daude.

Hirutasun horren sinbolojian bada besterik ere. Kondairan azaltzen denez, Andra Mari Arraten agertu zenean, eliza eraiki nahi zuten, baina Arrate gaineko zelai hura urruti eta toki altuan zenez, herritik hurbilago izateko Azitainen hasi ziren elizagintzan eta gauaz, Amabirjina gurdiz eta aingeru itxuraz agertuz, hango materialak Arratera jasotzen omen zituen, hiru pausotan. Eta, azkenik, bere borondateari jarraituz, Arraten eraiki zen eliza eta hiru ermitatxo *Pauso* lekuetan.

Baina, euskal mitolojian beste inon baino nabarmenago agertzen dena, eta zenbait gauza beste inon agertzen ez direnak: bizitzaren sorkundezkoak dira.

**Historia eta gotiko aztarnak.**

Elizak, bere jaietan, VI. mendetik ospatzen du Mariaren birjinatasuna eta amatasuna(4). Sortzez garbiaren ospakizuna ordea, San Veremundok ekarri omen zuen Britainia Handitik Nafarroara, 1090. urtean Iratxeko monastegira sartuaz eta hortik egin omen zen bere deboziozko zabalkundea(5).

1498. urtean aipatzen da lehen aldiz *Nuestra Señora de Arrate*, agiri zaharretan. Eibarko herria batzarturik, biztanleek beren etxeetarako behar zuten egurraren banaketa bertako usa edo herribasoetatik hautaketak egitean(6). Beraz, 1498. urtea baino lehenagokoa dugu Arrateko Andra Mariaren eliza. Polikarpo Larrañaga jaunak bere hitzaldietan zionez, Jesus Haurraren irudiak zintzilik zuen urrezko kate batetik pitxi edo kuttun baten barnean *1430 año* aurkitu zuela(7). Gaur ordea, ez dugu pitxi horren berririk. Hala balitz, XV. mendearen lehen partean jarri beharko dira Andra Mariaren agiririk zaharrenak; irudia bera, estiloz zaharragoa bada ere.

Antzinakoa zen Eibarko hirian bertan Arrate zeritzan ospitalea ere. Horri buruzko erabakiak hartu zituzten San Andres parrokiko burugoaren eta patronatoaren artean, 1595ean, 1508. urteko ordenantza zaharrak berritzean(8).
Geroztik, berri ugariak eta zehatzagoak ditugu. Bereziki Pio IV.ak 1563. urtean *Breve* deritzan agiri hura eman zuenetik(9).

Arrateko Andra Mariaren irudia bera, gotikoa da. Behar bada XIV. mendearen hastapenetakoa, Fr. Jose Adriano Lizarralde zenaren ikerketa eta eritzieri jaramon egiten badiogu(10). Arrateko elizaren burualdea bera, arkitekturaz, bere solairu poligonala kantoi bakoitzean ostikoz indartutako hormekin eraikia, gotiko itxura du, atari alderako partea geroago luzatutakoa bada ere. Zalantzarik gabe, 1498. urtean aipatzen zen eliza da bere parterik zaharrena den hori.

Eliza handitzea XVI. mendearen azken partean egin baizen, eibartar dirudunen laguntzaz, bereziki Elexalde jaunak Flandesetan Espainiako gudarosteen kontaduria eramaten zuenak 1577an emana zuen diru-laguntzaz(11). Elizaren handitze lanak Martin Garmendiak hartu zituen kontratuz eta barneko hormak irudiz pintatzea Gaspar Narria mondragoar pintatzailearengan gelditu zen. Beraz, bi parte horietan oinarritzen da elizaren egitura, lehenik XV. menderako eraikia zena, oraingo elizburu aldea bera, eta XVI.aren azken partetik XVII.aren lehenengorakoa, Pizkunde garaiko estiloz egina.

Sortzez garbia (*Purísima concepción*) dela titulua *Breve*-aren bidez hartu zuen, 1563. urtean, eta Erdi-Aroko Andra Marietarik lehena da Euskal Herrian izendapen horrekin jabetzen zena.

**Kondaira**

Artzai batek aurkitu zuen Arraten Andra Mariren irudia, kondairak dionez; eta Azitainera jaitsi omen zuten, Eibartik hurbilago edukitzeko. Azitainen hasi ziren eliza eraikitzeko asmoz harriak biltzen, baina gauaz, elizagintzarako harriok norbaitek garraiatzen omen zituen Arrate gainera. Zaintzaileak jarri zituzten gauaz. Eta, zelatan zeudela, bei zuri eta belzdun gurdi bat agertu omen zen, aingeru itxurako neska eder bat bere gainean zela, eta harriak kargatuz esan omen zuen:

*Aida, txuri ta belio;*
*zelataka dagoanari*
*begiak urten bekio;*
*berriz makurka dagoana,*
*oker gelditu beio.*

Eta odei argitsu batek harturik eroan omen zituen gurdia eta beiak aingeru itxurako neskatila lirain zoragarriarekin. Zelatari ziren Pagoaga eta Zelai baserriko mutilak, bata begibakar eta bestea lepoker gelditu omen ziren eta arrezkero bi baserriotan begibakar eta lepokerrak jaiotzen omen dira (12).

Kondaira hori Euskal Herrian oso zabaldua dago, "Arrateko kantategia" deritzan lanean aipatzen nuen bezala(13). Ataunen eta Ziortzan J. M. Barandiaranek jasoa duenez, Jentileri eransten zaion kondaira berbera eta Arradoyn Mari zen menditik harri handiak gaztelugintzarako eramaten zituena.
Arrateko honen lehen berriak M. Martinez Aguirrek eman zituen *Euskal Erria* aldizkarian, 1884. urtean(14).

Azitaindik Arratera, Amabirjina, hiru pausotan igotzen omen zen(15). Norbaiti entzuna diot beieri edo idieri aldatz gorako nekean eman zioten atsedenaldien tokiak direla. Dena dela, hiru pausaldi daude Azitaindik Arratera bidean gora, hiru ermitatxo edo kafera tipi (erdaraz *humilladero* deritzen zaien horietakoak), kaltzada zaharraren ondoan, *pausoen* oroiz eta erromesak otoitz egin

dezaten.

Hiru *pauso* horiek ba ote dute ezer ikustekorik Eibarren bertan zaharregandik jasoa nuen jentil kondairarekin? Karakate gailurrean, anka bat, Illordon bestea eta Arraten eskuak ipinita Maltzagan ura edaten zutela. Baina, horrez gainera, Maltzaga gainekaldean, Karakateren hegian kokaturik dagoen Iturbe-barri baserriko agure zaharrak zionez, jentilak hiru pausotan igotzen ziren Arratera. Elgoibarko zaharrentzat, Sanson jentil gizonak, belaun bat Karakaten, bestea Arraten ipinita, Maltzagako zuloan Deba ibaian ura edaten zuela. Egiten zuen zurruztadarekin ibaia agortzen zela eta elgoibartarrak une horiek aprobetxatzen zituztela urpeko lurrazalean saltoka agertzen ziren arrainak hartzeko (16).

Antzerako kondaira, Astigarribiako Benta baserriko Joakin Eizagirreri jaso nion aspaldi. Jentilak, Arno gailurrean anka bat eta bestea Xoxoten (Izarraitz mendiko Garailuz) ipinita ibaian ura edaten hasi eta Benta baserriko txanela irentsi zuela; lehenagoko zaharrak ziotenez.

Baina bada besterik ere herriak kristautasunekoa antzinagoko mitologiarekin nahasturik erabiltzen duena, eta horren adibide bat baizik ezta zeruko berri ematearena. Bestalde, zeruko berri ematea bera eguzkia gurtzearekin ere nahasten da. Adibidez:

*-Illargi amandrea,*
*Zeruan zer berri?*
*-Zeruan berri onak*
*orain eta beti.*

Eta, Arrateko kantategian bada era hortako bertso bat:

*-Uso zuri ederra,*
*zeruan ze berri?*
*-Zeruan berri onak*
*orain eta beti.*

Gai hortaz, J. M. Barandiaranek jasoaz gainera, ikus eguzkia gurtzeaz egin nuen bilketa eta eritzia, herri kantetan irudiak nahastearen adibidez(17).

Gurdiz aidean harriak Azitaindik Arratera eroatea bera ere mitolojiako Mariren ekintzetan agertzen zaigu. Amezketan bildua denaren arabera(18). Bestalde, baita ere, Eibarko zaharren ustez, Amabirjiñak zazpi aizpa dira eta horietako bat da Arrateko Andra Maria. Eta, horrek, arestian aipatutako zazpi itxurekin badu zer ikusirik(19).

**Ezkongaiaren bila**

Eibartarrontzat ez ezik inguruko herrietakoentzat ere, ezkongaia aurkitzeko, Arrate gailurrean eraikirik aurkitzen den harrizko gurutzari hiru buelta eman behar zaizkio (**). Latsurregik bere bertso batean jartzen zuenez, kredoa otoitz eginaz. Baina, Polikarpo Larrañagak salbe otoitzez zion bere hitzaldi haietan(20).

Dena dela, oraindik ere bizirik irauntzen du ohitura horrek. Otoitzez edo nahiz otoitzik gabe, baina erreguz, nonbait eskaria bera da garrantzizkoena. Mutilak gogozko neskaren baten eskean eta neskak, alderantziz, gogozko mutilen baten eskean. Latsurregik bere bertsoan zion bezala:

*Arrateko bidean*
*Azitain aldetik*
*harrizko gurutze bat*
*dago aintzinetik.*

*Han Kredo bat, han Kredo bi,*
*nahi dunak hamabi.*
*Laguna topatzeko*
*ez da gauza hoberik(21)*

Gurutzaren biran ematen diren hiru buelta horiek, hiru dibinitateen sinbologiaren oroimena dakarte. Gurutzari hiru buelta, Arratera hiru *pauso* eta aurrerago aipatuko ditudan hirukoiztasun horiek badute elkarren artean magiazko zer ikusirik. Orain, gazte askok nahasten dute hirukoiztasun hori, zeren antzinatik, harrizko gurutzak bere biran zituen harrizko hiru harmailen arabera egiten bai zen, baina 1941eko haizetzak bota zuen gurutza eta berriz eraikitzean, altura gehiago eman nahirik, ormigoizko bost harmaila jarri zizkioten eta ordutik lau eta bost buelta ere ematen zaizkio. Guru-tza, 1652. urtetik hor dago, baina 1839 zizelaturik duenez, lehenago ere berritzeren bat izan zuen nonbait. Ohitura, esan ohi bezala, Polikarpo Larrañaga berak jaso zuen: "...bere inguruan iru aldiz ibilli ezkero bakoitzian Salve erresatuaz, ezkongei aukerakua azaltzen dala".(22)
Behar bada kopla zaharretako adibideak badute gurutzari bueltak ematearekin zer ikusirik. Kanta horietan agertzen denez, zozoa edo eperra izaten bai da Arraten neskarik ederrena non den kantaren bidez azalduz:

*Eperrak kantatzen dau Arrate gaiñian*
*neskarik ederrenak Zaldibar aldian.*

*Zozuak kantatzen dau Arrate baillian*
*neskarik ederrena Eibarko kalian.*

*Eperrak kantatzen dau Arrate partian*
*neskarik ederrena San Pedro aldian(23).*

Arrateko jaietan pandero jotzaileen edo trikitilarien ahoetatik ez ezik erromeriatik aparte ere nonnahi eta noiznahi entzuten dira holako koplak. Xori bat berri emaile izate horrek ere badu bere antzinatasuna. Eibarren, zerbait dakigula adierazteko, albistariaren izenik zalatu gabe, edo zala-t-zailearen izenik eman gabe, "Txori-txiki batek esan deusta..." erabiltzen dugu. Zoriona ekartzea ere, xoriak berri ona ekartzea da bere etimologiaz. Behar bada, bere jatorrian egualdiari loturik erabiliko zen, noski, baina gero beste erabilera bat hartuz hedatua da Euskal Herri guzira.

Baina Arrateko gaiari kokatuz, "Arrateko kantategian" jaso nuen bezala, neskak aurkitzeko ez ezik mutilak aurkitzeko ohiturak ere aipatzen dira kanta zaharretan. Azkuek jaso zuen kanta batean hara nola adierazten den:

*Altzola goiti dago, bai Mendaro baiño*
*mutila merkeago, bai neskatxa baiño.*
*Mutila nahi duenak beretzat erosi,*
*Arrateko zelaian txanponean zortzi.*
*Onak baldin badira, eztira garesti;*
*txarrak baldin badira, probatu ta utzi.*
*Lau, bost, sei, sardiña-makaillero;*
*sei, zazpi, ez gabiltza gaizki. (24)*

Antzina, 1563. urtera arte, abenduaren 8an ospatzen zen Arrateko jaia, Sortzez garbiaren egunez; baina, tokia altua izaki, eta garai hortan gain hura hotza zenez eta inoiz elurra ere agertzen zenez, herriaren eskariz Pio IV.ak eman zuen *Breve* delako agiriaren bidez Arrateko jaia irailaren 8ra aldatzeko baimena. Garai haietako jaien berri zehatzik ez badugu ere, azken mendeetan (XVII.etik XIX.era bitartean jarriko nuke) zortzi egunez ospatzen ziren Arrateko jaiak. Baina, mende hontan ez da ezagutu horrelako iraupenik.

Gure mende honen lehen partean P. Larrañaga zenak jaso zituen bere garaiko ohiturak. Xehetasunez jaso ere. Bere adierazpena jarraituz, honako hau agertzen zaigu (gure egunotan ohi ez dena): Irailaren 6an, goizean goiz, gurdi eder bat agertzen da Errebaleko komentu aurrekaldean, bei beltzez eta txuriz, maiordomo bat dela gidari. Hamabi dontzeila hurbiltzen dira gurdira, guziak zuriz apaindurik; komentura igo eta komentutik jeitsi, Amabirjinaren jantziak eta elizarako tresneria gurdian txukun ipiniz. Kutxa handi batean koroia eta gainerako jantzi eta pitxiak, baliorik handienetakoak. Gurdia gertatzen duten bitartean, beste bi gurdi dabiltza kalez-kale, jaiak Arraten igaro nahi duten etxeetatik ontzi, jantzi, janari eta gainerakoak bilduz. Komentuko kanpaiak jotzen hasten direnean, hiru gurdiak abiatzen dira Arrateruntza, bidean sutunpak eta dunbadak boteaz.

Arratera heltzeaz bertako kanpai hotsak hasten dira, ongi-etorria emanaz; jendea irrintzika, zantzoz eta kantaz delarik. Egun hortan hamabi dontzeilak garbitzen zuten eliza eta Amabirjina jantzi ere bai. Biharamunean, irailak 7, egunsentiarekin txistulariak kalejira eta jendetza handia bilduz guziak Arrateruntza. Han goian, hamarretan, ehun dukateko mezarekin jaiak hasteko (25).

Eginkizun horietarako dontzeilak izateak ere badu nonbait bere ager nahia. Emankortasunaren zeremoniatik datorrena dela esango nuke. Hau da, dontzeilen eskaintzatik sortua. Erromako *vestales* zirelakoen antza ere badute.

Gauzak hiru gurdiz eroate hortan ere hirutasunaren sinbologia ez ote? Zeren, hirutasun hau zenbait aldiz agertzen bai zaigu: hiru dira gurutzari eman beharrezko bueltak; hiru, bideko *pauso* edo atsedenak; hiru, tresneria eroateko gurdiak; eta ondoren ikus dezakegunez, hiru aldiz haurrak Amabirjinaren kapapetik igarotzeak.

**Bizitzaren sorleku.**

Haurrak, beste toki batzutan Paristik edo zikoinak ekartzen dituen bezala, Eibarrera Arratetik ekartzen dira. Guretzat Arrate da bizitzaren sorlekua eta debozioz hara doaz gure pozak. Horregatik erabiltzen zuen Toribio Etxebarriak bere euskarazko idazlanetan izenpetzeko "Arratetiko bat" izenordea, eta *Lexikón del euskera dialectal de Eibar* lanari ere, izenburu ordez, "Arrate'tikuen izketia" jarri zion(26). Bestalde *Ibiltarixanak* deritzan liburuan ere gauza bera agertz-ez gainera, bertsoz ere aitortzen du(27), Arrateko kantategian adierazi nuen bezala.

Ezkongaia bilatzeko ahalmena eta bizitzaren sorleku izatez gainera, antzina, Eibarren umerik gaixo-tzen zenean on zen Arratera eroan eta Amabirjinaren kapapetik hiru aldiz igarotzea. Arrate egunez ere, hori egiten dute bertara doazen erromesak. Andra Mari Arratekoa bai zen bizitzaren zaindaria, 1784ko kanta hartan dion bezala: "magal zabal orretan bizi oi gazala"(28).

Bizitzaren misterioaz, adinekoek ez ezik, haurrak ere kezkatzen dira, eta Arratera heldu eta elizan sartzeaz bat, Eibarko ume guztien galdera izaten da, ea haurtxoak non gordetzen diren. Gurasoek, nolabait erantzun beharrez, sabaiaren erditik zintzilizka dagoen itsasontzia seinalatzen dute. Haurraren irudimena hain luzea denez, inoiz haurtxoren baten burua ikustera ere heltzen dira; baina haurtxoen negarra noiznahi entzuten dute. Horregatik, itsasoz ekartzen dituen ustea zabaltzen zen.

Zintzilizka dagoen itsasontzitxoa, marinelen oparia baizik ezta. 1785eko kanta batean era hontara aipatzen dena, itsas-gizonak erromes aurkeztean:

*Marinel fraka-luze*
*Arrate-zaliak*
*emen etorri dira*
*ontziak zeresat(29)*

*itsaso zabalian*
*balegoz bezela*
*ermitan paratzeko*
*beren pozgarritzat.*

Elizako kofradia liburuetan ere aipatzen zen 1794. urtean, zintzilika edukitzeko kate berri bat erosteaz(30).

Sineskera zaharretan Mari-Murukori eranste zaio semeak kristautzearena. Zazpi ziren eta gurdiz eramanak elizara Marik Muruguena baserriko semea senartzat hartu zuenez senarrak hola nahi izan zuelako, guziak gurdian loturik eroan zituen, baina Mari emazteak ihes, esanaz: "Zazpi semeak Zerurako, ni Mururako; Muruguena ez da sekulan eri edo maki gabe izango"(31). Arrateko kondairan Pagoaga eta Zelai baserrikoei gertatu zitzaien erara. Mari paganotik haurrak kristautzeaz ez ote dator Arratekoa ere?
Gaixotzen ziren haurrak Arrateko Amabirjinarengara eroan eta aldare aurrean jarri eta bi kandela piztuak otoitz egin eta gurutzari mun eman, ohitura zaharra izan da. Arrate egunez ordea, irailaren zortzian, Andra Mariaren irudia harrizko gurutzeraino prozesioz eramaten da eta, bai han eta bai elizpean, irudiaren azpitik hiru aldiz pasatzeko ohiturak irauntzen du. Honen berri eman zuten mendearen lehen partean J. M. Barandiaran, P. Larrañaga eta E. Urrozek(32).

Debarruaren behekaldean oso ezaguna da Mendaron Santa Ana ermitatik etortzen direla haurrak, eta Lasturren (Itziar) inguruko leizazuloetatik. Leizaola baserrian kontatu zidatenez, eta bertako seme-alaben artean egiaztatu, bakoitzak bazekien bera zein lezatatik ekarria zen.

Oiñatiko Sandailin (antzina Santa Ilia zena eta denborarekin San Elias bihurtu dena) beste era baterako haurgintza azaltzen da. Adibidez, haurrik izan ezinezko emakume antzuak familia lortzeko joaten dira, oinordekoaren eskean. Han dagoen harraska batean gorputza, burua edo oinak bustiaz lortzen den ustean(33). Baita ere, "umian txaketak eta ekarten ditue familixe izan daixen edo"(34). Ikus baita ere antzerako sinesmena nola bildu zuen J. M. Satrustegik Aralarren(35).

**Galerazpenak**

Hemen agertzen ditudan ohiturak ezaguturik, oso nabarmen azaltzen zaigu Arraten pagano sineskeren lorratza, tartean emankortasunaren zeremoniak direla. Trento-ko Kontsilioaren ondorenak, erreformaren kontra-indarrez, holako usarioak baztertu edo galerazteko ahaleginak bizkortu zituen, kristautasunezkoa eta paganoa elkarrengandik bereziz eta ahaleginok inoiz baino indartsuago iritsiko ziren Arratera, debekuen aginduz.

Agirien arabera, 1602. urtetik sortzen dira eragozpenak. Urte hortan, herriak usario zaharrez ematen zuen bazkaria salatu zuen alkateak, alde batetik jan-edan gehiegiaz moralaren kontra egiten diren zabarkeriegatik eta bestalde herbesteko jende gehiegik parte hartzeaz lotsagabekeri asko eta diru ordainketarik ez behar haina. Bestalde, kantudun meza nagusirik ez uztearren ere mindu ziren San Andres parrokiako apezak Arrateko kaperauarekin. Kaperauak ordea Apezpikutegiaren aginduak jarrai-tzen zituen eta ez zuen nahi edo ez zuen onartzen meza kantudunik. Iskanbilak urtetan iraungo zuten.

1657ko uztailaren 8an, Kalahorrako apezpikuak eleiza eta ermitetan gaupasak egitea debekatzen du. Eibar Kalahorrako Apezpikutegikoa zen eta agindu horrek haserrebideak gehiago pizten ditu, Arraten antzinako ohitura zenez bertako jaiaren bezpera gaua han pasatzea. 1687 eta 1688an baimen berezia lortu zuten eibartarrak irailaren 7ko gauan elizako ateak idekirik uzteko, baina emakumezkoak gizonezkoengandik berezirik edo elkarren artean nahastu gabe egoteko kondizioz. Era hortara, urtero baimena eskatu behar zuten garai horietatik aurrera. Baina, apezpikuak 1692an bisitatu zuenean ateak itxitzea agindu zuen; agindu hori betetzen ez zutenek

eskomulgatuak izango zirela mehatxatuz. Eibarko agintariak idekirik uztearen aldekoak ziren, neska ta mutilak aparte egoteko promesa eginez: "hacer la diligencia de apartar los hombres de las mujeres y poner veladores..."(36).

Baina, iskanbilak gutitu beharrez, gehitu egin ziren. Eta eliz agintarien arrenkurak ez dira bare-t-zen, zeren elizatik aparte, baina bere inguruetan nonnahi ikusten zirelako neska-mutilak moralaren kontra era txarrean. Agiri denez, elizan ez uzteak ez ditu gauzak hobetzen. Eta tira-biraka jarraitu zuten herriaren eta elizaren artean. Azkenean, Cano y Mucientes erregeren korrejidoreak hartu zuen parte. Honek, 1754. urteko abuztuaren 27an, ohitura onak eta morala zaintzeko, agindu zehatzak eman zituen(37). Hala ere, 1884. urtean berriz ere eskandaluak sortu ziren, apezpikuak eliza itxi-tzera arte.

Gaupasa, Arrateko jaian ez ezik Eguberriz Gabon gabean ere egiten zen, eta hemen nabarmenago nabari da eguzki aldaketaren mugan bizi-berritzez egiten ziren zeremonietatik hurbil zegoela eta emankortasunari nolabait lotua. Oroi, Arrateko jaia bera, abenduaren 8tik irailaren 8ra pasatu zela 1563an, Aita Santuaren *Breve* delako agiriaren bidez. Aldaketa hori herri agintari eta eliz agintarien eskariz egin bazen ere, garaiagatik, gaur nork daki bestelako arrazoirik ere ez ote zen. Dena dela, neguko eguzki-mugako ospaketeri kokatua zen lehen lehenik.
Hara ze zion Polikarpo Larrañagak hainbeste aldiz aipatutako hitzaldietan: "Gabon gaba ta Arrate'ko jaiaren aurreko gaba elizan bertan, Arrate'ko eliza-barruan igarotzeko oitura zegoan. Moskortuta, ta bear ez bezela ibiltzen ziran ordean neska-mutillak, eta Calahorra'ko gotzaiñak oitura ori kendu nai izan zuan, gaba elizan igarotzia eragotzi ta atiak itxiaz. 1661'garren urtean udalak agindu zuan bear ez zan gauzarik egitea berak galeraziko zuala, ta Arrate'ko ateak irikita egon zitezela len bezela. 1688'garren urtean baimena emanda zegon, baño 1692'ean berriz kendu zuten. Eta bai udalak berriz eskatu ere: mutillak eta neskak aldeztuko zituala, eliza-barruan arri ta burdinezko saria jarriko zutela luzera guzian eta alde batean neskak eta bestean mutillak jarriko zirala, eta gaba an pasatzeko baimena berriz eman zezala eskatu zion gotzaiñari. Eman zuan, eta XVIII'garren gizaldian indar aundia zeukan oitura onek. Jende asko etortzen zan inguru guzietatik gaba igarotzera; elizpea, torrea, ostatua, ta toki guziak betetzen ziran. Emendik etorri ziran iskanbilla aundiak, eta Gipuzkoa'ko Errejidore Cano Mucientes'ek eman bear izan zuan agindu gogor eta mingarri bat, iskanbilla eta anabasa guztiak kendu, oiturak zuzendu, eta alkartasun garbia gordetzeko, bai elizan, bai inguruetan."

"1884'ean beste iskanbilla bat sortu zan, elizpian eta inguruetan bear zan lotsarik gordetzen ez zalako. Gotzaiñak eliza itxi zuan; udalak agindu zuan dantzari eta bear ez zan sal-erosterik ez zala izango, eta berriz iriki zuten."(38)

**Azken oharrak**

Behar bada urrutiegi joango ginake, Arrateko Andra Mariak, egunaz eraikitzen betetzen zuten lanaren materialak gauaz tokiz aldatzeak klasiko mitologiako Peneloperekin ezer ikustekorik duen. Era berean, Hamabi dontzeilak jairako egiten zituzten prestaketak heurak Erromako *vestales* zirelakoekin kidetasunik duten ala ez. Antzinako Erroman *Vesta*-ren eliza eta bertako su sakratua zaintzeko Numa-k izendatu zituen lau dontzeila, geroago lauren ordez sei izatera helduko zirenak; berengain uzten ziren zenbait hilburuko eta kontratu ere. Teodosio II.ak itxi zuen eliza hura 394. urtean.

Pundu hortan, oharretik haruntza ezin gindezke joan. Ez *vestal*-ekin eta ezta ere Penelope-kin, ezin dezakegu elkartu Arraten gorde den ohiturazko sineskera, baina bai euskal mitolojiako beste zenbaitekin, zuhurrago ibili nahi badugu. Eta, zuhurtasunak Jentilak, Mari eta emankortasunaren zeremonietara garamatza. Kristautasunari gero erantsiak baino zihurrago litzake ohitura pagano kristautua izatea. Hala dirudi. Ohitura horiek, beren itxuraz, bertako historia baino zaharragoak dira, hedakuntzak eta erroen sakontasunak erakusten digunez.

Arraten, arkitektura eta eskulturazko kristau adibideak XIV. mendearen lehen partekoak dira eta historiako agiri zaharrak, lehen lehenak, XV.ekoak. Kondaira ordea (eta, hemen kondairatzat gaztelerazko *leyenda* erabili nahi dut) euskal mitologia zaharrari loturik aurkitzen da, bere sustraiak sakon nabari direla.

Eliza eraikitzeko harrien garraioak Bolibar (Ziortza), Ataun eta Amezketan Jentilak egiten dute eta Arradoy-n ordea Mariren lana da. Hiru pausoak ere Jentil gizandien pausoak dira nonbait. Ba diteke horietako zenbait gauza gero erantsirik izatea, kantategiko zeruko berri ematearena izan daiteken bezala; baina, hala ere, Arrateko kondairak mitologia era gehiegi biltzen ditu bere baitan geroztik itsatsiak izateko.

Baina, denen gainetik oso nabarmen agertzen zaiguna, zera da: ezkongaia bilatzeko aukera eta haurrak bertatik sortzea. Horiek ditu Arratek antzinakoak eta horietan oinarritzen da gainerako guzia, antzinako emankortasunaren zeremoniak nahiko garbi ageri direla.

Zenbaki kontuak berak ere izan lezake zer ikusirik. Hirukoiztasuna adierazi dugun bezala, aztertzekoa litzake zazpikote hori ere. Mari-Murukok Beasaingo Muruguene edo Buruguenekoakin ezkondurik zazpi seme-alaba izan omen zituen, zerurako izango zirenak hain zuzen, baina baserri hartakoak biraoz kondenatu zituen mendez mende elbarrituak sortzeko. Amabirjinak zazpi aizpa diren ustea oso zabaldua da Euskal Herrian, eta horietako bat da Arratekoa, Eibarko zaharrak esan ohi dutenez. Baina, bestalde, euskal mitologiako Marik zazpi itxura eta zazpi aurpegi omen zituen.

Hirutasunaz zer esan? Andra Mariak Arratera hiru pausotan igotzea, jaietarako behar ziren tresna ta apaingarriak hiru gurdiz garraiatzea, ezkongaiaren bila gurutzari hiru buelta ematea, haurrak Amabirjinaren azpitik hiru aldiz pasatzea. Guzietan nabari da hirutasuna.

Baina, denen gainetik eta euskal mitologian beste inon baino nabarmenago aurkitzen dena, bizitzaren sorkundea da. Gainerakoa, bere inguruko zeremonien aztarna besterik ez da.

* * *

**RESUMEN**

Siguiendo las citas de P. Lafitte y J. M. Barandiarán sobre algunos casos de adaptación o suplantación de creencias paganas al cristianismo en la figura de Mari, en el presente trabajo se recogen materiales que atestiguan ascendencias míticas en torno al Santuario de Ntra. Sra. de Arrate, en Eibar, donde destacan, evidentemente, costumbres y creencias en las que afloran reminiscencias del culto a la fecundidad.

Como ya indicó el que suscribe, en el trabajo "Arrateko kantategia" (Cancionero de Arrate), publicado en el volumen *Homenaje a Odón de Apraiz* (Vitoria, 1981), y reproducido en el trabajo que precede, Arrate es un lugar rico en tradiciones populares. Pero el hecho más peculiar de su folklore radica en la entremezcla que se hace del culto mariano con el de la fecundidad; pues, para los eibarreses, la vida comienza en Arrate. Así como en otras partes las criaturas son traídas desde París o por la cigüeña, a Eibar se traen de Arrate. Y, para ello, previamente, los jóvenes han de acudir a dar las tres vueltas rituales a la cruz de piedra que se halla en lo más alto del cerro, en petición de cónyuge. Antaño, para curar a los niños enfermos, se les llevaba a Arrate a pasar tres veces por debajo del manto de la Virgen y en nuestros días se conserva la práctica de pasar por debajo del manto durante la gran romería de Arrate.

La imagen de la Andra Mari de Arrate es de estilo gótico - popular que puede muy bien remontarse a la primera mitad del siglo XIV. La estructura arquitectónica de la parte absidal del templo es también de estilo gótico. El resto del inmueble, con la bóveda inclusive, es obra de

finales del siglo XVI y comienzos del XVII. Pero la primera cita histórica se conoce a raíz de un reparto de leña para el vecindario de la villa de Eibar, y que corresponde al año de 1498. Más tarde, se conoce un acuerdo entre la junta parroquial de San Andrés Apóstol de la villa y el Patronato del Hospital de Ntra. Sra. de Arrate (que ubicaba dentro de la propia villa), correspondiente a 1595, para renovar las viejas ordenanzas de 1508.

Situando a aquella época, conviene aclarar que la principal fiesta de Arrate se celebraba el 8 de diciembre, y que a petición de autoridades locales y vecindario, aludiendo a los rigores del tiempo invernal, fue trasladada al 8 de setiembre por un *Breve* expedido por Pío IV, en cuyo documento se le titula Purísima Concepción, que le acredita ser la primera de las Vírgenes medievales vascas que recibe el mencionado título.

La leyenda de la aparición viene a ser común a la de otras Andra Maris del país. La Virgen se opone a construir el templo en las proximidades de la villa y de noche traslada los materiales a la campa del monte Arrate, a donde subiría en tres pasos. Es creencia de que la Virgen de Arrate viene a ser una de las siete hermanas que eran las vírgenes. Hasta primeros del presente siglo, en la ceremonia de cuidados y preparación cara al público para la gran fiesta, intervenían doce doncellas de la localidad. En la leyenda e incluso en algunas partes del cancionero aparecen conceptos que en otros lugares son atribuidos a Mari o a los Jentiles de la mitología vasca. En el cancionero también encontraremos referencias alusivas a facilitar pistas para la localización de cónyuges, y serán el mirlo o la perdiz, cual pájaro de buen agüero, quienes comunicarán el lugar de disponibilidad. Pero aún perdura la creencia de lograr novio o novia con dar tres vueltas a la cruz. Por otra parte, en Eibar, es de dominio público el que los niños se traen de Arrate. Creencia que se va perdiendo rápidamente en las nuevas generaciones de hoy por los cambios educacionales en materia sexual, pero hasta época muy reciente, Arrate ha sido el lugar que daba origen a la vida.

Hubo épocas que conoció prohibiciones, y de hecho se eliminó el aparejamiento consentido en otros tiempos en los que se acostumbraba pasar las noches en el interior del templo. Posiblemente influyeron las normas establecidas desde el Concilio de Trento. Los impedimentos comienzan, según los testimonios existentes, en 1602 y avanzan progresivamente las sucesivas prohibiciones y cierres del templo hara el siglo XVIII, con prolongación de sucesos a lo largo del pasado siglo. El mismo traslado de la fiesta, de diciembre a setiembre, en 1563, pudo muy bien ser intencional. La amonestación más severa originó la orden dada por el obispo de Calahorra el 8 de julio de 1657, al no permitir pasar las noches en santuarios y ermitas, práctica muy arraigada en Arrate durante la fiesta principal y por Nochebuena. En 1687 y 1688, las autoridades eibarresas consiguieron permisos especiales para continuar según costumbre, pero desde la visita pastoral de 1692 vienen órdenes muy estrictas, hasta el extremo del cierre del templo durante la fiesta. En consecuencia hubo duras controversias y las autoridades eibarresas alegaron que las prácticas atentatorias a la moralidad se seguían igualmente porque las parejas de ambos sexos se reunían por la noche al amparo de las frondas que rodeaban al templo, y solicitaban la apertura del mismo porque ello ayudaría a controlar mejor, pues ellos se encargarían en "hacer la diligencia de apartar los hombres de las mujeres y poner veladores...". Se mantuvo el litigio sin dar paso a la caza de brujas como ocurrió en otras partes, y a pesar de las amenazas no llegó la intervención del Tribunal de la Santa Inquisición, aunque los pleitos se mantuvieran latentes hasta que en 1754 el corregidor del rey para Guipúzcoa Pedro Cano y Mucientes dictara nuevas normas para impedir radicalmente tales prácticas. No obstante, se conocen algunos brotes esporádicos hasta finales del siglo pasado, pues el último cierre del templo por amonestación ocurrió en 1884.

Es evidente que haya connotaciones con algunas creencias del mundo clásico, pero por prudencia se considera más lógico interrelacionar con la mitología vasca, en lo que conocemos de ésta. En Arrate no se nos ocultan creencias atribuidas al numen Mari, a los Jentiles y otros sucesos de nuestra mitologia, como vienen a revelar la repetición trinitaria, las siete fases de la

divinidad y otras prácticas. A lo largo de la exposición, en cada caso, se facilitan referencias bibliográficas y documentales al presentar cada una de las manifestaciones. Pero, en lo fundamental, y como resultado, el Arrate antiguo constituía el centro o lugar del inicio de la vida, génesis mitológica, cuyas reminiscencias son las presentes pruebas de ritos de iniciación y fertilidad. Pero lo más extraordinario es que algunas de estas costumbres aún perduren como la cosa más natural en las memorias de los eibarreses contemporáneos.

(*) = Lan hau *Iker-2, Piarres Lafitte-ri omenaldia* liburukian argitaratu zen, Euskaltzaindia, 1983, 849-866 orr.
(**) = Jose Manuel Gómez-Tabanera, *El folklore español*, 1968, 100. orrialdean aipatzen du Arrateko ohitura hau. Hiru Avemaria errezatuz egiten direla hiru buelta, adierazten du, eta kanta zahar batzutan ere horrela dator.

(1) J. M de Barandiaran, *Obras completas* (Bilbao, 1972), tomo I, 297. orrialdean, Ezari buruz, ikus tomo bereko 88. orr.
(2) J. M. Barandiaran, *Ob. comp.*, t. I, 157-430 orrialdeak. J. Vinson-ek erakutsi zizkigun P. Lafittek aipatzen duen Mari-ren zazpi itxurak, ikus bere *Le Folk-Lore du Pays Basque* (París, 1883), 55-56 orrialdeetan. Baina, geroztik Barandiaranek eman dizkigu berri zehatzagoak, aipatzen dudan lan hortan.
(3) J. M. Barandiaran, *Ob. comp.*, t. I, 337 orr., eta baita ere tomo beraren 158 eta 383-384, orrialdeetan.
(4) Andrés Azcárate, *La flor de la liturgia renovada* (Buenos Aires, 1976), 345. orrialdean.
(5) A. Azcárate, aipatutako obra berean ikus 348. orr.
(6) Gregorio de Mújica, *Monogragía Histórica de la Villa de Eibar* (Irún, 1910), 158. orr.
(7) Polikarpo Larrañaga, "Arrate", *Itzaldiak* (Euskal-Esnaleak Donostian 1926an argitaratua), 65. orr. Lan hau, J. M. Barandiaranek uste zuen argitara gabea zela, bere *Obras completas* II. tomoko 224. orrialdeko oharrean jartzen duenez.
(8) Eugenio Urroz, *Historial de la Virgen de Arrate* (Eibar, 1929), 31. orr.
(9) G. Mújica, aipatutako obra berean. Garai batean galdutzat eman bazen ere, 458-461 orrialdeetan dator, transkrizio batetik hartua; baina agiri bera, geroago E. Urrozek aurkitu zuen pergaminozko orijinala eta bere *Historial de la Virgen de Arrate* liburuko 32-33 orrialdeen artean eman zuen fotokopiaturik.
(10) R. P. José Adriano de Lizarralde, *Andra Mari*, Vol. I - Guipúzcoa (Bilbao, 1926), 50-52 orr., eta X. laminan 19 eta 20. grabadoak.
(11) E. Urroz, aipatutako obra berean 43. orr.
(12) P. Larrañaga, "Arrate", *Itzaldiak* (Donostia, 1926) 84-89 orr.; E. Urroz, aipatutako obran, 25-27 orr.; eta J. Ibargutxik *Argiaren egutegia*-n (1936), urte hortako alearen 47. orrialdean Txiki-ren irudiz adierazia da.
(13) Juan San Martin, "Arrateko kantategia", *Homenaje a Odon de Apraiz - Odon Apraizi omenaldia* (Vitoria, 1981), 338-339 orrialdeetan aipatzen duen bezala, ikus J. M. Barandiaranen *Ob. com.,* I tomoko 28-29 orrialdeak eta II. tomoko 165, eta 184-185. orr. Hortaz eman nituen zenbait berri nere *Elgueta con Anguiozar y Ubera* (Donostia, 1975) deritzan liburuaren 76-77 eta 122-123 orrialdeetan; han eman bai nituen adibideak. Kondaira guztietarik zaharrena eta interesgarriena Marik gaztelugintzarako edo treguharriak eraikitzekoak dira, Ikus J. M. Barandiaran, *Ob. com.* I. t., 152-153. orr.
(14) Marcial Martinez Aguirre, "Nuestra Señora de Arrate", *Euskal-erria*, XI (Donostia, 1884), 266-270. orr.
(15) E. Urroz, aipatutako obraren 25-27 orr.; eta P. Larrañagaren hitzaldietan ere aipatzen da, ikus 99. orr.
(16) Eibarko Club Deportivo-ko *Kezka* deritzan aldizkarian (Julio, 1964), neronen bilketazko lan batean eta Elgoibarko Ikastolak haurrentzako antolatu zuten idazki lehiaketa lanean, ikus *Kezka* zenbaki horren 26-27 orrialdeetan.
(17) J. M. Barandiaran *Ob. comp.,* I. tomoan 272. orr.; J. San Marin, "Arrateko kantategia", *Homenaje a Odón Apraiz - Odon Apraizi omenaldia* liburuko 343. orr.; eta Eguzkiaren gurtzeaz

ikus J. San Marinen bilketa eta eritzia *Bidez* (Donostia, 1981) deritzan liburuaren 21-24 orrialdeak.
(18) J. M. Barandiaran *Ob. comp.,* I. tomoa, 424 orr. Behe-nafarroako zenbait tokitakoa ikus tomo beraren 152. orr.
(19) J. Vinson-ek aipatutako lanean dionaz gainera P. Lafittek "Erlisione paganoak eskualde hauietan" sarreran jasotzen dudan zatian, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, núm. 14 (Pamplona, 1973), 121-123 orr.; eta J. M. Barandiaran, *Ob. comp.,* I. tomoa, 161 eta 373. orrialdeak.
(20) Latsurregi'tar Peli, "Arrate'ko Ama'ri", *Argiaren egutegia* (1936), 55. orr.; J. San Martin, aipatutako "Arrateko kantategia", 337. orr.; P. Larrañaga, "Arrate" hitzaldietan 100. orr.
(21) J. San Martin, "Arrateko kantategia" deritzan lanean, 337. orr.
(22) P. Larrañaga, "Arrate", 100. orr. San Joan, Bermiotik Gaztelugatxera hiru pausotan joan zela esan ohi da. Ikus J. M. Barandiaran, *Ob. comp.* I. tomoa, 40. orrialdean. Bestalde, Aralarko San Migelen ere ba omen zen gurutzez zamaturik elizari hiru buelta ematea, ezkongai aukerakoa lortu ahal izateko. Ikus Salbatore Mitxelenaren *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* (Oiñati, 1951), bere 118. orr.
1942. urtean Mayi Ariztiak Barandiarani kontatu zionez, Larrun mendiaren gailurrean XVIII. mendean galdu zen Sant-Espiritu ermitara ere senargaia nahi zuten neskak joaten omen ziren. Ikus J.M. Barandiaranen *Ob. comp.*, V. tomoko 163-164 orrialdeak. Zuzenean ezer ikustekorik ez badu ere, oroi Pierre Lancre-k Lapurdiko sorginak epaitu zituenean Larruneko ermita hori aipatu zuela sorginen biltoki edo akelarretzat. Ikus, J. M. Barandiaran, *Ob. comp.*, V. t., 142. orr. Aipamen hori J. Caro Barojak ere badakar *Brujería vasca* (Donostia, 1975) liburuaren 175. orr.
(23) Ikus "Arrateko kantategia", aipatutako omenaldi liburuan, 336. orr. Orain, aurreko kapituluan jarri dudana.
(24) Resurrección María de Azkue, *Cancionero popular vasco*, I. t., 288. orr., 199. kanta; J. San Martin, "Arrateko kantategia" lanean ere jasoa dator.
(25) P. Larrañaga, aipatutako "Arrate" hitzaldietan 119-120 orrialdeetan.
(26) T. Echebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* (Arrate'tikuen izketia). *Euskera*, X-XI (1965-1966). Bilbao.
(27) T. Echebarria, *Ibiltarixanak* (Arrate'tikuen izketango alegiñak). Zarautz, 1967. Arrate jatorritzat aipatzen dituen bertsoak ikus 138 eta 279. orr.
(28) J. San Martin, "Arrateko kantategia", 349. orr.
(29) *Zeresat* dion lekuan *zeuretzat* edo *saritzat* izango da noski.
(30) E. Urroz, *Historial de la Virgen de Arrate*, 47. orr.
(31) J. M. de Barandiaran, *Ob. comp.*, I. t., 177. orr.
(32) J. M. de Barandiaran, *Ob. comp.*, II. tomoa, 224. orr.; Barandiaranen ustez Polikarpo Larrañaga-ren lana, orrialde ohar batean esaten duenez, argitaratu gabea zen, baina ezta horrela, aipatutako *Euskal Esnalea*-ren *Hitzaldiak* deritzan sailaren 4.a denez, 1926an argitaratua, P. Larrañagaren "Arrate" hitzaldietan 124. orrialdean dator ohitura hori; E. Urrozek ere aipatzen du *Hist. de la Virg. de Arrate*-ren 63. orrialdean.
(33) Leonardo de Guridi, "La religiosidad del pueblo de Oñate", *Anuario de Eusko-Folklóre*, t. IV, 1924. urtekoa, 94. orr. J. M. de Barandiaran, *Ob. comp.*, II. tomoko 204. orr.
(34) V. Gandiaga, "Arantzazuko Folklore-gaien biltzeaz", *Euskera* (Bilbo, 1956), 226. orr.
(35) J. M. Satrustegui, "Reminiscencias de culto precristiano en la devoción a San Miguel", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, año II, núm. 6. Pamplona, 1970.
(36) Gregorio de Mújica, *Monografía Histórica de la Villa de Eibar* (Irún, 1910), 171. orr.
(37) Gregorio de Mújica, aipatutako obra berean, 171. orrialdean adierazten du eta liburu beraren 462-464 orrialdeetan jasotzen du Cano y Mucientes-en aginduaren testu osoa.
(38) Policarpo Larrañaga, "Arrate", *Itzaldiak* (Donostian, 1926), 116-117 orrialdeetan. Aburu horiek G. de Mujikaren agiri bildumari jarraituz idatziak daude, noski, E, Urrozek ordea, indarra kendu nahi zion, usterik Arrateko erromeriak bere inguru geroztik sortu zituela ohitura txar horiek, *Historial de la Virgen de Arrate* liburuaren 64. orrialdean dionez. Gure ustean, antzinagokoen iraupena baizik ez dira.